

ONSA HILTCECO

BIDIAREN

HIRVR GVARREN CAPITVLIA

*Capitulu huntan frogatçen da Escriptura Saindiaz, hambat legué
berrias, nola Eliçaco doctor saindiez, nola onsa hiltçeco
bidia den herioaz orhitçia.*

I GVZQVIA orienten aguertcen, eta ialguiten den beçain fité, lurrian arguiada, gaiüac, eta ilhumpiac ihessi doaz, arguiçaguia ere, eta bertcé Ceruco Içarrec, eta planetec, ala dute beré arguin eta beré claritatea, beré naturaz, edo empruntuz, eta iessanez harganic, oro haren ahalquez gordatcen dira itçalcen, eta ezcapatcen, harc orienten goician beré beguitaté ederra, beré bisturac, edermen handiac, eta leignuriac, mundu huni aguercen dutian puntu berian. Errana eré hala da latiñez. *Quando, Sol lucet, Luna, & Stella latent*, Iguçquiac argui euguité dianian, arguiçaguia, eta bertcé içarrac oro gorda bité, bihoaz ihessi, itçal bite.

[56]

Ber forman, eta maneran, herioaren veldurra, eta memoria çuré arimaren, eta bihotçaren barnia deño, cer eré han ahal baiiçatequé, concupiscentia, Colera, Auaritia, Vrguillu, Luxuria: eta desircudé gaixto, hurac oro igusqui harc, herioaren orhitciac, accaçatcen ditu beré presentiaz hiltcen, eta deseguiten, et Iguçqui hura guré espiri-tuan deño, nola han egonen dira bekhatiac, daducat, hala nola suya, eta vra, hotça, eta beroa, churia, eta beltça, leccubatetan, materiabae-tan dēborabatez impossiblé baita elguarrequila egon ditian, elguar, eguar ahal deçaten, hala hala impossiblé dela, herioaz orhitcia eta bekhatiac biac elguarrequila, arimabaten camberan, beré egoitia, eta loiamendua ediren ahal deçaten : gratia, eta bekhatia, contrario dira, exai herioaz orhoitcea da gratiaren dispositionea : herioaz ez orhoitcea Bekhatura Ioaitea : hartaracotz herioaz orhoitcen den Arima gratiara doa, eta herioaz orhoitcen esten Arima, Bekhatura Doa, marrera berean norc eré baitu herioaren mernoria, erran beça gratiara Doala, eta norc eré ezpaitu herioaren memoria ; erran beça Bekhatura doala.

[57] Rata ičanen da bidé onean, eta Bertcea bidé gaixtoan, bidé huntaric campoan, IESV-CHRISTO Iauna, guré Arimen salbatçalia mundu huntara-jindenian, Eliça saindiaren, beré Esposaren edertcera, eta beré exèplu onez, eta predicu sainduetz escolatcera, guiten beha nola mintçatu den beré Euangelio saindian herioaz, eta ordian ikhussiço dugu, bidé hau onsa hiltceco, herioaz orhitcia, bidé segura dela.

Mat. 24 S. Math. Euangelista minço da guisa huntan : *Si sciret pater familias qua hora, fur venturus esset, vigilet, nec sineret perfodi domum suam, ideo & vos estote patati, quia nescitis qua hora filius hominis venturus est.* Balaqui Aita familiacobatec, ohoiña gauaz cer orenez gin ladin, iratçariric egon laitè presto, eta bigilant loac eliro atrapa; eta beré etchia eliro chillatcera vtci: hartaçotz, ciec eré caudeztè presto, bigilant, eta iratçarriric, ceren ezpaitaquicié, cer orenetan ginen den Guïçonaren Semia.

Ecín hobequi guré Iaunac passagé huntan abertitçen guitu eta manatcen egon guiten presto gratian, bekhatuic campoâ herioaren orena heldu deneco, hargatic comparatcendu herioa ohoiñari, guri eracasteco, hala nola ohoiñac beré colpia eguitè baituguttien vstè dugunian, hala, hala, herioac eré beré colpia eguiñen diala guc gutienic vstè dugunian, edo nahi dugunian, hargatic dio, *Estote parati*, çaudestè presto, eta presto egoiteco, hiltciáz orhit citeztè.

Marc 13 Halaber materia huntçaz beraz mintço delaric S. Marc Euangelistac, edo guré Iaunac haren mihiaz, dio ederqui. *Videte, vgilate, & orate, nescitis enim quando tempus sit*, so eguicie, beilla citestè, caudetè bigilant, eta othoy eguicié, ceren ezpaitaquicié noiz den, edo noiz ičanen den dembora, hitz, guti, labur, eta on, erran nahidu guré Iaunac, ené mecia herioa ginèdela segurda baiña noiz ginenden eztaquicié meçu harc herioac trompa etcitcen, edo atrapa hirur gauça gomendatce drauciet, so eguitea bigilantia, eta orationia, hirur arma hec ciequila badira, norc eguinendu cier guerla, nor ičanenda cien contré, herioa ičanenda flacco, cien peco, eta ciec azcar, eta haren guehien.

Luc 21 S. Luc Euangelistac eré emandu eguiteco huntan bere abisu, eta conseillu ona, *Vigilate itaque omni, tempore, orantes, quæ futura sunt, & state ante filiū hominis.* Dembora oroz çaudestè bigilant, eta orationetan, herioaren orenian ginen diren malhur, desordré, eta confusioné orori ihessi eguin ahal deçacien, eta guiconaren semia gin dadinian, cien iuiatcera edo hilic, edo biciric, edirè citcen ez lo, eta iarriric, baiña çutic beré aitciñian, eta iratçarriric.

Guré Iaunac lekhu huntan abertitcen guitu, eta mehachatcen herioaren veldurra, memoria, eta orhitmena eduqui deçagun oren oroz guré gogoan, eta guré bihotcian nahi baguira onsa biciric, onsa hil, edo nahi

ezpaguira, gaixtoqui biciric, gaixtoqui hil manatcen guitu eta abertic-
 tcen, *Vigilate omni tempore*, gauden bigilant, dembora oroz, ez sola-
 mēte gaztetarcunian, Caharcian, Vdan, Neguian, Asté oroz, Vrthé
 oroz, Egun oroz, baiña dio, *Omni tempore*, Dembora oroz, ceren nola
 baiquira dembora oroz mortal, herioac dembora oroz baitu bothere
 guré hiltceco, eta biciaren edequiteco, hambatequi mania, eta aberti-
 mendia dugun beçala Iencoaren gratia oren oroz, *Omni tempore*, be-
 guira deçagun eta conserua, herioaren oren oroz estatu onian, ené
 bidian, eguruquiteco, eta haren colpiaře alegueraqui errecebitceco.

[59]

Lekhu huntan berian gure Iaunac auertitçen guitu egon guiten presto
 orationetan, *Bale ante filiū hominis*, çaudezte bigilant presto pretoa
 ené aitciñian ni cien aitciñian nago ikhusfe çutiet oro, cer hari cire-
 ten, eta çer eguin nahiducien badaquit, ni cien beguien aitciñian
 ikhuzten banunducié beçala, çaudezte çutic gogoa eman eçacié, begui-
 raucié galduco çuctiet ené mecia baita herioa, cien aldian da, heldu
 da, meciaren ondoan heldu nitz, bai juiamendu particularrian, bai
 juiamendu generalian hilic, edo biciric ené escuetara erorico cirate,
 eztut ordian eguiñen gratiaric, ez misericordiaric, iustitia handibat
 eta rigorosbat eguinendut ordia, Cerua eta lurra deseguiñen ditut, eta
 cien Arimac, eta cien Gorpitçao sutan eta odoletan eçarrico ditut,
State ante filium hominis, herioaz orhituric, ené beldurra eduquaitie cien
 bihotcetan, eta forma onian, estatu onian, gratian, bekhaturic campoan
 iguruçacié cien azquen orena.

Ioan-doné Ioannes Euangelistac beré aldian eztu vtci ahatcera mate-
 ria saindu, hau orhitu da beré rebelationé, eta visioné handietan bidé
 saindiaz huntçaz erran dianian ederqui, eta sainduqui, Si *nō vigilaueris*
aeniam ad te tamquam fur. Ezpalin bacité egon bigilant, eta iratçar-
 riric, ginen nuçu çugana, ohoinbat beçala. Guré Iaun Apostolu, eta
 adesquidé handi honec hitz gutiz, hanitz errandu, *intelligenti pauca*
 adimendu onac hitz gutiz asquidu eta Arima onac eré Arimaz denian
 questione, manu gutiz asqui du.

Apoc. 3

Segurda guré Iaunac beré Apostolier Misterio handiric beré Espi-
 ritu saindiaz erakhutxi eta reuelatu ciala, ceren beré Ministré beçala
 hayetçaz cerbitçatu nahi baitcen, beré legué sacratiaeren, eta Euangelio
 saindiaren mundu orotan barrayatceco, eta beré hitz benediciatiaren
 aciaren lur orotan ereyteco mania eré emancian eta boteria orori, Minis-
 terio, Officio, eta funcioné sacratu haren eguiteco, obratceco, eta
 exerçatceco, noiz eré beré aho sacratiaz erran betcerayen, *Predicate*
Euangelium omni creaturæ, predica eçacié ené Euangelioa, eta ené Erre-
 suma, creatura orori: baiña segurnitz bateré etcela haiñ barna pene-
 tratu Iaunaren secretietan, nola Ioandoné Ioannes Euangelista, Escritu-

[60]

Marc 16

Ion. 21.

rat eré badio, *Recubuit in cæna supra pectus eius, hic est discipulus, quem Dominus valdè diligebat*, beré buria paussatu ciala Iaunaren altçoan, eta haren bularretan golcoan, eta hura cela dicipulua, çoin Iaunac handisqui mayté baitcian.

Beharda sinhetsi altço chahu, eta bulhar golco delicatu hartan, dici-pulu mayté harc ikassi, eta ikhussi ciala gauça ederric, eta miragar-ric, segurnitz halaber han berian Iaunaren dicipulu digné harc ikhassi eta ikhussi çutiala guri orori, bidi hontçaz, Iaunaren partez erakhussi dutian hitz saindiac, errandudan lekhuana. *Nisi vigilaueris, veniam ad te tanquam fur*, ezpacité egon iratçarriric, ginen nuçu çugana ohoinbat beçala.

[61] Labur laburra Apostolu saindu hunec eguitendu mentioné guré biciaz, eta guré hiltciatz, nola bici behar dugun abertitcen guitu, eta gaizqui billen guirela mehatchatcen haren escola, eta haren doctrina saindia mesperecha badeçagu, biciaz dio, *Si non vigilaueris*, ezpacira egoyten bigilantian, eta sentinelan, ezpadeçaçu beguira, eta goarda onsa çuré arima gratian, epacité trauailla onsa Iencoaren baratcian, eta minatcian, haren manu saindiac, eta haren Eliça saindiarenac deuotqui, eta religiosqui obserua, etsaya, baita bekhatia, vtci badeçaçu sartcera curé Arimarē gatzelian, eta çuré Arimare camberan, *Veniam ad te tanquam fur*, ginen nuçu çuré edireitera ohoiñ anço, ohoingbat beçala, noiz eré içanen baitcira barnago bekhatian sarturic, ordu hartan, bat batian ez vztian, çuc vste gabiric, ginenitz gauaz, surprenituco cirut, atrapatuco citut çuré bekhatiaren loan, eta lohian, eta beréhala hillen citut, eçarricodut, eta ehortcicodut çure gorpitca lurpian eta çuré Arima iffernu çolan badea deus, biciaz, edo hiltciatz haiñ ederric, edo garbiric, nola theologo diuino bunen errana eguia bada, den beçala, ençunic, eta behaturic, haren erraney bai biciaz, bai hiltciatz, guiten, othoy, onsa bici Iencoarequila batian baren gratia saindian, affiñ eta ohoiñ trompur hura, herioa gin dadinian, edo egunaz edo gauaz guré contré, guc hura trumpa deçagun eta, ez harc, gu.

[62] Laur Euangelista saindiac arcordu honbatetan dira, guri eracasteco herioa ohoinbat dela, eztela hari cer fida, trompur bat dela, nor içanenda persona hain simplia eta bain elguerra, non daquiellaric etsaya bortan diala, eztadin egon iratçarriric armac escuan, beré ohoiñaren, eta beré etsayaren beré etchetic, eta beré bortatic accaçatceco, eta hantic apart Ioan eraciteco, halacoac behardu coffessatu, itxutu dela, erhotu dela etxaya bortan, loac bar badeça bada herioa oren oros inguru, inguru guré aldian dago, eta haren veldurra, eta haren memoria galduric bekhatian barna sarturic, lo eguin badeçagu, erhoac, elguer-rat, eta galdiac eternalqui içanen guira.

Eztugu cer dudaric har herioa, eta Iaunaren mecia, ohoiña beçala ginendela, lau Euangelistec eguia eder hori erandute, hala dio oraño Ioan doné Petri Apostoliac, *Adueniet dies Domini sicut fur*, ginenda 2. Pet. 30
Iaunaren eguna ohoina beçala.

Hala dio oraño Ioan doné Paulé Apostoiac, *Ipsi diligente, scitis, quod dies Domini sicut fur in nocte, ita veniet*. Badaquicie onsa, hala nola ohoiña gaüaz desorenian, ez vstian giten baita, hala hala herioa, Iaunaren mecia ginendela. I. Thess. 5.

Badaqui mundiac, eta egun orozco vsantçac emayten du aditcera, comunzqui ohoiñac beré iocoa iocatu nahi dianian eta beré colpia eguin, gaüaz ichilic, nehorc ikhussi gaberic, ebilten dela, gaüaz bertceren onac ebasten dutiala, gaüaz ohoiñqueric, eta gaxtoqueric eguiten dutiala, ilhumpian gendia lodatçala, etchiac; eta haciendac arrobatcen, eta ebasten dutiala, ceren egu arguian ezpaitu corageric aguertceco, eta beré colpu gaixtoè complitceco, lotzaz eta beldurres, egu arguiz beré gaxtoqueria eguin baleça baren falta aguerturic, eta iusticiac harturic, eta condemnaturic, beré faltaren punctionetan, edo recompensutan presonteguaia, açotia, galera, edo vrquauia errecebileçan bolurbatec ere publiqui bidé handian, nahi dianian arrogatu [63] marchanta, bideianta, passanta, ata messaiera, cer vsté duçu eguiten diala, bolurrac gordatcenda oyanean edo bertcé lekhu secretu batetan, bidé handiaren aldian, eta noiz eré marchanta, eta bideianta heldu baitira, bolurra eguertcenda armac escuan, hayen aiticinera, eta pistola bandaturic, eta daga punta, çunçurrera eçarriric, dio marchantari, dugun molsa edo bicia, dugun vrrea cilharra, dirua, eta hacienda, ordian marchant miserabliac, beré onac galtcen ditu, eta hanitz orduz beré bicia, eta beré onac, iaquin faltaz bolurra bide hartan gorderic çagoela manera hartan, bai aita familiazcoa, bai marchant passanta galduric, eta arrogaturic, guertatcen dira, baita iratçarriric gaüaz egon ohoiñaren aidura, eta beha, eta bertcia, iaquin faltaz, cein lekhotan, bolurra bidé handian, beha, aiduru, eta goaita çagoen, eta bide hura vtciric, bertcé bidé onbaten eduqui faltaz.

Beré guisan eta maneran eguitendu beré iocoa, eta beré colpia herioac, ezta halaco ohoiñic, ez eta bolurric nola baita herioa, noiz eré baiteira bekhatiaren ilhumpian, Iencoaren arguia galduric, baita haren gratia, gau hartan çunçurretic lotturic, çuré loric hobenian, larrutcen citu hiltcen citu, eta bicia edequiric, çuré haraguaia, eta larria, ohoiñ harc dohain, ez deusian salmen du lurrari, eta çuré arima gaichoa deabruari, iratçarriric gratian, egon faltaz.

Volur harc bidé handian, egu arguiz, erran nahidut çuré ossaguarria- ren hobenian, çuré adinaren hobenian, çuré placeren erdian, goitatcen

[64] citu eta nahi bacira, eta ez çuré bicia; eta çuré onac oro edequiric, çuré haraguiaz egitendu lur, eta çuré Arimaz Iffernuco suaren egur, eta bazca.

Neure adisquidia, hementic escola cité, ohoiñbaten, eta bolurbaten artian gaiiaz, eta egunaz bici cirela, ohiñac gauaz bolurrac egunaz, trumpatu nahi çutiela, çaudé othoy gaiiaz gratian iratçarriric, eta egunaz goitan çuré azquen orenaren beha, hala eguin badeçaçu, herioac emanic eré beré colpu mortala çuré haraguiari, eztu emanen çuré Arimari, baiña, çuré Arimac emanèdu azquen colpia herioari, haraguiaren hiltcian, eta guero, guré Iencoa baita, biciaren eta herioaren Iauna, harc emanendu beré gloria çuré Arimari.

Gaztelu, eta Iaureguy eder, eta bortizbat, etxayac campotic inguru, inguru, assetiaturic eduquiten dianian haren edo bortchaz, edo compositionez hartceco, eta haren guehien, eta nabussy içateco, gaztelu eta Iaureguy haren barnian balin bada garnisoné onbat, guerlaco, eta ahoco munitione franco, eta ororen burian Capitaña, eta soldadoa, badira coraiosac, eta deliberatoac behar denian, onsa deffendiatceco, eta onsa attacatçeco, barnecoac truffatcen dira campocoez, eta azquenecotz Gaztelu, Iaureguia, ohorian gulditcenda, eta etsaya, beré pena, eta beré dembora galduric, desohorez betheric, beré gendiarequila retiratçenda.

Baiña Iauregui hartan ezpada armaric, ezpada cer Ian eta edan, ezpada Capitanic, eta soldaduric, edo içanic eré ezpadira coraios, eta deliberatu, eta diren poltroignac, eta bihotz gabiatic, adios Gaztelia, adios Iaureguia, *Ville gaignée*, hiria hartuda, etsayac eguinendu Iauregui, eta gaztelu harçatz nahi diana.

[65] Guré Arima da, gaztelu, eta Iaureguy ederbat, eta bortizbat, momento oroz gaztliu haur, campotic, eta barnetic assetiatuda, attaquatuda furiosqui, eta pausu gaberic, haren etsayac dira, deabrua, mundua, haragui, eta bertcé etsay visibliatic, eta inuisibliatic, guerla campotic, eta barnetic, etsay gaixto bec, Iauregui eder hari, Arimari, eguiten duté, hala, nola, Lehoiñ furiosac, eta otso gossé minthiac, ardi gaichoari eguiten baitu, hala dio Apostolu batec, *Tanquam Leo rugiens circuit*

I. Pet. 5. *qærens quem deuoret.*

Baiña noiz eré arima eder haren camberan, gaztelian, eta Jaureguian, munitionia, baita franco, erran nahidut, orationia, bigilantia, humilitatia, eta bertcé bertatiatic elguarrequila baitira iuntatcen, noiz eré Capitañ çuhur hau, herioaren, hilciaren memoria, orhitcia, eta veldurra, soldado coraios, resolutu, eta deliberatu hau Iencoaren veldurra edireiten baitira adios campoa, adios etsayac, ohoria barnian, desohoria campoan guelditcenda baiña halaber arima haren, gaztelu Iaureguy haren Camberan, ezpada prouisioneric, ezpada bertuteric, ezpada Capi-

tanic ez soldadoric, ezpada herioaren, hiltciaren veldurric, ez orhitcerit, ezpada Iencoaren veldurric, ez amorioric, hartu da Gaztelia, hartu da Iaureguia, Ioanda Arima, galduda arima, *Ville perdue*, hambatequi, neuré Adisquidia, has, eta akhaba, *A primo ad ultimum*, herioaren veldurra baduçu, asqui duçu, herioaren veldurra ezpaduçu galdu cira.

Arquabusariac churia honquitu nahidianian, eta ehiztariac beré ehicia caussitu, eta hil, nahi dianiã, batac eguitendu so beré churiari, eta bertciac beré ehiçari, esquin, ez ezquer, beré beguiac, beré bessoca eta beré Arquebusa makhurtu gabé, eta ordian bai batac, bai bertciac, baduté esperanca, norc beré colpia onsa, eta hurosqui eguiñen diala, batac honquituco diala beré churia, eta bertciac beré ehicia: baiña den mendrena beré beguiac apartatcen hadituzté batac beré churitic, bertciac beré ehicetic, colpiaren artiquilian dangerosda, lumac haraguia eraman deçan, eta Arquebusaria, beré bala, beré bolbora, beré drageac eta beré pena galduric, confusionelan, eta desohoretan gueldi dadin, eta haren irabacia oro içanen den bi çehabeté sudur, erran comuna den beçala.

[66]

Neuré Adisquidia Iencoac mundu huntan eçarri citu onsa biciric, onsa hilceco, eta onsa hilic, Ceruco gloria eternalaren emaiteco çuré hiltcé onaren pagutan, eta recompensutan hiltcé ona nahi baduçu, eguiçu so ardura, ardura herioari, herioac çuri oren oroz so eguitendu, çuc hari eguiçu so, çuc hura, edo harc çu trompatu behar çutu, Iocoa eta partida colpubatez doa, edo çuc herioa edo herioac çu trompatu eta enganatu beharducié, ezta itcultceric, ezte bihurtçeric, edo gal, edo irabatz, lehen colpian doa gauça oro, onsa hil bacité, Parabissua çuré gaixqui hil bacité Iffernua çuré hartacotz errãdu ederqui, eta çuhurqui Apostoliac mundu gucier. *Statutum est omnibus hominibus semel mari*. Ordenatu dela guiçon eta emazté orori, behin oroc behar dutela hil, ezta biric, ezhiruric, erranda behiñ, *Semel*, colpu hari; gogoia emaçü, hari fallaric ez eguiteco, çaudé presto gratian, bekhaturic campoan, hala eguiteco, herioaz eta hiltçiaz orhitcité, eta colpu hartan iagoiticotz çuré Arquabusac herioaren contré eguiñendu colpu, eta herioaren arquabusac eztu eguiñen colpuric, çuré hilkian, çuré Arimaren contré.

ad Hebr. 9

[67]

Æsopus, espirtu aleguera, eta placent harc, cõdatcendu ederqui beré librian, eta beré fabuletan, egun batez lehoiña, baita animal ororen Erreguia, eta noblena eritu cela, eta çaharlu, edo aumens eguiñ ciala, eriarena, eta lecé barnabaten çolara Ionnic, han çagoela heda heda etçanic, noiz lo, noiz iratçarriric, lehoiñ hunen eritassunaren berria bertcé animalec entçun çutenian, oroc, norc beré aldian, bedera, bedera, beré visita eman çutela lehoiñ hari, eta oro Ioan cirela haren ikhustera, cer vsté duçu lehoiñ harc, çer finecia, eta ioco eguiten

[68] ciala, Ioan heçanbat, hiltçen çutian oro, eta çuntçurretic loturic, odola orori edaten, eta egosquiten, eta moyen hartçaz eri çela eztacuria hartan, beré chilotic, eta beré lectic higuitu gaberic, bonachera eguiten cian eta beré dembora onsa, eta alegueraqui igaraiten, animalé misemblé hayen odolaren despendioz, finalqui cer heldu cen? Acheria, baita Animalé ororen fiñena, Ioanda beré tornian lehoiñ hunen visitatcera, eta beré Erreguiari beré eguiñ biden errendatçera, heldu denian, lecé, et chillo haren tinira eta mugala, sobat eguiñic lecé hari ikhussi ditu gaiñeti behera Ioan ciren Animalen hatçac eta herechac, eta eztu ediren, ez ikhussi bateré hatcit, ez herecharic, peti gora, lecé çolatic goiti itçultcen cenic, hambatequi iuiatudu çuhurqui Acheriac lecé hartrat Ioan ciren Animaliac oro galdu eta peritu cirela ceren ezpaitcen batere goiti itçuli, ez bihurtu, juiatudu halaber, etcela on, eta segur leçe hartâ, behera ioaitia, pensamendu hartan çagoela, noizpait hassida Lehoiña mintçatcen, eta dio, ma comere, sarcité, auança cité bertcé oroc, çuc baici ikhussi nuté, neuré ohian, eta visitatu neuré eritassunian, çuc eré ikhus neçaçu, acheriac arrapostu emaitendu ederqui, lehoiñari, eta dio, ené Erreçuaia, eri bacira, sendo cité, ordu honian, hementic çuré ikhustiaz contentniz, enaité haboro auantça, bidia ikhustendut çuganat giteco, baiña ez tut ikhusten bideric çuganic hunat giteco, Iencoa lagun daquiçula, eta sendo çitçala, çuganat gin direnac, giteco balira, bat eliteçu gin, guisa hartan acheriac beré bicia salbatu cian, eta itçuli guibelerat.

Neuré adesquidia, guré aitcinecoac oro Ioan dira, hil dira, gu eré hillen guira, eta guré ondocoac eré bai, behiñ hil dira seculacotz, bat ezta itçultçen herioaren chilotic, eta hobetic, behiñ hari, othoy gogoa emaçu, ordian falta eguin badeçaçu, iagoiticotz galdu cira, eta azquen oren hartan, çuré azquen urhatssa, eta laucia, onsa eguin deçaçun, curé bici orotan prepara cité çaudé sentinelan, çuré dembora orotan ez tuçu behar ikhassi lectioné baicoitzbat baici, horida onsa hilcia, ikhas eçaçu onsa çuré lectionia gaiüz, eta egunaz, orena gin dadiñiã, çuré lectionia onsa ikhassiric, eta onsa erranic, Iencoa baitan onsa hil citian, eta ceren lectione hori ecin ikhasten baitigu, guré bician, herioaz ezpa guira orhitcen, bertcé eguitecoac oro vtçiric ala part, educaçu, çuhur [69] bacira, oren oroz, çuré hiltciaren, eta çuré herioaren memoria, eta veldurra, çuré beguien aitciñian, eta çuré Arimaren camberaren erdi erdian.

Laborariac beré elguian, beré oguia, edo artoa vrté batian galçen dianian, harria, chicherra tempesta, oragia, odeia, eta lana dela causa, ez tu galtçen hargatic beré esparantça, ondoco vrtian beré damia, eta beré galtcia vsté du reparatuco diala, vrtia gin badadi aberatz, eta prospero,

Arçaignac mendian beré ardia, eta aharia vrté batian galduric eré, edo berac hillic edo otsoac, eta hartçac Ianic, eztu galtcen beré coragia, eta beré esperantça, vstez ginen den vrtian, guehiago fortuna, eta prosperitaté vkhanen dian beré Ardietan, eta beré aharietan.

Erreguiac, Princiatic, Capitaigñac, Soldadoac, beré combata, eta batailla guerlan egun galduric, eré vstedu biharamenian, dicha, eta fortuna hobé, vkhenen diala, eta egun haren etsayac badu hartan auantailla, harc bihar, hartan vkhenen diala.

Iocalariac beré urhia, cilharra, eta morsa oro galdu dianian, eta iocatu, edo cartetan, edo datoetan, edo bertcé çoinbat iocotan, badu esperantça, lehen iocoan, iocatu cian dirua, irabacico diala, eta nola iocoa, eta armac baitira erorten behin aldé batiala, guero bertciala, Iacolariac, eta soldadoac, baduté esperantça, egun içanic eré malhuros, bihar içanen direla dohatsu eta huros, bata beré Iocoan, bertcia beré armetan, hala dio eré poetac latinez, *Victorem a victo superari sæpe oidemus*, ikhustē dugu hanitz ordus garaitiac, garaiçalia, garaitçen diala hitzbatez hanitz erran deçadan ezta mundian gauçaric haiñ galduric, eta desperaturic non eztiā cerbait erremedio, eta confortu, herioac haici harc eztu, eta ez vkhenen, hargatic, neuré Adisquidia, çaudé beha, ceiñ aldetaric ginén den, behiñ ginen da, baiña ez guehiago, behiñ hartan, haren colpiac atrapatcen bacitu estatu onian, gratian, Iffernuaz, Deabruaz, ikhatiaz, eta herioaz, iagoiticoz truffatuco cira, Aingueruē artian, Arima hurosen artian, iarriric egonen cira. Baiña haren colpiac estatu gaixtoan, bekhatian, atrapatçen bacitu, erraçu adios, çuré Paradisuco parte onari, eta segurta cité iffernian edirenen duçula Cambera gorribat, oro suz eguiña, eta han iagoiticotz chispilduric, eta erreric egonen cirela gauaz, eta egunaz, erraiten dian beçala Escritura saindiac, minço delaric Dæmonioez, eta Arima damnatuez, *Cruciabuntur die, ac nocte in sæcula sæculorum*, Turmentatu içanen direla sæculacotz, gauaz eta egunaz.

[70]

Hala nola erran baitu, mintço delaric Aingueruez, eta Arima benedicatiez, hurosez, eta salbatiez, Propheta Royalac, *Beati qui habitant in domo tua, Domine, quoniam in sæcula sæcularum laudabunt te*. Iauna huros dira, çurequila çuré Eresuman, curé Etchian, çuré Camberetan, çuré Glorian egoiten, eta habitatcen diren gendiac çeren halacoec, eternalqui benedicatuco çutié, eta laudatuco.

Hautia guré da, edo Paradusia, edo Iffernua, Paradusia nahi dianac, orhit bedi beré hiltciatz Iffernua nahidianac eguin deçan lo alegueraqui beré hiltciatz orhitu gabé salbatu nahi denac, eta damnatu nahi denac, eztiro ediren conseillu, manu, edo erremedio hoheric, enia baiño.

Nahi nuque Guiçonac, eta Emaztiac, goician beré ohetic ialquitian,

[71]

pensamendu hau, beré gogoan harleçan, egun aguian, arratssa, eta ilhuna gabé, neuré oherat Ioan gabé, hillen nitz deçadan iguruqui neuré orena estatu onian.

Nahi nuque halaber, bai Guiçonac, bay emaztiac, arratsian, ilhunian, oherat Ioaitian, beré bihotcian, eta beré Ariman eduqui leçan abisu on hau beré buriarequila, aguian bihar goicianneuré ohian hillic edirenen nuté aguian gaur hillen nuté edo hillen nitz, egon behardut estatu onian herioaren aiduru, cer hel eré nagoen presto, enian usteric hel eztaquidano, hala haridiren guiçon eta emaztiac, edo oro, edo habo roac salbatiac doaça, hala hari eztiren Guiçonac, eta Emaztiac, edo oro, edo haboroac galdiac, eta damnatiac doaça, eta ceren hala haridirenac baitira guti, eta hala arrieztirenac, hañitz, guti dira salbatiac, eta hanitz damnatiac, Euangelistac erraiten dian becala, *Multi sunt vocati, pauci vero electi.*

Math. 20.

Figura, eta parabola ederbat dago iarriric Escrituran S. Matheu baitan, çeren onsa heldu baita bidi hunçaz ikhusi behardugu ceñen ederqui, espirilualqui éta goraqui mintço den, onsa hiltceco bidiaz, baita, hiltciac, eta herioaz orhitcia.

Math. 25.

Dio Euangelistac parabola saindu hartan, *Simile est regnum Cælorum decem virginibus quæ accipientes lampades suas exierunt ohuiam sponso, & sponsæ quinque autem ex eis erant fatuæ, & quinque prudentes.* Cetuco Erresuma hamar virginac idurida, eta haýe paré da, hamar virgina hec Ioan ciren beré lampac harturic espos, eta esposaren bidera, hayen beha egoitera, eta hayer beré tamperquin ohoré eguitera, hamar virgina hetaric bortçac heldu ciren erhoac, eta elguerrac, eta bertcé bortçac, çuhurrac, dicretac, eta modestac, bortz virgina erhoec etcuten cōduric eguin, lampen hartcian berequin olioric hartcera, baiña bortz virgina çuhurrec eguiñ çuten ordu onez prouisioné gauça guciez eta beré onciac eta lampac olioç, onsa garnituric eduyui, virgina hec hābat çuhurrac, nola elguerrac, aidura daudiala. eta beha espos esposaren, hayen asqui orduç gin, edo arriuatu faltaz egunaz gau ilhuna, eta belçça bilhatu çuten, hambatequin hamar virgina gaiçho hec, nola berandia baitçen, eta desorena, loac inganaturic, eta trompaturic, oherat Ioan ciren, gäüerdiaren ingurutana açantz, eta oiñ han dibat heldu da erraiten dialaric, espos esposac huna dira, ialqui citezté hayen errecibitcera, ordian virginac oro cutituric, norc beré lampac, çuhurrec, bercre orxitu çuten, eta preparatu, virgina elguerrac hassi dira erraiten çuherrer, igucié parlé cien oliotic, guré lampac hil dira, eztugu arguiric, baiña çuhurren arrapostia çun hau: çoazte ordu onian marchanten botiguetera, eros eçacié guc beçala, guretic cier parté emanie, ezcunduqué asqui cien, eta guré, arté hartan, elguerrac olio eroatera

ioaten cirela, espos esposac, eta hequi Ia bortz virgina çuhurrac ezteitan sartu dira banquetian, eta ostatiaren portalia guiltçaz cerratu, *Clausa est Ianua* noizpait bortz virgina erhoac heldu dira oihuz portaliaren truccatcera, Iauna, Iauna, othoy idequiçaçu portalia, baina barneco arrapostiac dio, çozatè passeura, etçutiet eçagutçen, egon citeztè bigilant, eta presto, ceren ezpaitaquicié eguna ez orena, *Nescio vos*.

[73]

Hamar virginen Euangelioa eçarridut eusquaraz ossoqui, çeren ederra baita, eta hantic esperanca baitut idocico dugula gauça ederric ené onsa hiltçeco bidiaren fauoretan.

S. Augustin Eliçaco lehen doctorat dio bortz virgina çuhurrac salbatu cirela, eta Esposaren ezteietan vkhen çutela beré partia, çeren beré virginitatia Iencoaren amorecatic, baitçuten beguiratu, eta ez mundiaren amorecatic, oro Iencoagatic, eta ez deus mundiagatic.

Halaber bortz virgina erhoac galdu içan cirela, ceren beré virginitatia bai tçuten conseruatcen ez Iencoagatic, baiña munduco ohoriagatic, oro mundiagatic, deusere Iencoagatic, bortz virgina çuhurrac salbatu cirela humilitatia çela causa, eta bortz, virgina elguerrac galdu, vrguillia cela causa, hala dio Doctor saindiac. *Sed quia ista continentia partim coram Deo fit, ut illi placeatur ivateriore gaudio conscientiae partim coram hominibus tantum, vt gloria humana capiatur, quinque dicantur sapientes, & guinque stultæ, utraque tamen virgines, quia vtraque continentia est, quamuis diuerso fomite gaudeat.*

Horn. 5

Aug. de verb. Domin. sec.

Math.

Serm. 22

Virginitatia, eta chahutassuna, bi aldetic consideratçenda, edo concientiaren barneco placeraren, aldetic, Iencoaren amorioz conseruatçen denian, edo munduco aldetic, noiz eré mundiaren eta guiçonen amoroz beguiratçen baita, hargatic bortz virginac ciren çuhurrac, eta bortz erhoac, oro virgina baiña bortcec Ienco gogoan, eta bortcec munduco laudorioac gogoan.

Eguia hori hala dela, segurtatçenda, ceren doctor saindu harc berac, erranden lekhuac baitio, *Multi enim quamuis de Christi bonitate plurimum sperent, gaudium tamen non habent, dum continenter viuent, nisi in laudibus hominum.* Haiñitç personac esperança duté Iencoaren ontassunian, eta misericordian, beré virginitatian eta puritatian baiña bere bihotçetan, eta concientian ez hartçen placeric, munduco laudoretan baici aguerida hantic, hamar virginen fortuna bortz çuhurrac saluatu humilitatiac, bost elguerrac galdu vanitatiac.

[74]

Galda baneçaçu nontic heldu çen hamar virgina hayen dicha eta Ventura differenta, erranendut, bortz çuhurrac orhitu cirela herioaz eta bortz erhoac etcirela orhitu herioaz.

S. Gregorio doctorat dio eztela asqui gaizquiric ez eguitia, saluatceco, baiña oratio behardela onsa eguiñ, euitatu bekhatu mortalac, eta eguiñ

obra onac, *Minus est mala non agere; nisi etiam quis studeat bonis operibus insudare*: Gutiché dela gaizquiric ez eguitia, bat bedera, ezpadadi enseia obra onen eguitera Doctor saindu harc berac dio oraño erran den lekhuana castitatia, virginitatia eztela on, gutti dela, ez deusa dela, castitatia, eta chahutassuna gabé. *Nec castitas ergo magna est sine bono opere, nec opus bonum est sine castitate*.

[75] Hementic neuré arraçoïña idoquitendut bortz virgina çuhurren aldé, eta bortz virgina erhoen contré, eta diot bortz virgina çuhurrac, ezçütela solamente, haraguiaren bekhatia euitatu, faltaric ezçütela beré ohoriaré cõtré eguin baina guehiago beré obra honetan, misericordian, caritatian eta bertcé actioné honetan perseueratu çirela beré lâpac olioz betheric, pizturic eta arguirica presto eduqui çutiela, hartacoz espos esposac gin cirenian, ediren çutiela bekhatu gabé, eta obra honetan, eta forma, eta dispositioné hon, eta eder hartan ediren çutialacotz, errecebitu çutiala beré companian, eta iuiatu digniac beré ezteyeyen banquetian hayequila batian placer hartceco.

Eta çeren bost virgina erhoec vkhanic eré beré ohoria, eta beré virginitatia osso, ezpaitcuten beré lampetan arguiric ez olioric, erran nahidut, ezpaiciren empletacen obra bonetan, misericordian caritatian, eta bertcé actioné ederretan, eta meritorio direnetan, hori dela causa priuatu içan, ciren espos, esposarén compaignatic, eta hantic, eta hayen ezteyetic, desohoré handirequi accaçatu.

Erran den beçala, saluatceco, bi gauça beharda, ez eguin bekhaturic, eta eguin obra honic, bost virgina çuhurrec, bi gauça hoc baçutien, baina bost virgina erhoec, etçuten bi gauça hetaric bata baicy, baina seconta ez, çeren hayen lampac hilic çaudian, olio gabé, argui gabé, hori da arraçoïña, çergatic, bost çuhurrac baitciren salbatu, eta bost erhoac damnatu.

Math. 12 S. Gregorio doctoraren pensamendu saindia cõfirmatçendu guré Iaunaren erranac, guisa hontan, *Sint lumbi vestri præcincti, & lucernæ vestræ ardentes in manibus vestris*.

[76] Cien haragui, cien erraignac, cien gorpitçac, onsa guerrica turic iduqui itçacié, cien haraguiaren acculiac, eta tentationé gaixtoac, daudian, onsa bridaturic, esteccaturic, eta mortificaturic, ez eguin bekhaturic, eta guehiago cien lanternac, eta lampac ez beudé pisturic, eguin beçaté argui mundu orori, eguin eçacié obra honic, mundu gucier, cien obra honen moyenez eman ecacié exemplu honic, eta çeren hori, amorecatic, mundu guciec, chipiec, eta handiec, guiçonec, eta emaztec, cien obra honac, cien exemplu honac ikhussiric; eta admiraturic, glorifica deçaten, lauda, mayta, eta adora, ené ayta eternala, çeruco, eta lurreco Iencoa.

Soguiçu nola nabussia, eta dicipulua, biac accordatcen diren bertcé gaucetan beçala, pundu huntan eré eta bieç bat erraiten, saluatceco bi conditioné direla necessario, bekhatuic ez eguitia, eta obra honic eguitia, eta çeren ezpaita damuric, ez desohoreric, gauça ederren eta honen, biguetan, erraitia, *repetita placent*, biguetan erranendut, virgina çuhurren Ventura eta fortuna hurosa içan cela cerē espos Iaunac ediren baitçutian gau erditan, bekhatu gabé, eta obra honen barnian.

Halaber bost virgina erhoen Ventura, eta fortuna idorra, eta malhurosa içan cela, ceyen ediren baitçutian bekhatu gabé, baina ez obra honen barnian.

Hemen soguiçu orano, nola ederqui guré Iaunac explicatcen dian doctor handi haur, eta doctorat guré Iauna.

S. Gregorio doctorat aipatu, eta icentatu dugunac dio guehiago, dialaric explicatcen hamar virginen Euangelio saindia, gendé batçuc, beré buriac abstinentia, eta continentia handibatetan mätenatcen ditutzé, beré gorpitzac, beré haraguiac, açotatcen eta mortificatçen, beré esperançac cilian eçarten, beré obra hon, eta triuailu honegatic, munduco, eta lureco ohoriac, eta laudorioac reffusatçen, halacoec beré ohoria, eta beré gloria eztuté eçarten guiçonon mihian, eta ahoan, baina beré obra honen meritia, eta ohoria beguiratçen beré arimaren eta concienziaren camberaren barnian. *Hi nimirum gloriam suam, non in ore hominum ponunt, sed intra conscientiam contegunt.*

[77]

Bada bertcé gendé batçu, eguiten baitutzé obra honic, eta ederric, beré gorpitçac, beré haraguiac, beré passioniac bridatçen, garaiten, eta manatcen, baina guero, beré obra bon eta ederré ondoan, mūduco ohoria, eta laudarioa chercatcen, eta desiratcen, oro mundiagati, deuseré Iencoagati, halacoē obra, hilac dira, alferac, eta inutilac. Hala dio doctor harc berac, erran den lekhuac, *Sunt plarique qui corpus abstinentiam affligunt, sed de sua absinentia, humanos favores expetunt.*

Hala guertatu cen bost virgina çuhurrer, bec beré ohoria gincoagati beguiraturic, espozaren banquetian honqui gin içan ciren.

Eta ceren bost virgina erhoec, beré ohoria mundiagati baitçuten beguiratu, eta ez Iencoaren gloria gati; espos, espozaren, gratia honac gaidurit, portalia ediren çuten cerraturic, eta galdu miserablequi espos, eta espozaren banqueta, eta bona chera handia.

Neuré adisquidia erranen duçu, sobera lucé niçala hamar virgina hoyen istorian, bada orano behar ducu pacientin hartu, nahibaduçu ikhussi istoria hontan onsa hiltceco bidiaren secretu, eta abantailla honbat, eta ederbat, S. Augustin, eta S. Gregorio, biac arcord dira, baquian dira, hamar virgilien eguitecoan, hetaric landan emanendut neuré abisu eta conseillu hona, eta diot S. Augustin Iaunarequin batian,

[78]

Math. 25.

bost virgina çuhurrez, endelguatçen direla, arima salbatiac, eta bost virgina erhoez, eta elguerrez, arima damnatiac, Iencoari datsala, eguitecoa erditi Ioan dadin, hain veldurniz, damnatien parti handiago, içanen den, eciez salbatiena, cerè erran baitu Escriturac, *Multi sunt vocati, pauci vero electi*, deitatiac hanitz direla, baina bereciac gutti.

Hom.

S. Augut. de
verbo Domini
secundum

Math.

Ené pundura gin nadin, bost virgina çuhurrac dira salbatiac, eta bost erhoez damnatiac, hala dio S. Augustinec, *Decem Virginum quod quinque admittuntur, quinque excluduntur, bonorum, & malorum discretionem significat.*

Onsa hiltceco bidia, hementic poroga deçadan, erayten dut, eta eranendut, guré azquen orena gin dadinian, IESV-CHRISTO Iauna baita guré arimen esposa, iuiamendu particularian ginen dela guré arimen iuiatçera, eta iuiamēdu generalian, guréarimen, eta guré eta guré gorpitcen, hilic, edo biciric seculacotz iuiatçera, iustoac edirenen ditu gratian, bekhatu gabé, beré lampac pizturic, halacoer emanendu bere gratia, eta beré gloria.

Gaixtoac edirenen ditu bekhatian, beré lampac hilic halacoer emanendu punitioné ifernuco su eternala, iustoac vkhanendu Paradusia, ceren herioaz orhit içan baita, bekhatioriac vkhanendu ifernua, çeren herioaz ezpaita orhit içan ené érrana hala dela porogatçendut, loa, eta herioa biac, bat dira, diferencia ezta handi, poetac eré hala dio, *Stulte quid est somnus gelidæ nisi mortis imago.*

[79]

Erhoa, çer uste duçu dela loa, herioaren imagina eta figura baicy, guiçona, eta emaztia loac artuz gueroz, beré lotic irat çar artino, hilac dira, sendimendu oro galduric, hila ere, hilez gueroz, considera badeçaçu hilaren gorpitça, azquen iuiamendia gin artino, loan dago, hila da, eguia da hilaren arima bici dela, ecin hiltcen da, nola baita immortal beré naturaz, hambatequin loa eta herioa biac bat, arima eternalqui bicicoda Paradusian, edo Infernian, edo Purgatorioco penetan, gratian mundu hontaric partituric, beré bekhatien penaren pagatçen beré çorrac paga arteno.

Ioan. II.

Escritura saindiac eré loa eta herioa biac bardin estimatçen ditu, noiz eré Lazare, IESV-CHRISTO. Iaunaren Adesquidé handia, Maria Magdalena, eta Maria Martha anderen anayé propia, hilez gueroz guré Iaunac piztu, eta resuscitatu baitcian beré, hitz saindiaren vertuté handiaz, guré Iaunac erran cian, *Lazarus amicus noster dormit, sed vado, vt a somno exciten eun.* Guré adisquidia Lazaro lo dantça, baina banoa iratçar decadan. Lazaro hila cen, ala baina lo çagoela dio Escriturac, nic eré diot loa eta herio biac bat direla.

Iondoné Paulé Apostoliac eré erraytendu loa, eta herioa, biac bardin

direla. Nos qui bibimus, qui residui sumus in aduentu Domini, non præueniemus eos qui dormierunt.

Ad Thess.

Hilac, hil dira, guré aitcinecoac Ioan dira, gu orano bici guira, mundian guira, baina Iaunaren eguna gin dadinian, lo dançanac eta gu bardin Iaunaren aitcinera helduco guira, soguiçu nola Apostoliac, loa, eta herioa biac baten hartçen dutian.

Iaun apheçac eré aldaré saindian, meçaren sacrificio saindia Ienco handiari, beré, eta beré populiaren partez, hilegatic, eta biciegatic ohorescatcen dianian, beré azquen mementoan erraitendu, *Memento etiam Domine famulorum, famularunque tuarum, qui nos præcesserunt cum signa fidei, & dormiunt in somno pacis.* Iauna orhitçité çuré çerbutgariez, mutil, eta nescatoez, guré aitcinian Ioan direnez, fedé honian, eta lo honian lo eguiten dutenez. Soguiçu nola Elicac othoy eguiten dian meça saindian hilegatic, eta nola herioa, eta loa, bata bertciaren hartçen dutian.

[80]

In can.
Missæ.

Hamar virginen historian eré irakrurtçen dugu: *Dormierunt omnes, & dormitauerunt*, oro loac hartu çutiala, hambat çuhurrac, nola erhoac, hantic errâ nahida, iustoac, eta bekhatoriac oro reserbu gabé loac hartuco dutiala, oro hilen direla, ordonançac erran dian beçala, *Statutum est omnibus hominibus semel mori*, lehen eré passage haur allegatu gundian Apostoliac erranic, ordenatu dela guiçon, eta emazté orori, behin hil behar diala, ordu hartan iuiamendu particularian, eta generalian, espos Iauna, baita Iencoaren seinia, jugé ooren jugia, Iaunen Iauna, ama virgina baten sabelian gugati guiçon egina, ginenda, eta arima miserabliac, eta galdiac, baitira rapresentatcen, virgjna elguerrez beré lotic iratçarric accaçatuco ditu beré ezteyetic, beré mahañetic eta beré gloriaren portalia çerraturic, igorrico Ifernuco sura, eta penetrata. Hala nola arima hurosac, eta salbatiac errecebituco baititu beré ezteyeta, beré mahañera, eta beré gloriaren portalia idequiric, eta çabalturic, emanen çelian seculacotz beré contentamentu, eta felicitaté æternala, çeren hori? çeren arima honac, ardura, ardura beré hilciáz orhituric, edirenen baititu espos Iaunac hiltcian, bekhatu gabé, beré lampac pizturic gratian barnen, eta aldiz arima gaxtoac, berk hilciáz, iagoiti orhitu faltaz, edirenen baititu, gratiati campoan, bekhatiaren Ioan, eta lohian.

Ad. Hebr. 9.

[81]

Hambatequi neuré adesquidia, iaquin eçaçu segurta cité esteçacula dudaric har, salbatiac salbatu direla, beré herioaz, eta hilciáz ordu honez orhitu direlaco, bost virgina cuhurren paré, eta arima damnatiac, damnatu direla, host virgina erhoen pari, beré herioaz, eta beré hilciáz, ordu honez orhitu faltaz. Bide haur çombat hon, eder, eta segur den, hortic iuiaeçaçu, eta nahibacira onsa, bici onsa hil; eta espos

Iaunaren banquetian plaçer hartu seculacotz, çoaça chuchen bidé hontçaz herioaz orhitçité, *Memorare nouissima tua, & in æternum non peccabis.*

Egunbatez Espagnol bat beré bidian çoala edirë cian horbat borta-batetan, eta horac vssiqui cian Espagnola igaraitian çancotic, horalen contré asqui onsa deffendiatu faltaz, bertcé egun batez Espagnolac hor hura bera ediren cian borta hartan berian lo çautçala eta ezpala bait-cian beré saihetxian, idoquiric eta buluciric beré maguignatic, eta beré furreuotic, hors hilcian, ezpata colpubat emanic, eta guero ikhussi cinian hora hilic, edo hilçen, erran cian horari, beré languagian, Espagnolez, *Inimigos tienez, é dormés,* erran nahi baita guré languagian euscaraz, etsayac vkhen eta lo eguiten duc.

[82] Arraçoin cian Espagnolac hala erraitera horari, çeren etsayac dutia-nac, ezpaitu behar lo eguin, baina bai egon iratçarri, çoin aldetic ginén den egunaz, edo gäüaz, haren attaquatcera.

Bada neuré adesquidia, herioa baita guré etsaya, eta Iaunaren mecia, eta haren mandataria arraçoin vkhenendu çuri, eta niri, erraiteco, gin dadian, ezpaguité egon presto gratian haren aiduru eta beha, *Inimigos tienes, y dormés,* etsaya oren oroz hortā dugu, guré etchian dugu, guiten egon prest, gratiã, nahi ezpadugu ikhussi gure arimen hilcia, galcia, eta ruinamendu totala.

Æsopus, filosofha eder, eta maitragarri harc dio, cicada deitatçen den hegaztin, eta chori cantaçalé harc, vdan beré dembora oro, cantuz, eta alagaranciaz, emplegatçen diala, eta inihurria baita, animalé chipihat, eta çuhurhat, beré vda oro emplegatçen diala, triuailuz, eta penaz prouisioué eguiten, eta bazca biltçen, beré neguiaren onsa igaraiteco, gossiarene contré, eta guero neguia heldu denian, cicala elguerra gossiac hiltçen diala, vdan, neguiaren igaraiteco, beré bazcaren biltu faltaz. Baina gauça contria helçen dela inihurriari, nola harc vdan çuhurqui, eta ordu honez beré bazca, eta prouisionia eguiten baitu, beré neguian, alegueraqui emplegatçen diala, cicada neguian gossiac hiltçen, inihurria neguian assiac, eta bona cherac, entertenitçen, eta alegueratçen.

Hala dio philosophac beré fablian: *Cicadæ olim cestate assiduis cantilenis indulgebant, formicæ vero laboribus, fructibusque colligendis studebant, hieme adueniente, cicadæ fame perierunt, formicæ vero, ex ijs, quæ collegerant vescebantur.*

[83] Neuré Adisquidia, hala içanenda arima honez, eta arima gaxtoez, mundu hontan guireno, bici guireno, vdan guira onsa guira ginenda neguia, ginēda herioa, ezpadeçagu ordu honez eguin prouisioné obra honez, ezpaguité ordu honez hilciaz, eta herioaz orhitçen, guré arimac

bertcé mundian gossiac hilen ditu, Iaunaren auharian eztugu vkhanen parteric, ez bochiric cicada miserablé, eta elguer bayer, heldu cen beçala, helduco çaucu, guri eré.

Hala nola segur baita, inihurriac beçala eguin badeçagu, gure vda, guré gaztetarçuna, emplega badeçagu, obra honetan, Iencoaren çerbutcian, gin dadinian guré neguia, herio beltça, hotca, eta tristia, vkhanen dugula Iaunaren auharian guré parte hona, ohoré, laudorio, benedictioné, gratia, eta gloria, halaxeman cian beré promesa guré Iaunac beré Apostolier, eta hayen personan guri orori, bat bederari; *Gaudete & exultate quoniam merces vestra copiosa, est in Caelis*. Ené Apostoliac, ené Dicipuliac, ené Fidelac, eta leyalac, cien paguia, cien recompensia, celian dago handiric, eta çabalic, cien aiduru, cien beha, edukhacié hon amorioan, ené cerbutcian, ené beldurrian, ené leguiian, eta Euangelioan, ez branla, ez cordoca, ez cambia, ené pian, enequin, enegatic, bicilçeco, eta hilçeco hartu ducien deliberamendu, eta resolutioné saindia.

Math. 5.

Coroa irabaci nahi dianac, behardu onsa combatitu mundia, deabrua, haraguia, eta beré passioniac oro, beharditu, gormandatu, açotatu, crucificatu, eta garaitu, bertcela, eztuqué bertcé mundian Coroaric, hala errandu Apostoliac, *Non coronabitur nisi qui legitime certauerit*, ezta coroatu içanen coraiosqui eta legitimoqui combatitu eztena.

Neuré adisquidia ciren othoy, mundu hontan inihurria iduri, inihurriaren paré eguiçu othoy prouisione obra honez ordu honez, hurac baituco çautçu bertcé mundian, Iencoarè aitcinian, eta hingurien aitcinian, Aingurië oguia, çuré gogara, placer duçunian ianen duçu.

[84]

Et cirela, othoy, cicada elguerra iduri, cicadaren paré, chori erho hura imita badeçaçu, mundu hontan, iaquin eçaçu, Luciferren oguia, baita Ifernian, suz, eta khez eguina, içanen dela seculaçotz labé gorri hartan, çuré oguia.

Eta çeren communsqui herioac guré arimari edequiten, edo emaiten baitu beré Coroa, edequi eztiçaçun pundu hertsi hartan çuri çuré arimarena, herioaz orhicité ahal beçain ardura, prepara cité aicinetic, bilhoa vrdintcera, eta churitcera vtci gabé, cer guisaz, eta nola, harequila comparituco ciren; nola haren colpu mortala errecebituco duçun, nola haren so beltça velcuri, odeicia, eta beguitarté ichussia, eta horriblia, sofferituco duçun, pensamendu, eta meditationé saindu haur, çuré gogoan eduqui badeçaçu eçarniro ehun, hamarren contré, edo mila ehunen contré deabruaren despit, bekhatiaren despit, herioaren despit, çuré arima mundu hontaric, gratiaz, eta coroaz beteric, çelurat ioanen du.

Baina medailla bertcé alderat itçul deçadan, enuqué nahi apostatu

biga, milaren contré çuré gratiaren eta gloriaren aldé, ezpaduçu ardura herioa bihotciã, eta gogoan ceren, neuré espissoa, veldur niz gal neçan, eta çuc, çuré arima, nic daducat fermoqui, eta fedé hartan nahinuçu bici, eta hil, herioaz orhitçen eztiren gendiac oro, galdiac, eta damnatiac direla.

[85]

S. Augustin Iauna da ené bermia, eta ené autora rencontru hontan, erraiten dialaric ene aldé, eta ené fauoretan, *Vix potest bene mori, qui male vixerit, & vix potest mule mori, qui bene vixerit*, nequez, eta borchaz gaixqui hiltçen ahal da, onsa bici içan dena, hala nola, nequez eta borchaz onsa hiltçen ahal da, gaixqui bici içan dena.

Eta nola quasi imposible baita, nehor onsa bicy ahal dadin, herioaz orhitu gabé, hargati diot, miraculuz campoan, impossiblé dela nehor onsa hil dadin herioaz orhitu gabé, eta herioaz orhitçen dena gaixqui hil dadin.

Guré Iaunac orano egun batez itxu sortuçenbat arguitu cian, eman beré vista, beré ikhustia. Escritura saindiac dio, Euangelioan agueri den beçala, *Expuit in terram, & fecit lutum ex sputo, & liniuit lutum super oculos eius*: thu eguin ciala lurrari, eta thu hartçaz lohibat eguinic lurrian, itxu baren beguiac, lohi bartçaz busti, eta vrinlatu çütiala, eta guisa hartan itsua arguitu, vista & ikhustia bari emã.

Ioan. 9.

Cer façoïn, eta çeremonia dira hoc? guré Iaunac etciana asqui boteré itxu haren arguitceco lurrari thuric eguin gabé, bai, bacian asqui boteré, çelia, lurra, laure elementiac, hitz bacoiz batez eguin ditu, *Dixit et facta sunt, ipse mandauit, & creata sunt*, errandu, eta eguin círen, manatudu, eta creatu ciren baina ocasioné hontan, guré Iaunac thuz eta lurrez eguindu lohibat, orhebat, lohi eta orhé hartçaz, itxu haře beguiac sendotu, eta arguitu, eracusteco hari, nontic ialquiten cen, norat itçuli behar cian, lur çela, mortal cela, orhit ladin beré herioaren lohiaz, eta munduco vrguillia, eta vanitacia mespereichaturic, onsa hiltçeco bidia, herioaren memoria, beré actioné ooren guida, eta regla bar leçan.

Psal. 148.

[86]

Neuré adisquidia, bekhatiaren loac, bar etcitçan edo hartu baçutu, hantic ialqui citian, çuré herioaren lohiani eguiçu so ardura, lohi harcaz çuré beguier argui eguiçu, argui ororē arguia, eta vthurria, baita Ienco, nahi baduçu ikhussi bertcé mundiã, celuco Eresuma eternal, eder, eta hãdi hartan.

Escritura saindian ikhussi dugu passagé eder asqui porogateco, onsa hiltceco bidia dela herioaz orhitcia, hambat legué çaharrian, nola grazco leguian, baina orano dugun ikhussi bidi honcaz eliçaco doctor saindiac nola minçatu diren beré pensamendu, eta meditationé saindian.

Y. Bazilo handiac dio, eta othoy, behacité haren abisu honari, nahi bacira onsa biciric, onsa hil, *Si quando te senseris ad aliquod prouocari peccatum, ad mentem reuoca, formidabile illud, nec vlli mortalium tolerabile Christi iudicium, & hoc quasi freno animum cohibe.* Bekhatu eguiteco voruntatia, eta intentionia iagoiti gin badaquicu, bekhatura erorteco tentationiac sæcula, attaqua bacitca ecarcu curé gogoan, curé beguien aitcinian representa eçaçu IESV CHRISTO Iaunaren iuiamendu icigarria, horriblia, eta latça, eta brida harcatz, çure tentationeare acculiac bridaturic, çuré espiritua, curé arinia educaçu Iencoaren leguiaren pian humil, eta captiuo, eta curé haraguia den humil, eta nescato arimaren leguiaren pian.

Hom in Psal.
33.

Ezta nioyenic juiamendiaz orhit citian, herioaz orhitu gabé, biac, bata bertciaren ondoan heldu dira, bataz orhit bacité, bertcia, etçaucu ahatceco, bata duçunian gogoan, biac han diraté, çaudé han, eta erremedio hoberic eztucu adirenen, bekhatuic ez eguiteco, eta onsa hilceco, nola herioaz orhitcia, nahi baducu onhetsi S. Bazilo Iauna.

[87]

S. Hieronimoc eztu guitiago erraiten pundu hontan, *Siue comedam, siue bibam, siue aliquid agam, semper insonat auribus meis vox illa horripifica, surgite mortui, vernite ad iudicium.*

Ad. ver.
lapsam.
Cap. 8.

Ala nican neuré Ianian, edo edanian, edo bertçé ver nahi baita lanian, musica, airé, cantu, eta botz tristé haur neuré beharrietan, beti ençutendut hãtic ecin accaça dirot, hilac çuti citezté, ciaurizté ené juiamendiaren encutera. Cer soldadoa cen doctor saindu haur, ian edanac ez deusec eré haren gogotic ecin idoquiten cian herioaren, eta juiamendiaren memoria, hala eguin baguendeça, erran niro oren honian sorttu guinela, oren hobenian hiltceco, eta hala eguiten eztianagatic, erranendut, euâyelio saindiac, Iudas traidoriagatic errandiana, *Væ homini, per quem filius hominis tradetur, bonum erat ei, si non natus fuisset homo ille.* Maradicatu dela guiçona, coignec guiconaren semia tradituco baitu, eta salduco, hobé çuquian eliçan iagoiti sorthu. Halacoaz ere nic erranendut, ezpada herioaz ordu honez orhitcen, hobé çuquiala elian sæcula ekhia iguzquia ikhussi. Elican ingoiti amaren sabelian conenitu, eta hantic mundura ialqui.

Math. 36.

Autor deuotbatec Climacus deithatcen denac dio, *Sicut qui esurit, recordatur partis, sic qui saluari cerpit, non potest non recordari extremum iudicium:* gossiac onsa honquituric dagoenac eztu bertcé pensamenduric nontic beré oguiua iateco ukhenen dian baicy, hala hala, saluatu nahidenac, beré gogotic eta beré bihotcetic, ecin galtcendu beré hiltcia, eta beré iujamendia.

[88]

Gossé denac nahi du mundu hontan ikhussi beré oguiua, saluatu nahidenac eré behardu consideratu beré herioa, eta beré arimaren

Psal. 58. iuiamendia, hala eguin ezpadeça, bertçé mundian vkhanendu gossé erraviatia, hor erraviatiac dian beçala, eguin haur erran cian, badu dembora lucé, Propheta Royalac, *Conuertentur ad vesperam, & famem patientur vt canes, & circuibunt ciuitatem*, Berandian conuertituco dira, ibilico dira, inguru, inguru, hiriarē, eta ciotatiaren murrailen aldian, edirenē dituzté portaliac çerraturic, eta gossé gaitça, eta gossé erraviatia, horec beçala, horen paré, patitu, eta sofferitu behar vkhanen duté, oguiric ecin edirenez, nor vsteduçu direla gendé hurac, herioaz, orhit eztirenac.

Eusebius Emissen. Bertcé autor deuot batec segurtatçen guitu guré azquen malhurra, eta, azquen bekhatia dela, noiz eré guré herioaren, eta guré iuiamendiaren orhitcia, eta memoria galdu baitugu, eta halacoaz nehorec etssitu behardiala, conduric ez eguin, eduqui galduçat. *Magna iam est pœna peccati memoriam futuri perdidisse iudicij.*

Ad. Potiana. S. Hieronimo Iaunac dio, berritz, *Facile contemnit omnia, qui semper cogitat se moriturum*. Norc eré egun oroz, consideratçen baitu, sinhesten eta ikhusten hilen dela, hil behar diala, halacoac mundia, munduco gauçac, vrriac, cilharrac, placerac, ohorio, pena gabé, facilqui quitalcenduditu, mesperechatcen, helçaz condu gutti eguittendu mundu haur ezta deus, eguiçu condu bertcé mundiaz, hala eguin cian, eta erran, guré Iaunac beré passionian, Pilato Iugé gaixto hari, *Regnum meum non est de hoc mundo*, ené erresuma ezta mundu hontaco.

[89]

Ioan. 18

Saluatu nahi bacira, beharduçu, mundu haur mesperechatu, eta truffatu, eta perechatu eta ohoratu bertcé mundia, hala eguitecoz, doctor saindu honen mania eguiçu hilciaz orhitcité, eta içanic eré mundu hontan esquale eta miserablé, içanen cira bertcé, mundian Princé, eta Erregué.

Aug. ser 10
de sanct.
tom. 10

S. Augustino Iaunac dio, *Hac animaduersione percutitur peccator, vt moriens obliuiscatur sui, qui dum viueret oblitus est Dej*, punitioné iustobatez açotacê dela bekhatiora, hiltcian eztela orhitçen beré buriaz, ceren bician, ezpaitçen orhitu Iencoaz. Orhitu içan baliz bere herioaz, bician orhituco çen Iencoaz hilcian, hambatequi bekhatioriac fin gaixtobat eta malhurosbat eguitendu herioaz orhitu faltaz.

Guiçona eta deabrua guduccan, disputan, eta procesian bici dira, guiçona sortuz gueroz mundu hontan, guiçoaa hil den pundu, eta momenta berian, procezta finalqui, eta azquen ressortian iuiatcenda guiçonac nahidu arima Iencoarençat, iustoden beçala, deabruac nabidu arima vsurpatu eta arrimatu beretçat, sprocezaren pieça fundamentalac dira, obra honac, eta gaixtoac, eta nola proces handi eta important horen arima, eta preçaric hobena baita hilciaz orhitcia, herioaren memoria, guttun haur procezaren çaquian ediren badeça iugiac, baita

[90]

Iencoaren semia, gugatic guicon eguina, iuiamendu emaitendu favorablé guiconaren aldé, deabruaren contré, eta arima guelditcen Iencoaren, eta desohoria deabruaren baina, guttun hura, pieça eder, eta handi hura herioaren memoria, ezpada çaquian edireiten, guizonac galtcendu proceza despendio, damu, intrez ororequin, *la taxe reserué*, eta arimare Iaun, nabussi, eta guehien deabru gaixtoa iagoiticoz guelditçenda. eta arima gaichoa infernura eroric labé gorri hartan beré çorren ecin pagatuz egonenda Iencoa, Ienco deno, ezparanca gaveric campotic iagoiti vkhanen diala socorriric, ez gratiaric, ceren haraz gueroz ezta redemptioneric, *In Inferno nulla est redemptio*, Infernuco portalia hayencat egonenda iagoiticoz guilcaz cerraturic, clausa est ianua, hantic ezta bat ialguico, hala nola Paradusutic. Iencoaren gloriatic, arima hurosetaric, bateré ezpaita ialguiten, ez ialguico, Iencoa Ienco deno.

Arima gorpiztcetic ialqui denian, beré hala iuiatçen dela, segurda, hala dio Apostoliac, *Oportet nos manifestari ante Tribunal Christi, vt recipiat vnuquisque propria corporis, prout gessit, siue bonum, siue mahum*. Bat bederac behardu presentatu Iaunaren gortiare aitcinera, han erreceui deçan onsa, edo gaisqui cer eré beré personan eguin baitu hura oro.

2. Cor. 5.

Apostoliaç dio orano, bat. bederac errecehituco diala beré recompentia, eta bere salarioa, beré triuailliaren, eta penare arau, *Vnusquisque recipiet mercedem suam secundum laborem suum*. Cer da hori, JESV-CRISTO Iaunaren tribunalera presentatcia baichi, han dira arimac iuiatcen eta hayer emaiten meritatcen duten paguia, hilez gueroz, Tribunal hartan nahi denac ongui gin, eta ohoré erreçebitu, hara heldu beno lehen, harcatz, eta beré herioaz, ordu honez orhit dadin, çuhur bada bertçela erho handibat, içanenda, eta iugé iusto haren sententiaz, halacoac vkhanendu, açolia, galera, vrkhavia, eta damnationé eternala.

I. Cor. 9.

[91]

Iuiamendu particular harcatz, çoin eguinen baita hit ondoan, guré arimaz iuge iusto haren Tribunalia exemplu garrazbat, & icigarribat irakhurtçê dugu Parisec doctor handibatez, doctor handi hura, fama eta reputationé handibatetan biciric, guizon saindia, sauanta, guicon perestia, mundu guciec, particualrqui Parisé oroc estimatcen cialaric, gin cen hilcera hil ondoan, biharemanian, cleroa, eta compaignia handibat bilduriç haren oheretara, haren gorpitçaren beré tombara, eta hobera eçarteco, cleroa hassi cen obsequioen cantatçen eta beldu ceniã Iaun Ap-hezbat lehen nocturnia accabaturic hilen officioan, iobe lectioniarê cantatcera. *Responde mihi*, hilac erran cian mundu gucier bici ican baliz beçala *Accusatus sum*, accusatianiz herri tristé, eta icigarri harc cela causa cleroa, eta compaignia oro icituric, eta harrituric, cleroa retiratu cen eta compaignia oro, biharamonian hassi

In vita S. Brunonis apud Surium & alios.

[92] da cleroa cantatçen obsequioē, eta Iaun Ap-hezbat hassi denian erraiten, *Responde mihi*, ioben lectione haren beraren, hilac dio, *Iudicatus sum*, iuiatuniz, herenen aldian eta heren egunian, cleroa eta quasi Parise oro bilduric, Iaun Ap-heçac erran ciē beçain, *Fite responde mihi*, hilac eman cian heren, eta azquen arrapostia, *Condemnatus sum*, condemnatia nitz. Hantic harat, cleroac et Parizé oroc ikhussiric damnatia cela doctor handi haren arima, haren gorpitça, bela piquer hiriz, camporat eman, eta vrtiqui çuten, eta ez bateré ehortci lur saindian, çeren indigné estimatu baitcuten, doctor damnatu haren eçurrec, lur saindia honqui leçaten.

Accident tristé eta deplorablé harc eman cian ocasioné Pariseco Iaun, eta anderé handiri beré bekhatiez, penitentia handiric eguitera, eta mundia quittaturic, desertietan, eta ermitagietan Iencoaren çerbuçatcera, hala eguin cian S. Bruno Chartruzē religioniaren lehen fondaçaliac eta lehen autorac, çeren doctor damnatu haren desastria, eta malhurra ikhussiric ezpaitcian mundia edireiten segur, beré arimaren salbatceco.

Neuré adisquidia dudaric ezta, çuré arimac behar diala iuiatu Ienco semiaren tribunalian, eta çuré arima eta gorpitça iuiatuco direla, iuiamendu generalian, iugé iusto haren beraren gortian, bi iuiamendu hetçaz orhitçité, nahi bacira salbatu, eta ceren herioa lehen heduco baita, eci ez bi iuiamendu hec educaçu, çuré hiltcia, çuré herioa, çuré gogoan, hala eguiten duçularic, jugia, ičanenda çuré adesquidé, eta çu jugiaren, biac arcord, eta ordian erranen duçu onsa hilceco bidia, dela, ordu honez hiltciáz orhitcia.

[93] Neuré adisquidia capitulu haur lucezco içanda, giten dena ezta hanbat lucé içanen, consola cité ciauri eaé ondoan, ikhussi behar dutuçu ené arraçoïnac porogaçeco ené bidia çonbat eder den, segur, eta hon, obra coroaçendü finac, veldur nuçu lana, eta languitia eztiren içanen çuré gogoco, baina aguian, lan eguiliaren vorundaté hona ikhussi duçunian, lana, eta lanquilia maitatuco dituçu. Goacin aitcina ené bidian, educaçu hon, ené pena, eta trauaillia, ezta galdu içanen, çuc çuria har badeçaçu ené ordoen, çuré arimaren salbatceco, herioaz orhituric, onsa biciric, onsa hil bacité.

X X X X X X X X X X X X X X X X X X
X X X X XX X X X X X X X X X X X X X

LAVR GVARREN

*Capitulia Capitulu huntan frogatçen du arraçoïñez
onsa hiltçeco bidia., dela herioaz, eta hiltciáz
orhitcia khien arracoïña*

ERRANDVT, eta porogatu onsa hilceco bidia, dela herioaz orhitcia, oray presentian azquen capitulu hontan nahidut porogatu, eta erakhussi laur arraçoïñ differentez bidia haur hanbat bidé hona, eta segura dela, non ezpaita hoheric, neuré adisquidia beha cité onsa lehen arracoïñari, comunzqui lehenac baliadu bigua, penaric eztuçun hilciáz orhitceco, harçaçu eneganic secretu honbat, eta ederbat, soguicu curé miseria, curé coditionia, çuré icatia cembat den flaco, ez deus, misera-blé, fragil, eta corruptible quant e quand orhituco cira curé herioaz, eta curé hilciáz, haur da ené lehen arracoïña porogatceco onsa hilceco bidia dela, herioaz orhitcia, considera deçagun guré miseria, guré conditionia, guré icatia, guré corruptioné handia.

Eguin behar dugu pauoac, chori vrguiluxu, eta superbios harc eguiten dian becala, chori harc beré lumac ederrac ditu ahal den becanbat chori harc beré luma ederrac çabaltcen ditu, eta hedatcen, eta arrotabat, edo mirailbat eguinic beré lumez, hetan glorificatcen da, eta beré placerac hartcen principalqui noiz eré igusquia clar eta garbi baita haren leinhuru, eta listurec chori haren lumagia guehiago aguertcen, eta edertcen baitituzté, baina cer guertatcen da chori harc, hanbat ditu beré yangoac, eta hoinac ichussi, eta diffomé, nola baititu beré lumac eder, eta vrguillusu; eta sobat eguinic beré çango eta hoin ichussier, beré lumagé ederra gorderic, ihessi doa, eta gordatcenda.

Guc eré hala eguitendugu, edo behar eguin, guré parté guehiena, eta superiora, baita gure arima ederra da, noblia da, Ieocoaren imaginala, eta semblanciala creatuda. *Creavit Deus hominem ad imaginem, & similitudinem suam*, baina guré parté appala, eta inferiora baita guré gorpitça, ichussi da, diffomé, lur eta erhautz, hala dio, Genesian, *Formavit Deus hominem de limo terrae*, eguin diala Iencoac guiçona lurretic, hambatequi eder guira eta noblé arimaren aldetic, eta ichussi, eta miserablé gorpitçaren aldetic. Hala erran cian eré Genesian Iencoac Adami, eta Euari bekhatia eguinez gueroz, *Pulvis es, & in puluerem reuerteris*, Lur

[94]

Gen. 1.

Gen. 2.

Gen. 3.

cira, eta erhauts, lurtu, eta erhaustu behar duçu eguin badeçagu so guré miseriar, eta guré sortciar, consideraturic nola ialguiten guiren lurretic eta erhautxetic, guré vanitatic eta guré vrguilliac vtciric

[95]

In histor de
Berla & Iosap
cap. 12

S. Damasceno Iaunac, guré miseria, onsa, eta ederqui eracustendu, figura, eta parabola eder hõtçaz, dio saindu harc, guiçonbat egun batez, animalé gaixto, eta cruel baten ihessi, çoela, çoin deitatcen baita vnicornis, erori cela, lecé, ocin, eta chilo handibatera, erortian lecé hartara, lotu cela ting tincca, çuhaincé edo arbré chipibati; çoin baitcen lecé haren bazterrian, ezparança cialariç, segur cela beré hoñac leçe haren çolan bermaturic, eta beré escuyes, eta beré bessoez pareteco arbria tinccaturic, so eguinic, guiçon harc lekhu tristé hari, ikhussi du, bi sagu, bata churi, bertcia beltç çuhaincé haren çaiñen eta racinen, iaten, eta trenkatçen, eta quasi, çuhaintça, çaiñac trenkaturic erortera çoela, ikhussi du halaber ociñ, eta lecé haren çolan, dragon terriblé, eta horriblebat, ahotic su, etazé, vrtiquiten ciala, iduri eci ingurune-coac biciric, iretssi, eta deuoratu behar çutiala; ikhussi du haboro lece ociñ haren bi bazteretic laur sugué handiren buriac ialquiten cirela, ikhussi du goiti so eguinic, çuhaincé haren adarretan behera erorten cela, ezti goterabat, eta consideratu gabé pian, eta bazterretan, dangerac çombat ciren handiac, guiçon hura çagoela, ahoa çabalturic, ezti haren goteraren iateco, eta goçatçeco.

Figura, eta parabola honen explicationia ençun eçaçu, nahibaduçu ikhussi, eta eçagutu onsa çuré miseria, eta conditioné miserabilia, Vnicornis, bestia gaixto, eta cruel hura da herioa, guiçonari, eta emaztiari guerla oren oroz eguiten diana ocin eta lecé hura da, mundia, tribulationé, eta calamitaté oroz bethia, çuhaincé edo arbré ttipi hura da, guré bicia, edo guré biciaren içaria, eta mesura, çoinen çaiñac, bi sagu bec, churiac eta belçac, gauaren, eta egunaren orenec, iaten, mutçen, hertçen, eta trenkhatçen baitituzté. Laur suguiac dira, laur elementen, laur qualitaté differentac, hotça, beroa, idorra, bustia, dragon hura da infernia, ezti haren gotera da munduco placera, eta voluptatia, guré trompa garria, gure gai garria, hari beha gaudé, bertcé dangerac oro ahacera utciric.

[96]

Neuré adisquidia, considera eçaçu çuré miseria çombat handi den, gaüa, eguna, beroa, hotça, idorra bustia, mundia, infernia, çuré contré dira, hayen artian gaixqui cira, miseria horcaz orhaturic, orhicité çuré hilciaz, nahi bacira saluatu onsa hiliç.

Çuré biciaren corda oren oroz trenkhatçen da, soguiçu certan ciren, beharduçu onsa içan itssu, ezpaduçu nahi ikhussi çuré miseria, eta çuré dangera, eta hurac ikhussiric, nahi ezpacira çuré hilciaz orhi-

turic, conuertitu Iencoagauat, eta eguin peuitentia çuré bekhatien gaiñian.

Iob saindiac baçaquian onsa guiçona çombat miserablé cen, erran dianian, *homo natus de muliere breui viuens tempore, repletur multis miserijs, qui quasi flos egreditur, & conteritur, & fugit velut umbra, & numquam in codem statu permanet.* Guiçona, beré amaren sabalatic ialqui denian. arté eta dembora laburrez, miseria, eta doloré handiz betheric, bicida, lilia beçala, liliaren paré aguertcenda, eta gordatcenda, badoa itçala beçala, ezta jagoiti egoiten, ez baratcen ohi beçala estatubatetan, bethi mutatcen da bethi cambiatcenda, ezta behinere ohicoa.

Job. 14.

Badeia deus eré mundian hain simpleric, hain flacoric, eta hain fité galtcen ahal denic, nola baita lilia igusquiac coinbat orduz ikhustendu lilia goician sortcen, eta arratssian hiltcen, goician eder, fresco, esperançã handitaco; arratssian ichussi, tristé, beltz eta hil coloré. Goician amuros, maitagarri, aleguera arratssian haistiogarri, illumpé, gratia gabé.

[97]

Bada lob saindiac guiçona comparatcendu lilibatequi, eta lilia bada gauça simplebat; guiçona ecin daté gauça miserablebat, eta simplebat baicy. S. Gregorio handiac, liliaren, eta guiçonaren comparationia hon edireitendu, guisa hontan, *Quid sunt nati homines in mundo, nisi quidam flores in campo: homo etenim more floris procedit ex occulta, & subito apparet in publico, qui statim ex publico, per sortem retrahitur ad occultum.* Cer dira guiçonac mundian, liliac elguetan diren beçala baici, liliaren paré guiçona luppetic aguertcenda mundiã eta guero mundutic, guttien vsté dianian, badoa lupperat, gordatcenda, ezta haboro mundian aguertcen, lilia beçala aguertcenda, eta gordatcenda, *Quasi flos egreditur, & conteritur.*

S. Grég. Moral
17, cap. 17.

Iob saindiac, eta S. Gregorio, aita saindu, eta Eliçaco doctor handiac, erraiten baduté, guiçona, eta lilia, biaç bardin simplé eta flaco direla, neuré adisquidia, dugun erran çuc, eta nic, guiçona gauça miserable bat dela, eta beré miseria ikhussiric, ezpada beré herioaz mundu hontan orhitcen, erho handibat datequiala, eta bertcé mundian galdubat, eta miserablé handibat içanen dela.

Iob saindiac dio haboro, guiçona ihessi doela itçala beçala, *Fugit velut umbra*, dugun ikhussi itçala cer den, iaquin deçagun guré ez deusa cer den, itçala gauça falsubat da, eta gauça hila, erran ciniro, gauçabat nionitçen denian, eta lekhtuc, lek hurra iguitcen, eta igarayten, haren itçala eré; gauça bicibat dela, ala baina itçala gauça hila da, eta ez deusa, ezta deuseré arguiaren priuationebat haicy, gorpisbat representatcen du itçalac, eta gorpitça ezpali artian, itçala, arguia liçaté, ceren arguiaren eta itçalaren artia, gorpizbat, cer eré baita iarriric, arguia

[98]

empachatcendu gorpitçac, eta itçala hãtic formatcenda eta eguiten, hambatequi itçala ezta deus, arguiaren priuationia baicy, gorpitçaren aldetic heldu dena, hala dio haren icenac, *Vmbra nihil est aliud, nisi defectus luminis ex obstaculo corporis*. Guré bicia, guré dembora, guré içatia, guré honac eztira deus eré itçalbat baicy, gauça hilbat, eta mise-
rablebat.

Guré bicia, guré dembora oro hirur gauçac eguiten duté, igarenac, presentian denac, eta gitecoac, hala emayten du eré philosophiac demborari beré diuisionia, *Est ens secundum prius & posterius, & constat, præterito, præsentis, & futuro*, dembora da gauçabat, igarenaz, presente-
coaz, eta gitecoaz eguiten baita, eta ceren hirur parté hayetaric guré biciac ezpaitu posseditcen bat baicy, bata presentecoa, eta bat hura baita bi priuationé hayen erdian, igarenaren, eta gilecoaren erdian, ala baina ezta ez bata, ex bertcia, hambatequi guré bicia ezta deus eré itçalbat, baicy badoa itçala beçala, *Fugit velut vmbra*.

[99] Igarena ezta guré, gitecoa ezta guré, ezta guré presentian dena baicy, cer da presentian dena, igarenaren, eta gitecoaren artian puntu, eta momento bacoizbat, bata bertciaganic erdiratceco, eta berhetceco, puntu eta momento bacoitz hura, hambat da labur, mehar eta ez deus, non, quasi ezpaita moyenic ediren eta atrapa ahal deçagun, ezta iagoiti guelditcen, lasterrez doa, haren içatia oro lasterrian da, *Consistit in continuo fluxu, fluit semper, & fluet*, hala doen gauçaz, erraçu itçalbat dela, eztela, gauça hicia, baina gauça hila dela.

Erraiten dugunian guré biciagatic bicia dela, trompatcen guira, eguiaren erraiteco, behargunduqué erran, guré bicia heriobat dela, ceren dena beno guehiago da, eztena, badu icena, baina ez içana, guré biciac hirur partetaric, eztu bat baicy, eztu igarena, eztu ginendena, eztu presentecoa baicy, eta present dena eré eztaquigu noiz dugun, hala guré bicia ezta bicibat, baina propiqui minçatcera eta eguiazco heriobat, hargatic S. Gregorio handiac errandu, *Temporalis vita æterna, vite comparata, mors est potius dicenda, quam aita*: mundu hontaco bicia bertcé munduco bicitcé eternalarequin comparaturic, ezta erran behar bicia, dela, baina erran beharda herioa dela, herioa bada, ezta deus eré hiciaren priuationia baicy, priuationia bada, itçala da, eta Iob saindiaren errana eguia da, guiçona itçalbat da, eta haren bicia badoa itçala beçala. *Fugit velut vmbra*. Propheta Royalac eré ederqui erran du guré miseria çombat handi den, gure bicia comparatu dianian itçalarequi, *Dies mei sicut umbra declinauerunt, & ego sicut fœnum arui*. Ené egunac, eta ené dembora itçala beçala Ioan dira, igaren dira; eta belharra sorhoan dailliac ebaquiz gueroz beçala, ni eré ayhartu, eta idortu niz, Propheta harc berac dio, *Homo vanitati similis factus est, dies eius sicut vmbra*

Homil. 27 in
Euang.

Psal. 101.

[100]

Psal. 143.

prætereunt. Guiçona guertatuda vanitatiaren, eta vrguilliaren paré, haren egunac Ioan dira eta ioaten dira itçala beçala.

Erran nahidu, guiçona erhobat, elguerbat, eta superbiosbat da, eta içanda, usté cian haren honac segur eta osso içanen cirela, eta haren bicia lucé içanen cela, baina beré vanitatian eta beré esparançan trompatu içan da, ceren haren honac falsu dira, hilac dira, haren bicia laburda, heriobat da, itçala falsu, eta trompur den beçala, guiçonac nahi luqué sinhetz araci eztena badela, baina miserablé elguerra, berandian ikhussicodu, ordu eztenian, dena eré eztela, ikhussicodu guiçonac guiçonaren bicia heriobat dela, haren egunac eta haren honac itçala beçala Ioayten direla. *Dies eius sicut vmbra præterit.*

Guiçonaren bicia itçala idurida, ceren, hala nola gauaz, ilhumpian itçalian deno veldurti baita, eta ezpaitu corageric, hala hala guiçona mundu hontan deno, ala den gratian, ala den bekhatian veldurrian bethi, bethi, bicida, bekhatian bada, veldurda, herioac beré bekhatian atrapaturic, Iencoaren iustitia eternalac, Infernuco pena eta su eterna-lera condemna deçan, hargati errandu Escritura saindiac, *Pauor his qui operantur malum.* Gaixqui eguiliac, bekhatioriac, eta bekhatoressac, veldurrian oren oroz bici dira. Gratian bada guiçona, eta emaztia, orobat beldurrian vici dira, lotsaz, Iencoaren gratia, galdeçaten hargati erraiten cian Propheta Royalac, *Timor, & tremor venerunt super me, & contexerunt me tenebræ.* Ené spiritia eta ené gorpitça, ené heçurrac, eta ené çaiñac, lotsatu dira, ikharatu dira, ilhumpian, eta itçalian banintz beçala, çuti bortcha nago, ceren veldur cira Erregué handia, lotsa nitz eta veldurnitz neuré Ienco honaren gratia gai deçadan. Guehiago diot, guiçon iustua eré ezta segur ala den gratian, ala bekhatian, beré confessioné hona eguin dianian Iaun Ap-heçaren aitçinian, harganic errecebitu absoluteñé saindia, eta aldaré saindian sacramendu saindia, behardu esperança hartu, gratian dela, eta guero eré bai, bekhatu mortalice eguiten ezpadu, obra honetan perseueratcen badu, baina segurta dadin dudaric gabé, infallibiliter, espiritu saindiac, edo çoinbat ainguruc Iencoaren partez, ezpadici reuela, eta berria erran, ecin diro. Hala dio Salomon çuburrac, *Nescit homo vtrum odio, vel amore dignus sit,* eztaqui guiconac ala den gratian, ala bekhatian.

Psal. 54.

[101]

Ecclsi. 9

Hambatequi guiçona mundu hontan deno, ilhumpian eta ignorantian bicida, ala den iustu, ala den bekhatore, eta haren bicia itçala idurida, itçala becala doa, *Fugit velut umbra.*

Guiçonaren bicia itçala idurida, hala nola itçalac guiçona hotcen, eta frescatcen baitu, hala hala, mundu hontan deno, bekhatian bici denian Iencoaren gratiaren, eta haren amorioaren suya galduric, bekhatiaren itçalac, eta lanhoac, hotcendu, eta Iarrintatcen eta manera hartan,

[102] guiçonaren bicia itçala idurida, guiçona eta itçala biac bat dira, *Dies eius sicut vmbra præterunt*, gäüz itçalian, eta ilhumpian guiçona hotçac hobequi, eta guehiago honquitendu, eciez egunaz, ceren egunaz igusquiac lurra eta guiçona arguitcen eta berotcen baitu, eta gäüz aldiz ez, egunaz bai, gäüz manera beria, nola guiçona bekhatiaren itçalian guchiago bici baita; iciez Iencoaren amoriaren arguiian, guiçona itçal, eta itçala guiçon guertatcen da. *Dies eius sicut vmbra præterunt*. Vda gorrian eta heroan, beroaren contré chercatcendu itçalbé honbat frescatceco, eta negu hotcian, eta gogorrian su honbat, edo iguzqui berobat, onsa berotceco, eta nola vdan itcalacguiçona hotçen, eta frescatcen baitu, eta neguiian suyac eta iguzquiac gorreen, eta beroteen, hala hala bekhatatian denian, bekhatiaren itcalac hotcendu, eta iguzquitcen haren bihoca, hala nola Iencoaren amorioac, subatec, eta iossiric batec beçala, baitu azartcen, eta berotcen, eta ceren guiçonaren bihocian mundiaren amorioa hobequi, eta barnago tantaturic, eta iossiric egoiten baita, eciez Iencoaren, eta ceruco gaucen ohoria, mundiac eta bekhatiac haren bihoça, hotçac, eta itçalac beçala deseguiten duté, desbitatcen, hotcen, eta itçaltcen, hargatic errandu Apostolu Euangelistac, *Qui diligit mundum, non est charitas patris in ipso*. Mundia mayté dianac, eztu caritateric, halacoare bihoça hoztu da, eta harrointatu, ceruco sutic eztu parteric.

1. Ioan. 2

[103] Ionas Propheta Niniue herritic ialquiten cela orienteco herrian, igusquiac, bidian çoela, subatec beçala hurren chilpiltu, eta erré cian, gure Ienco, dolu eta compassioné vkhan cian beré Prophetaz, eta eraguinic itçalbé honbat huntz orstoz, itçalbé hartan, Propheta goiçoa frescatu, cen, paussatu, eta desalteratu. *Præparauit Dominus Deus hederam, & ascendit super caput Ionæ, vt esset vmbra super caput eius, & protegeret eum, laborauerat enim, & lætatus est ionas super hederam, lætitia magna*.

Itçalbé hartan ceno, Ionas Prophetac, etcian ikhusten igusquia, ez senditcen eré haren bero handia. Figura handibat cen itcalbé hura, guiçon bekhatariac mundu hontan, guiçona mundu hontan bekhatariaren itçalbian deno Iencoac, igusqui eder harc, eztu ikhusten, haren arguiac haren suyac, eztu arguitcen eztu berocen, huntz orsto hayen pian gorderic dagoen bekhatariaren bihotca, guiçon harc eré bekhatariaren itçalbé hartan deno, eztu ikhusten, ez senditzen ceruco suya, espiritu saindiarē suya, hambatequi belz belça, hotz hotça, itçala beçala, dago guiçona mundu hontan, eta norc eztu erranen guiçona itçalbat, dela eta itçalac beçala beré egunac, eta beré dembora igaraiten diala. *Dies eius sicut vmbra prætereunt*.

Guiçonaren bicia itcala idurida ceren itçalac eta ilhumpiac guiçonari

loa lehen emaiten du, eciez egunac, edo arguiac, lo eguin nahidianac eré egunaz communzqui beré camberaren bortac, eta leyhoac ceratcen ditu loaren eta paussiaren hoberqui hartceco. Hala hala guiçona mundu hontan munduco hon demboralen itçalaren pian, loac hartcendu, eta celuco gaucer beré beguiac cerraturic, Iencoaren cerbutcian, eta obra honnetan aurher, Iacho, negligent, eta berandiar guertatcenda belchatiaren loan eta lohian, auaricitiaren suyac erreric, haren egariac alteraturic, haren gossiac ianic, munduco honen itcalbian bicida iagoyti beré pausia ediren bagué, eta alterationia frescatu gabé. Elias Prophetac ené eguia eder haur, beré demboran figuratu cian, eta representatu, egun batez beré etsayen ihessi çoela desertian behera, genebria deithatcen den çuhaintcé baten itçalian loac hartu cian, eta aingurubat celutic ginic, iratçarri cian eta minçatu guisa hontan Iencoaren partez, Propheta Elia, çuti cité ian eçaçu, edan eçaçu, eta oguizco opilbat eguinic, hauspian erreric, eman ceron ogui opil hartaric iatera, eta vr edatera, eta erran, ian eçaçu, edan eçaçu, bidé lucebat, eta handibat orano iguaren beharduçu. Propheta gaiçoac, beré ian edana eguinic, eta azcarturic beré ian edanaz, berrogey egunez eta gaüez ibilicen desertu hartan, eta arriuatu hurosqui, Oreb, Iencoaren mendi benedicatu hartara. Hala dio Escritura saindiac, *Obdormiuit Helias in vmbra iuniperi, & ecce Angelus Domini tetipit eum, & dixit illi, surgé, & ronde, grandis enim restat via, ecce ad caput suum pauis subcinericias, ut vas aquæ, comedit ergo, & bibit, & ambulauit in & fortitudine cibi illius, quadraginta diebus, & quadraginta noctibus, vsque ad montem Dej Horeb.* Hala hala eguitendu guiçonac mundu huntan, beré placeren, beré lionen, beré bekatién itçalaren pian loac hartcendu, lo eguitendu, ala baina beré loan, eta beré placerian, lo honic eztu eguiten, ez placer honic hartcen, ceren haren loa, haren placera, baitira labur, falsu, eta trompur, hala eré representatcendu, geneura, çuhaincé idor harc, haren frutiac, eta haren itçalac guti valia duté, haren frutiac eztira lion, eta haren itcala eré ezta çabal edatcen bertcé çuhaintcen itçala beçala, haren orstoac, liliac, frutiac, itçalac, ez deus dira. Halaco dira mundu hontaco, placerac, ohoriac, honac, eta boteriac, ala baina guiçona Irayen itçalaren pian, laquetda, placer hartcendu, lo eguitendu, eta ezpaleça lo hartaric çoinbat, ainguruc, iratçar Propheta Elia, eguin cian beçala herioac lo hartan atraturic, Infernura seculacotz, lo eguitera Ioan laité.

[104]

3. Reg. 19

[105]

Norc nahi du erran guiçona eztela itçalbat ené racoiñac libru hontan ikhussiric, eta ezpadeça, beré miseria ikhussiric, beré herioaren memoria, beré beguien aitecinian ardura ardura eduqui, nic erranendut, guiçona dela arstobat, çamaribat, eta brutalbat.

Itçalbé hontaric ialquiric, dugun ikhussi, guiçona cembat miserablé den eta cembat obligationé dian beré hilciaz orhitceco, nahibada mundu hontaric landan, bilez gueroz, Iencoia baitan bici, eta saluatu.

2 Cor. 4

Apostoliac, hari nahi bacirabehatu, erakhutxico drauçu çuré miseria, erran dianian, *Habemus thesaurum istum in vasis fictilibus*. Badugu thresor handibat, badugu gauça aberasbat, baino thresor, eta gauça aberatz haren vncia, lurra da, lohiada, guré arima eder da, noblé da, baina gorpitça, baita haren vncia, cerda lur, eta lohi, herioac beré colpietaric mendrenaz honqui badeça, Ioanda vncia, gorpitça lurturic, lurrerat doa, lur eta ertiautz guertatcenda.

Psal. 2

[106]

Propheta Royalac eré, lur guirela dio, eta minço denian, bekhatoreé gaixtoez, hayen contré, guisa hontan bere othoycia Iencoari eguiten du, *Tampam vas figuli confringes eos*. Bekhatoriac, gendé gaixto hec obstinatiac, lurreco vnciac beçala, deseguin, itçaçu, gal itçaçu, mila pieçatan iarbité.

Psal. 55

Apostotiac, eta Propheta Royalac, biac arcord dira, bieç dioté guicono lur dela. Iur bada, cerda appalagoric ez miserabliagoric, nola baita guiçona.

Propheta Royalac, dio, guehiago, onsa consideratcen dianian guisonaren miseria, eta haren itsutarçuna, *Dormierunt somnum suum, & nihil inuenerunt omnes viri diuiarum in manibus mis*. Lo eguinduté, eta ametz lurrian, beré dembora oro loan, eta ametzetan igaren duté, lurreco gendé aberatzec, eta guero beré lotic, eta beré ametzetic iratcarri direnian, equiac hutxic guertatu dira, gendé gaiço hec, eztuté deuz ediren beré escuetan:, *Nihil inuerunt in manibus suis, çuré mendian heldu cira*, gaiüz loan çuré ohian ametz eguiten, ta çuré ametsian iduri eci, guiçon pochantbat, Iaun handi bat círela, vrre, cilhar, hacienda eta honic asqui escuetan baçundiala eta guero, edo gaiüz, edo arguitcian, çuré ametxetic iratçarri cirenian, çuré escuetan eztuçu deus eré ediren lehen baino guehiago, *Nihil inuenerunt in manibus suis*, ametsa hassiz gueroz akhatua artian, aberatz cira, ametza akhatuatuz gueroz, pobré cira lehen beçala, ohicoa cira. Erran communa eré bada ametz oro, gueçur ezpada ametsa celutic gina, Iencoaren reuelationez, edo haren manuz, çembait ainguruz errana. Ametsa, eta guecurra biac bat dira, eta guiçona bada amestbat Prophetac errayten dian becala, erraçü, ametsa guecurra, eta, guiçona hiruracbat direla.

[107]

Enian vsté, naina orano minçatu behardiugi itçalaz eracusteco guicono mundu hontan, çombat miserabé den San Bernar doctor deuotac dio, *Dies hominis sicut vmbra terram, nulla est nora, & tunc prope nihil est cum stare vdetur: cur ergo thesaurisat in terra homo, cuim sine dilatione transeat, & illud quod collitur, & ipse qui colligit. Et*

S. Berna. in
medit. cap. 17

tu homo quem fructum expectas in mundo cuius fructus ruina est, cuius finis mors est. Guiçonaren egunac badoaz itçala beçala lurrian; vste dianian guiçonac cerbait dela, ezta deus, badoa guiçona baratu gabé.

Bada guiçona, cergatic hanbat hon lurrian biltçen duçu, hoñe bilçalia, eta hon bildiac, hain fité, garaicen, galtcen, deseguiten, eta itçaltcen direnaz gueroz, çuc guiçona cer esperançça duçu mundian, haren irabacia oro, eta fructia, cer da galcia, eta ruina, haren azquen fina, cer da, hilcia herioa.

Saindu deuot harc berac dio çuri, niri, eta mundu orori, garé miseria ikhussi dugunian mundu hontan, considera deçagun guré arimarē noblecia; eta handitarçuna, mundia quitaturic, Iencoaren onsa maytatceco, minço da guisa hontan.

In omni namque creatura, quæ sub sole mundi vanitatibus occupatur, nihil humano corde sublimius, nihil nobilius, nihil Deo similius reperitur, quapropter nihil aliud à te querit, nisi cor tuum, munda ergo illud per puram confessionem, & assiduam orationem vt mundo corde Deum videre possis.

S. Bern.
in medit.
cap. 11

Iguzquiac eztu deus, ikhusten celiaren pian, h̄abat ederric, hambat nobleric, hambat Iencoa, iduriric, nola baita guiçonaren bihoça, eta haren arima, dio saindu deuotac, hartacoz eztu galdatcen guiçonari beré bihotçabaici, bada, guiçona, chahat eçaçu, purga eçaçu çuré bihotça, confessione hon batez, eta orationé honbatez, amorecatic, çuré Iencoa chahuqui, eta purqui ikhuss ahal deçaçun.

[108]

Saindu deuot honec dio, miserablé guirela, eta noblé, guirela, miserablé gorpitçaren aldetit, noblé arimaren aldetic, gu nur baguira, biez içanen, guira noblé, eta huroz, baina ezipaguira nur, biez içanen guira miserablé, eta malhueros, guiten orhit guré miseriaz, orhitceco onsa hiltciatz, dugun guré bihotça, eta guré arima, onsa purga eta chaha, guré Iencoa chahuqui, et purqui; egun batez ikhussi eta contempla ahal deçaçun, *munda cor tuum, vt mundo corde Deum videre possis.*

Guré conditionia, eta guré içatia combat den miserablé, behacité S. Augustin Iauanari harc dio ederqui, *Magna miseria, cū nihil sit certius morte ignorat tamen homo finem suum, & cum stare putat, colliditur, & perit spes eius, nescit enim homo, quando, vel vbi, vel quomodo moriatur, & tamen certum est, quod eum mori oporteat.*

S. Aug.
solliloq. cap. 2

Miseria handia da haur, ezta deus hambat segur denic, nola baita herioa, ala baina eztaqui guiçonac beré azquen eguna, eta azquen orena, vsté dianian çuti dagoela, lurrian daté eroriric, vsté diania cerbait dela; hura, eta haren esparançac oro hilen dira; edo hilac diraté. Eztaqui guiçonac çombat agudo ahal belçaté, noiz, edo non, edo nola hilen den, ala baina segur da hil behardiala.

Miseriaz hontçaz egunian behin orhicité, hala eguin badeçaçu, ni sartuco nitz çuré bermé, hilcé honbat eguinen duçula, çuré orena gin dadinian, mundu hontan, eta bertcé mundian bicitcé eternalbat vkhenen duçula.

[109] Guré miseria dela, hilciaz orhitceco, bidé hobena, segurda, baina guc bidé contra eduquiten dugu: badaquigu guré arima dela immortal, eta guré gorpitça mortal, badaquigu guré arima dela anderia, eta gorpitça haren nescatoa : badaquigu guré espiritua dela Iauna, eta gorpitça haren mutila, gorpitça, ala baina anderiaz eguitendugu nescatobat, Iaunaz mutilbat, eta gorpitçaren gogara eguiten, arima et mesperechaturic, eta herioaz orhitsu faltaz, gorpitça, eta arima deabruari largatcen, emayten, eta saltcen.

Suri, hist.
Eccl. lib. 4
cap. 18

Hermita saindubat, Pambus icena cianbat, egunbatez S. Athanasio Iaunac othoituric, Alexandriaco hirira Ioancen, eta ikhussiric André vrguilluxubat beré buriaren, bilhoen, beguitartiaren, eta gorpitciaren soberaché edertcen, eta affaitatcen, nigar eguin cian bi beguietan behera, eta interrogatu cenian, cergatic nigar eguiten cian, arrapostu eman cian, hi arraçoiñez nigar eguiten ciala, lehenic ceren anderé hura, galcera çoela, ikhusten baician; bi garren arraçoia, ceren ezpaitcian harc hābat pena eta triuailu hartcen Iencoaren cerbutcian, Iencoari placer eguiteco, nola anderé harc hartcen baitcian tormenta, eta fatigu, guiçoner placer eguiteco. Anderé harc haboro estimatcen cian beré gorpitçaren, eta haraguiaren placera, eciez beré arimaren osagarria, eta salbamendia, ceren ezpaitcen beré herioaz, eta hilciaz orhitcen, baina Hermita saindu harc Iencoaren ohoria, eta beré arimaren salbamendia haboro estimatu cian, eciez, beré gorpitça, eta beré haraguaia, ceren beré hilcia, eta beré herioa oren oroz beré beguien aiticinian eduquiten baitcian.

[110] Thomas morus, personagé saindubatec communsqui beré adesquider erraiten cian prouerbio, eta sententia eder haur, *Quam plurimi in hac vita Inferni morcari soient, cuius vel diuidio Cælum lucrati fuissent*. Hanitz gendec pena, eta triuailu handirequin infernia aquisitcen, eta ardiasten duté, eta nur balira, edo nahi balira, pena eta triuialu haren erdiuz Paradusia, eta Geluco Erresuma, irabaz, eta ardiuz liroité.

In vita Thom.
Mori. cap. 12

Ibidem

Saindu harc berac dio, egunbatez ikhussi ciala andere ederbat, beré bilhoen, eta arropen arrankhura handirequin eta delikhaluqui trenatcen, iresten, eta chuchentcen, eta ikhussiric haren pena, eta haren arrankhura handia, erran cerola, *Nisi Deus tibi pro hoc tuo tanto labore Infernum reddat, magnam tibi profecto iniuriam faciet*. Anderia eguin erran behar drauçut, çuré penaren, eta triuailiaren recompensutan, eta pagutan, Iencoac ezpadiçaçu eman Infernia, oguen handibat, eta

iniurio handibat eguin, drauçu. andere harc mayté cian beré gorpitça, eta saindu harc maytiago beré arima eta çuc neuré adisquidia, nahi badoçu salbatu bertce mundian çuré arima, eta çuré gorpitça, lurrian çuré gorpitça onsa gaztiga eçacu, corregi eçaçu, arima den anderé, eta gorpitça nescato; orhitçité hilciaz, onsa hilceco, eta herioaz orhitceco, othoy ené adesquidé maytia, çuré miseriaz orhitçité, haur da ené lehen arracoïña; nahi bacira onsa hil, hilciaz orhitçité, nahi bacira, herioaz orhit, citen, çuré miseria considera eçaçu çuré miseriaz oriritçité, lur cira, itçalbat cira, ametsbat cira, figurabat cira, ez deus bat cira, oren oroz hiltcen cira, éçoaçá ihessi, gordicité, eta eguin ducinian niguar çuré bekhatiez, gincit bidé hontaric bidé hontçaz gin dadina, ezta galduco, salbatucoda, Iencoac placer badu.

[111]

X X X X X X X X X X X X X X X X
 X X X X X X X X X X X X X X X X

BI GARREN ARRA-

*çoiña frogatceco, onsa hiltceco
 bidia, dela herioaz, eta hiltciaz, orhitcia.*

CAPITAN onbat, eta generosbat, aitciña duenian armac escuan beré etsayaren cōtré coinbatitcera, eta erakhusten beré soldadoer, nola behar duten combatitu eta gournatu victoriaren hayen contré irabasteco eta reportatceco, dudaric gabé halaco Capitañac amorio, eta borondaté hâdibat erakhustendu obraz badiala beré soldadoencat, eta soldadoa ezpadadi onsa gouerna, nahi ezpada coraiosqui combatitu beré Capitañaren ondoan Ioanic, beré guida, beré gueltiena, nahi ezpadu onsa seguitu eta imitatu, eta guero nahi ezpadu soldado harc, beré Capitañ Iauna, remerciatu eta ohoratu, norc eztu erranen, soldado hura ingratu, dela bihotz gabia, poltroiña, eta legué gabia, Capitañ Iauna, on, noblé, eta maitagarri, daté, baiña soldadoa, gaixto, ohoré gabé, eta hastiogarri ičanenda.

Baiña noiz eré Capitañ hura, baita hain on, eta bihotz bera, non beré bicia ioca deçan, odola issurdeçan, beré buria liura deçan, eta abandona burreun escuetara, eta bocheria hartan, niassacra dadin, eta hil dadin beré soldadoen, eta armadaren salbatceco, eta beré hilciaz, beré armadaco geudé ororen bicia salbatcen dianian, ber bera orogati hilcē, eta soldadoac oro beré hilciaz salbatcen, erran beharda ordu hartan, Iaun Capitañ hura, dela onen, hobena, noblen noblena, maita garrien, maitagarriena, eta soldadoa datequiala gaixtoen gaixtoena,

[112]

desohoratiena, eta ororen artian, hastiogarriena, ezpadeça beré guida, beré guéhiena, onsa ohora, lauda, mayta, remercia, eta orhituric beré Iaunaren hilciaz, epadeça haren hilciaren dolia ekhar, eta eduqui beré bihotcian, ezpadeça considera mortal dela, eta hil behardiala, soldadoa ezta handiago Iauna baiño, Iauna hilda, soldadoac eré behardu hil, iuiamendu hura ezpadu, ezdeusbat beno sordeich ičanenda nic errandudana ičanenda, ezdeusaz baiño haboro gendé perezduec, eztuté eguinen casuric, ez conducir, halacoaz, eta halacoetçaz, eta Iaun Capitaño haren plaçan banintz, halacoer, so onbat eniro eguin, ceren halacoa ezpaitabila bidian hontan çouiu baita onsa hilceco bidia, erran nahi du hilciaz orhicia.

Bada neuré adisquidia, çu eta ni, eta mundu gucia hau guira. IESV-CHRISTO guré Iauna da guida, guré guehiona, guré Capitañ handia, eta gu oro guira haren soldadoac, hura Ioanda gurutcia escuâ, gure aitcician, gu oro cumitatcen guitu, Ioan guiten haren ondoan, guré buriac arnega ditçagun, ezteçagun eguin eta compli guré berondaté propria, baina bay harena, harde çagun norc guré curutçia, eta guero haren hatçari iarraquiric huna segui deçagun, hala, Euangelistac dio, *Qui vult veni re post me abneget semetipsum, tollat Crucem suam, & sequatur me.* Ené ondoan gin nahi deuac, beré buria arnega beça, har beça beré curutcia, eta segui neçà. Iaun hon harc orori erakhustendu bidia, bera lehenic doa, armac escuan, eta gu miserabliac, gu galdiac, gu erhoac ezqira ioaiten haren ondoan, haren bidia vtciric, bekhatiaré bidé gaixtoaz gabiltça mundu hontan, guida honda, Capitanoa honda, baina soldadoa, gaixto, ceren ezpaíta haren bidiaz ibilten: considera baleça soldadoac, nola guida hãdi hura IESVS guré salbatçalia, ha gati hil de, haren salbatceco, haren herioaz orhituric, beriaz orhitlaité, eta elaité makhur haren bideric, ez esquin, ez ezkhuer.

Gugati, eta guré salbamendiaren amorecatic celuti iautxi da, eta incarnatu espiritu saindiaz, Maria Virgina ganic, eta guiçon, eguin, gugati crucificatu, herio, eta passioné igaren eta ehortci, Pontio Pilato iudiaren pian, dio çonciliobatec, *Propter nos, & propter nostram salutem descendit de Cælis, & incarnatus est de Spiritu Sancto ex Maria Virgine, & homo factus sst, crucifixus etiam pro nobis, sub Pontie Pilato, passus & sepultus est.*

Hilda gugati, et guré bekhatiac direla causa, eta piztu eta resuscitatu, guré iustificationia dela causa, dio Apostoliac, *Traditus est propter nostra delicta, & resurrexit propter iustificationem nostram.*

Guré herioa hildu, eta ruinatu beré herio propiaz hilcian, eta guré bicia reparatu, eta alegueratu, pitcia eta resuscitatcian, catitatcendu Eliçac prefacioan, pazco demboran. *Mortem nostram moriendo destruxit, & vitam resurgendo reparavit.*

[114]
In Prefa.
Temp. Pasch.

Gugati celuti lurrera iauxi da, incarnatu, eguin guiçõ, hartu arimabat eta gorpitchbat, Virginia ama baten sabel benedicatian, sortu bederatçu hilabeteren burian, onci sacratu hartaric, beré amaren virginitatiari oguenic deusetan eré eguin gabé, hala nola Prophetac erran baitcian lehenago dembora lucez, *Ecce Virgo concipiet, & pariet filium*, virgina batec concebitucodu, eta sortuco du semebat, gugati bici içanda lurrian hoguey eta hamirur vrtez, eguin erran hanitz signo, eta miraculu daudiric, beré passioné dolorosian, odol eta hur icerdi egoitci, beré, buru sacratian ilhoriz coroatu, borreuen escutic, bost edo sey mila açoté vkhaldi recebitu, tustatu, chofleztatu, vsticataz colpuz, maredictionez beté, gossia egarria soffritu, curutcia soifien carregatu, Curutcian, Calnarioco mendi tinian, bi ohoinen artian vrecatu, eta crucificatu.

Essay. 7

Gugati horic oro soffritu ditu guré guidac, guré Capitano handiac, IESV-CHRISTO Iaunac, Trinitaté saindiaren second personac, aita eternalaren semé naturala eta bacoitz.

Neuré adisquidia, othoy considera eçaçu çuré Iaunaren amorioa, çuganat çombat handi içan den, orhitcité çugati hildela, ordian, çu baitcira haren soldadoa, çuc eré behar duçula haren ondonn hil, orhituco cira, eta bidia haur lion edirené, ezta possiblé norc eré Iesu-Christen hilcia eta passioné dolorosa bere bihotcian eduquiten baitu, eztadin beré herioaz orhit, eta bekhatu mortaletaric ezteçan beguira beré arima gaichoa, haur da remedio handibat, beré hilciaz orhitceco, IESV-CHRISTEN herioaz orhitcia, eta haur da ené bigarren arracoña, çoinec obligatcen baicutu guré hilciaz orhitcera.

[115]

Gugati çombat vrhatz, çombat iauci, eta laster eguin dian, guré Iaunac, considera eçaçu, esperança dut iauci eta laster hetan, edirenen duçula, haren herio delorosa, eta ezpacira, iudu, edo mairu, orhituco cirela curé hilceco orenaz, beliacité S. Gregorio doctor handiari, nola minço den guré Iaunac gugati eguin dutian vrhatsez, eta lauciez. De *Cælo venit in vturum, de vtero venit in præsepe, de prosæpe venit in Crucem, de Cruce venit in sepulchrum, de sepulchro redijt in Cælum. Eoce vt nos post se currere faceret, quosdam pro nobis saltus manifestata per carnem veritas dedit.* Celuti ginda sabelera, sabeletic ginda establiala, establiatic ginda curutciala, curucetic ginda tombala hobiala, tombatic itçulida, eta ioan da celurat; soxeguiçu çõbat laster, eta vrhatz eguin dian haraguiaren pian aguertu, eta manifestatu içan den eguiac, guré beré ondoan lasterres ioan eraciteco.

D.Greg. Papa
Hom. 29

Neuré adisquidia, çuré herioaz orhitceco, guré Iaunaren bide lucé, vrhatz, laster, eta passeyu handi horiez orhitcité, bidia luceohé baçaçu, passu orotan nahi ezpacira guelditu, aumens gueldicité cumcian, han edirenen duçu haren ohia, haren herioa, han edirenē duçu

[116] Iesusbat çugati hilic, Ienco guiçonbat, eta guiçon Iencobat, çugati vrkhatu-ric, crucificaturic, beré bessoc çurbaten contré hedaturic, eta itçaturic, beré hoiñac elkharretan gaiñen plegaturic, eta içaturic, çuré çorren pagatcen, beré odolaren despendioz, eta çuré baquiaren eguiten bere aita eternalarequi batian, egunian behin passeyá bacité bidé har-tan, hambat sobera içanen cira Iesus haren adesquidé eta hura çuré, non bician ohoratu, eta adoratu duçun curutciac, hilian çuré etxayen contré deffendiaturic, guidatuco baitcitu chuchen celuco resuma handi har-tara.

Ad Rom. 5 Guré amorecatic, guré salbaterá ginda celutic lurrera, guré Iauna, erran dugun beçala, eta erran dian beçala Apostoliac, *Commendat autem charitatem suam Deus in nobis, quoniam cum adhuc peccatores essemus, Christus pro nobis mortuus est*, guré Iencoac, beré ontatçuna, beré charitacia, eta misericordia gutan handizqui; eta goraqui erakhtistendu, ceren bekhatore, eta indigné guinehric, gugati hil baita.

Iencoac baciã bertcé moyenic eré natura humanaren redemptionaren, eta erospenaren eguiteco, baina ororen cruelena, eta garratcena hautatudu, çoiña baita herioa, guri beré amorioaren eracusteco, eta guré bihotcen bereganat eracarteco.

[117] Lehenic Iencoac guiçona redemitcen, erosten, eta salbatcen ahal cian placer vkhan balu, *Per merã condonationem*, beré faltaz hari barkha-mendu eguinic, beré misericordiaz, eta beré liberalitatez, guiçonari beré oguena, falta eta bekhatia barkhatu-ric, Iencoac cen offensatia, guiçona offensaçalia, offensatiac placer vkhen du. Offensaçaliari barkhatu beré offensa, norc cer erranen cian Iencoaren contré, edo erranic eré deus cer ansia çuquian Iencoac neoren erranaz, Iencoac sobera da handi, poderos, eta infinito, non ezpaita obligatu conduric rendatcera beré actionez, beré buriari, baicy, oro dira haren peco, hura ororen guehien, celia eta lurla, Ainguriac, eta guiçonac oro haren pian ikharatcen dira, eta harc orori leguia eguitendu, hargati dio Theologi-*ac, Deus est Ens à se*. Iencoac da içatebat, eta gauçabat bera beraganic, berebrutic eguina; hambatequi Ienco handi harc, celuco, eta lurreco Iaunac, hitz bacoitz batez, Adam eta harè posteritacia oro, placer vkhen balu, salbatcen ahal cian, erran balu hitça Adami, Adam, gratia misericordia, eguiten drauçut, çuré culpa, eta bekhatia, barkhatiada mundia oro salbatu cen, redemptioné, eta erospen sacratu hura complitu çatequian, baina remedio, hura vtcidu, guri beré amorioaren hobequi eracusteco.

Secontian, mundia redemitcen, eta salbatcen ahal cian guré Iencoac, *Ex imperfecta iustitia, per qualemquamque satisfactionem*, recebitcen ciaric guiçonaren aldetic beré faltaren punitionetan, eta hari eguin cian oguenaren reparationetan, cerbait satisfacione, ez hain graué, eta hain

handi, nola baitcen oguena eta iniurioa, bena apalago, mendriago, eta gutiago satisfactionia, eta cer eré baitçatequian guehiago eguin behar satisfactioné, guehiago hura, Iencoac guiçonari barkhatcen cialaric, guisa hartan, mundia salbatuco cen, Iencoac guiçonari bere faltaren, eta çorraren partebat pagueraciric, eta çorraren bertcé partia, liberalqui hari barkhaturic, çorra parté pagatu, parté quittatu, eta Iencoa, eta guiçona biac confêt, eta satisfatu. Baina ezta nahi içan cerbutcatu erremedio hontçaz guré Iencoa, guri hobequi beré charitatarè aguertceco.

Herenian guré Iencoac mundia salbatcen ahal cian, *Ex prefecta iustitia*, edo, *ex vigore iustitiæ*, cialaric recebitcen reparacionebat, eta satisfactionebat, hain handiric, eta infinitoric, nola baitcen offensa handi, eta infinito, hantic Ioanda eguitecoa, bertcé moyenac quitaturic, ororen garratcena, eta vigorosena hautatu du, çoin baita herioa, eta beré herio propiaz, eta beré odol pretiosaren issorciaz, mundia oro salbatu du, eguin beré Aitari reparacionebat offensa beçain handiric, offensa infinito cen, reparacionia eré infinito içanda, çorra vigorosqui pagatu içanda, bata hain handi, nola bertcia, biac bardin, biac egoal.

[118]

Reparacioné admirablé, eta miraculos hartçaz, guré Iencoac guri beré amorioa ahal beçain goraqui erakhassidu, eta guri manifestatu camporat beré hirur perfectioné, eta attributo handiric, çoiñ baitira, iustitia, misericordia, eta çuhurtcia, eta çonbateré, hirur perfectioné handi bec iduri baita, beré artian contrario direla, eta elgarren artian, elgar ecin eguartè dutela, harc elgarrequila redemptioné vigoros hontan, iuntatu ditu, eta arcordu ederbatetan eçarry.

Erakhutxi du beré iustitia, ceren beré semé propia gugati incarna craceric eta gugati hileraciric, recebitu baitu guiconaren aldetic satisfactioné infinitobat, nola offensa baitcè infinito. Erakhutxidu beré misericordia, eta bere ontarçuna, ceren eman haitu guiçonari gratia moyena, eta boteria eguiteco beré satisfactioniaren iustoqui eta egoalqui, deuseré corretic pagatceco ginbelerat vtci bagué.

Erakutxidu beré çuhurtcia, ceren lan batetan eta obrabatetan bi vertuté, eta bi perfectioné elgarren artian contrario cirelaric, iuntatu, iossi, eta tincatu baititu, çoin baitira iustitia handibat misericordia handibatequila, arcordu eder, eta handi hartçaz, minçatu cen aspaldian Daud Erregué Propheta, errandianian, *Misericordia & veritas obuiauertunt sibi iustitia & pax osculate sunt*. Misericordia, eta eguia heldu dira eta rencontru eguin dufe elgarrequila, iustitiac, eta baquila, elgarri pot bessarkha eguin duté.

[119]

Psal. 84.

Guiçonac Iencoari ecin eguiten cian, behar cen reparacionia, ceren nola offensa baitcen handi eta infinito, eta guicono baita, herssi, flaco,

pobré, eta finito, ecin emaiten cian paguric, çorra beçain handiric, ezpaitcian nontic eman. Iencoac eré Ienco beçala ecin eguiten cian berac reparationé hura, ceren reparationé eguiliac behardu içan apalago mēdriago, behardu içan inferior, eta suiet, norc baitu recebitcen reparationia, hari: baina Iencoa ecin daté nehoren eré peco, nehoren muthil, ez baichal, guisa hartan, ez guiçonac berac, ez Iencoac berac, satisfactioné behar cena ecin eguiten cuen, guiçonac Iencoa gabé, eta Iencoac guiçona bagué lan handihura ecin complitcen çuten, cer eguin du Ienco Eternalac, makhilarē bi buriac, hi bazterrac, batetan bildu, eta iuntatu ditu, eguindu beré semé Iencoa guiçon, guiçona Ienco, virginabaten sabel sacratian, eta Ienco guicon harc eguindu mundu orogatic, beré Aita Eternalari satisfactionebat, hain handiric, eta infinitoric, nola baitcen offensa eta iniurioa handi, eta infinito, guiçon beçala mendriago cen eta apalago, eciez Iencoa, Ienco beçala bardin cen eta egoal beré aita Iencoari; hambatequi paguia hain handi, nola çorra, [120] *Vbi abundauit delictum, super abundauit & gratia*, dio Apostoliac, falta, eta culpa, handi içanda, baina, gratia, eta paguia orano handiago; reparationé harc behar cian bi conditioné, mendre tarçuna eta bardintarçuna, biac baçutian, mendre tarçuna guiçon beçala, Iendo beçala bardin tarçuna eta egoalitatia, hala reparationia içanda hain handi nola offensa, paguia hain handi, nola çorra, ceren reparationiaren eguilia, baitcen IESV-CHRISTO Iauna, eta haren actioniaren vitioa meritia, eta pretioa baitcen handi eta infinito, eta lan handi eta adorablé hartan guré Iencoac colpubatez erakussiditu beré hirur perfectioné handiac, iustitia, misericordia, eta çuhurtcia.

Neuré adisquidia, çuré Capitano Iauna hilda çuri biciaren salbatceco beré hilciaz, eta çuri hobequi beré amoriaren aguertceco, çu cira haren soldadoa, eztadin othoy çuré gogotic haren hilcia, iagoiti ialgui, orhituco cira çuré hilciaz hala eguiten baduçu, curé bicia, çuré hilcia, eta çu, hirurac huros, eta benedicatu içanen ciraté, baina, neuré adisquidia çuré Iaunac, çuré salbatceco eguin dutian miraculu handiez eta principalqui haren hilciaz, ezpacira ardura orhitcen, nola orhituco cira çuré hilciaz, eta çuré hilciaz ezpacira orhitcen, nola nahi cira onsa bici, ezpacira onsa bicitcen, nola nahi cira onsa hil, ezpacira onsa hiltcen, nola nahi cira salbatu, den ardura çuré gogoan, eta çuré bihotcian IESV CHRISTO Iaunaren herio, eta passioné dolorosa, onsa biciric, eta onsa hilic, deabruaren despit, çuré arima gaichoa salbatucoda.

[121] Egun batez Francisco Princebat, çoin deithatcen baitcen LOVIS DE BOVRBON, COMTE DE MOSTPENSIER, eta çoin baitcen Charles çortci garena, Francisco Erreguiaren Naples, Erresuman, Bisarregué, eta Loteriant Generala, heldu cen Italiatan, Pouzols deitatcen den hiribatetan,

eta ioanic Eliçabatera, çointan haren aitaren gorpitça ehortciric baitça-
goen hobebatetan, halaco guisaz heré aitaren doluz hassi cen nigarrez,
hazperenez, cincuritz, eta heyagoraz, non beré hala, hobiaren gañian
çagoela beré aitaren dethoratcen hil baitcen, eta arima Iencoari ren-
datu, Princé gazté harc erakhustera eman cian, semé lion beçala, beré
aita maité ciala, eta haren hilcia, beré bihotcian barna, baino barnago
eduquiten ciala.

Neuré adisquidia, çu non cira, cer ari cira, nola bici cira nola nahi
cira hil, IESV-CHRISTO Iauna duçu, çuré Erreguia, çuré Iauna, çuré
Princia, çuré aita, curé anayé Curutcia duçu haren hobia, ohia, thöba,
eta sepultura, han çugati hilda, vrkhatu, eta crucificatu, tari eguiçu
ardura so, eta hari so eguinic, eguiçu nigar haren doluz, haren hilciac
eçarricodu curé hunian, çuré herioaren orhitcia, onsa hilceco, non da
bidé hoheric.

Francisco eta Poloñé herrico Erregué, Henry, icē hartaco hirur
garrena Pariseco hiria assetiaturic eduquiten ciala, saint Cloud, de-
thatcen den hiri tipito hartan, hilcen, eta massacratu hi ganibet colpuz,
Fraide gaixto baten escutic, çoin deithatcen baicen Iacques Clemēt,
Dominicano Fraidé gaixto, Erregué gaiço haren bihotça, eta haren
erchiac, Saint Cloud Eliça hartan ehorciric, hobiaren eta thombaren
gaiñian, çoin baitcen harri marbrez egina, epitaphio, eta deuisa eder
haur, iarrí cen carta batetan beçala ezcribaturic moldé hontan.

Andraeas Fa-
uinus in His
toria Nauarrae
[112]

*Cor Regis in manu Dej,
Asta aiator, & dole Regum vicem.
Cor Regis isto conditum est sub marmore,
Qui iura Gallis, iura, Sarmatis dedit,
Tectus cucullo hunc sustulit siccarius.
Abi viator, & dole Regum vicem.*

Erran nahi baita euscaras guré lengagian, Erregueren bihotça Ien-
coaren escuan da.

Bara cité igapailia, Erreguen sortia deithora eçaçu Erregueren bihatça
harri marbré honen pian estaliric, eta gorderic diagoçu. Francia, eta
Poloñe, harc manatu dutu çapabatez estaliric çagoenbatec haur hilduçu,
eta degoillatu. Çoaça igaraila, Erreguen sortia deithora eçaçu.

Neuré adisquidia, çuc eta nic IESVS guré Erreguia hil dugu guré be-
khatiez, eta guré iniquitaté gaixtoez, Iudas traidoria, eta Iudu gaixtoac
içanic eré instrumendu haren hilceco: eta haren crucificatceco, guré
bekhatic açan dira ganiuetac: eta dagac haren massacratceco, gu açan
guira haren herioarē causa principalac, harc guré bekhatic beré
bizcarrían curutciala eramanic, eta carreitaturic, han hayetcaz eguindu
behar den paguia oro, Apostolubatec erran dian beçala. *Peccata nostra*

[123] *ipse portauit in corpore suo super lignum*, hilda gugati eta gu oro beré herioaz salbatu; possiblé dea, ikhusten dugunian haren ohia, eta harē thomba, baita curutcia, edo Elican, edo guré camberan, hain ingratac, eta gaixtoac guiren, non ezquiten orhit, gugati hil den Iaunaz, eta Erreguiaz; eztaquit norat nahi guiren Ioan, baina vsté badugu celurat Ioan, guré hilciaz orhitu gabé, eta vste badugu guré hilciaz orhituco guirela, IESV-CHRISTEN hilciaz orhitu gabé, nor icanenda trompaturic, eta damnaturic gu baicy.

Andraeas
Fauinus
in Histor
Nauarrae

Francisco bertce Eregué handibatec, Henri handia, icen hartaco laur garrenac, erraiten cian comunzqui beré gortian beré adesquider, proberbio, eta sententia eder haur, *Qui bien aime, tard oublie*, erran nahi baita, norc eré onsa mayte baitu, berandian ahaticera vzten diala. Princé handi harc, bi persona bertcen artian ahal cen becanbat mayté cutian hala cen beré areba propia, Princessa Catharina, Lorrenaco Princiaren emaztia, eta ezposa, bertcia cen Marquisa ederbat, çoiñec beré qualitaté ederrez abantaila handiric, eta gratia handiric, Erregué haren bihotcian ardiatsi baitcian, hain barna, non herioac ezpalu sobera sarry mundu hontaric arrapatu, Erreguec deliberatu baitcian anderé eder haren beré emasté eta esposa legitimotan meçatcera, edo erromec et çuquian boteric hari dispensaric emaiteco, cer guertatu cen, nola herioac egoalqui beré colpia emaiten baitu handier, chipier beçala, Erregueren bi anderé maytiac, hil ciren, bata beré herio naturalaz, bertcia violenciaz, borchaz, eta poçoaz bi creatura mayté hayen hil berria ençun cianian, Erregué handi harc, ardura ardura, erraiten cian, bi persona hayen dolia, eta regreta, bici ceno Beré bihotcian eduquico ciala, eta deusegatic eré, egun oroz, bici ceno, etcela hambat beré hilciaz orhituco, nola bi persona mayté hayen hilcia cela causa.

[124]

Iencoari datsala pensamendu saindu hura cian beré gogoan guc esperanca dugun becala, egun, eta oren tristé, eta malhuros hartan, noiz eré Pariseco hirian, egunaren erdian beré carrossan, François Rauail-lac, sacrilego murtrer gaixto, eta maradicatu harc bi ganiuet colpuz Francinri edequi, eta arrapatu baitcian, franciac egundano ikhussi dian Princeric handiena, hobena, eta maytena.

Neuré adisquidia, ezta adisquidé hoberic, ez halacoric, nola noiz adesquidiac, beré adesquidiaren aidé, eta fauoretan beré bicia galtcen, eta iocatcen baitu, hala dio eré euangelioan espiritu saindiac, *Maiorem chritatem memo habet quam et animam surm ponat quis pro amicis suis*. Halaco da çuganat, eta çureçat, eta niganat IESV CHRISTO Iauna, gugati hilic, beré odol pretiosaz erossi guitu eta celietrat iganez gueroz eré, Eliça saindian, aldarian vtci dian sacramendu saindiaz, beré odol ado-rabliaz, eta haragui propiaz, eta sacratiaz, behar dugunian, eta placer

Ioan. 15

dugunian, guré arimac hatcen, entertenitcen, eta saintiticitcen ditu, gu nor baguira, gutan ezpada faltaric, dignequi presenta baguité ber mahay sacratu hartara, berac erran dian beçala, *Caro men verè est cibus, Sangiris meus verè est potus*, ené haraguia da eguiazco edatecoa. Badea halaco adisquideric, hain lealic, honic, eta seguric? ez, ezta içan ez içanen nola hura gugunat, *Amicus est alter ipse*, dio batec, adesquidia dela gu guihaur den bat, gu iduribat; guré adesquide handiac Iesus honac, ezcutu solamenté mayté vkhen beré buria beçanbat, baina orano mayté vkhen gutu beré buria beno haboro, ceren beré bicia eçarriric comparationetan guré biciarequin, eta guria, beriarequila, beria galdu baitu eta iocatu, eta guria salbatu, eta hartan eracussi obraz, bata habaro estimatcen ciala eciez bertcia, haren amorio handia guganat consideraturic Apostoliac manatcen gutu bat bedera, elgar maita deçagun, harc gu maitatu gutian beçala: *Ambulate in dilectione, sicut & Christus dilexit nos & tradidit semetipsum pro nobis oblacionem*. Ibil citezté caritatian, eta amorioan, elgar maita eçacié IESV-CHRISTOC gu maitatu gutian beçala, eta harc beré buria gugati eman, eta ohorascatu dian beçala, guré Iesus hona, guré adesquidé hona mayté eztiana, içanenda desnatura tu gaixtobat haren hilciaz ezta orhituco, eta ez beriaz eré halacoa nola nahi cira onsa hil dadin, nola nahi cira salba dadin, ezta lekhurric, ez remedioric, oray guerozco, haloco biciric dagoela, galdia datça, eta damnatia, ceren ené segond arracoñaz ezpaitu conduciric eguiten, çoiñec baitio, guré hilciaz orhitceco, behar dela orhit içan IESV-CHRISTEN hilciaz, eta passioné dolorosaz.

Ioan. 6.

Cicero de amicitia

[125]

Eph. 5

Istoria nderbat irakhurtcen dugu bi adesquidé handiz, eta leialez çoi-riac deithatcen baitciren, damon eta Pythias, biac adesquidé fidelac, eta segurac, bi adesquidé hayetçaz eguitendu mentioné, Ciceron, et Valerius, bi author handi hayec, istoriac dio, eta ederra delacoz, nahidut ené librito hotan ezkhiribuz ecarri, Denis Syracusaco Tyran handi harc bi adesquidé braué, eta leyal hayetaric bata condematu ciala hilcera, criminelac gualdo eguin cian hamabost egun heppé, eta spatio, presonteguitic ialquiric, beré adesquiden, eta ascacien ikhustera ioaiteco, iusticiac reffuzatu cian criminelari galdatu cian heppé, eta spacioa, ueldurrez behin larguança balu presonteguitic ialguiteco, eladin bihur carcelura, eleçan beré hitça eduqui, eta iusticiaz truffa ladin behin campoa, eta libertatia ardiac baleça: cer eguindu bertcé adezquidiac, sartcen da carcelian adesquidé condematiaren berme, pacto, eta conditioné eguinic, codemnatia ezpaliz bihurtcen hamabost egunen barnian, harc iguaren behar cian pena, eta suplicioa patituco ciala haren lekhutan, pacte horren azpian, bata ialguida carceletic, eta hertcia han sarthu haren plaçan, cer guerthatu da, hitça cen beçala,

Cicero lib. 3. de Officiis Valerius de amicitia

[126]

hamabost egunen barnian, criminela itçuli cen presunteguiala, beré adesquidiaren beré bermeguoatic deliuratcera, DenisTyranac ikhussiric bataren amorioa, eta bertciaren leialtata, eta amiraturic bi adesquidé hayen coragia, criminelari, eta condematiari eman cian bicia, eta biac othoitu, bera heren adesquidé beré compañian recebi leçaten hayen adesquidé nahicela bici, eta hil.

Norc eztu amiraturen, eta ohoraturen bi paganoren artian amorioabat hain leialic, eta religiosic, eta hayen alderat, Tyran handibaten cortesia, eta clementia handia. Baina neuré adesquidia, norc eztu amiratuco, eta adoratuco, Iesus guré Iaunac, gratiazco leguian, guri orori erakhussi dian amorioa, eta adesquidetarçuna, gu oro, natura humanoa oro, personer çagoen, eta captiuo deabruaren carcelian, cer eguindu guré Iaunac, guré adesquidé handiac, eta leialac, carcelian sarthuric guré plaçan, hantic idoqui guitu oro, eman orori bicia, eta libertatia, eta berac beria galdu, eta iocatu, guré salbatceco, *Exinaniuit semetipsum forman serui accipiens, & habitu inuentus, ut homo*, beré buria, ezdeüstu du, eguindu beré buria esclauo, eta captiuo, eguinda guiçon, guiçonaren salbatceco. Eztu nahi deus guguanic guré adisquidiac, bere amorioaren, eta adesquidetarçunaren recompensutan guré amorioa, guré bihotça, guré borondaté hona eta guré adesquidetarçuna baici, hura baita guré adesquidé, erraitendu gu haren adesquidé içanen guirela, haren maniac eguin baditugu. *Vos amici mei eritis, si feritis quæ præcipio vobis*, ené adesquidiac içanen ciraté ené maniac, eta ené leguia beguiratcen baduçué. Guré honac, guré ohoria, gure bicia, guré içatia, guré conseruationia, guré Iaunari, eta guré bermiari, çor dugu dugun othoy ohora, eta maita guré honqui egulia, guiten haren adesquidé hura guria içan den beçala, eta nola guré obligationiac harganat, handiac baitira, guré amorioac harganat, eta guré adorationiac, iusto da handi diren eta ceren, hura guré adesquidé den beçala, gu ecin beiquiraté harenac, ezpaditçagu haren maniac onsa beguira, eta ezpadugu haren legué saindia, eta berondaté saindia complitcen, guré borondaté propia abandonaturic, dugun harena bessarkha, han bici, eta han hil, resolutioné saindu horren hartceco, guré hilciaz behardugu orhitu nic eztaquit remedio, ez secreta, ez bidé hoheric, eta guré herioaz orhitceco, dugun ezquiriba vrhezco leteretan beçala, guré bihotçaren erdian IESV-CHRISTEN passioné saindia, eta haren hiltcé dolorosa. Adesquide-

[127] bateg beria gaztelutic, presonteguiticidoquiten dianian, harè bermé sarturic, eta haren çorra beré gain harturic, hartceduna beré morsatz, eta diharuz, beré hõ propitic pagatcen dianian eta guero hari oroz quitança eguiten, eta donationé, promez emaiten hari iagoiti ez deus galdatcera beré hartciaz, eta beré pretentioniaz, baina solamenté errai-

[128]

ten drauconian content nuçu çuré borondaté honaz, maita neçaçu, eztut nahi cuganic deus, çuré amorioa baicy, erran beharda ordu hartan halacoa, adesquide hona dela, leiala, fidela, eta quasi pare gabia, amens egunco egunian, elaite ediren ehunetari bat, odo bigua; cecuria hambat da gaixto, eta corrompitu, non adesquidetarçuna mundutic akhaçatu, eta arras galdu baita, ezta edireiten, tromperia, pertidia, gaixtakharia, eta adesquidé falsuric baici.

Bada IESVS guré Iaunac halaco adesquidia içanda guganat, non guré çorrac oro pagaturic beré odalaren despendioz, deabruaren presonteguietari, eçarri baikhutu libertatian, eman orori bicia, eta berac beria galdu oren salbatceco. Ez tago deüs guri galdez, guré amorioaren, eta bihoçaren baici, norc eztu halaco adesquidia maitatuco, eta haren herioaz orhituric, nor ezta haren ondoan beré hilciáz orhituco, onsa biciric, onsa hilceco.

Curé Iaunac beré buria çordun eguin du guganat, ez deüs guganic harturic, baina berac beré placeriala promez eguinic. Hala dio S. Augustin Iaunac, *Debitor nobis factus est Deus, non aliquid accipiendo, sed quod ei placuit, promittendo.* Hongui eguilé handi hontçaz, haren hilciáz, eta beriaz orhitcen eztena, ezta nahi onsa bici ez onsa hil, ez eta salbatu. Baina bai, bidé handitic, eta largotic Ioan infernurat.

Maitaçaliac behardu maitatu gauça maitatia, harganic deüs honic, esperança gaberíc, eta harganic deüs damuric ahal duquienaz, veldur gaberíc, adesquidé honac beria behar du diot maitatu, beré adesquidiaren amorecatic, damiaren veldurra, edo honaren, eta prouecnuaren esperança consideratu gaberíc, hura daté adesquide hona, eta han daté adesquidetarçuna osso, eder, eta complitu, hala dio Ciceronec, *Amare, nihil est aliud, nisi eum ipsum diligere quem ames nullâ indigentia, nullâ quæritâ vtilitate;* amorio, edo adesquidetarçun hura deithatcenda *Amor benevolentia* amorio chahubat, eta purbat, noiz eré, çuré adesquidiac, çuré ciharen amorecatic maithatcen baiçutu, eta çuc hura, hala hala haren beraren amorecatic. Bada bertcé amoriebat ezpaita hain noble, ez hain eder, nola lehena, hura da, *Amor concupiscentia*, noiz eré gauça bat, edo personabat, maithatcen baitugu, hantic, edo harganic esperaça dugun prouetchua gatic, eta ez beraren amorecatic, halacoac beré burua maitiago du, eciez beré adesquidia, eta eliro maita beré adesquidia espalu cerbait harganic esperanca eta haren adesquidétarcuna ezta generos, noblé, eta delicatu, lehena den beçala.

Bada IESVS guré Iaunac maitatu gutianian, erossi, eta salbatu, eta gugatic hil, eztu deüs eguin beré buriagati, oro gugatic, guré amorecatic eguindu, guc ezcundian deüs hari emaitecoric, eta etcian deusetan eré guré beharic hartan erakhussidu cenhat haren amorioa guganat

S. Augus.
Serm. 16
de verbis
Apostoli

[129]

Cicero
lib. de
amicitia

[130]

handi cen, noblé, pur, eta deliçatu, eta guc nahi ezpadugu hura maitatu haren beraren amorecatic amens dugun maita, ohora, eta adora, har-ganic vkhen dutugun eta esparança dutugun dohain, gratia honqui handien amorecatic, edo amens, ifernuco pena handien veldurrez bereré, bertcela ingratac, eta gaixtoac içanen guira, eta orhitu faltaz IESV-CHRISTEN herioaz, guriar ezquira orhituco, eta gure hilcia, içanenda hiltcê gaixtoa, eta malhurosa, *Mors peccatorum pessima*.

Alexandré handia egunbatez Ioan cen, Darius Persaco Erreguia guerlan garaituric, haren amarè, emaztiaren eta alauaren, hirur Princessa eder hayen ikhustera, eta visitatcera eta consolatcera, ceren guerlan hirurac presoner hartu baitçutian, andere hayen camberan sarthu cenian, anderé hayetatic guehiena hassi cen lehenic salutatcen Ephes-tiō deithatcen cen, Alexandrec cian Aitoren semeric maitenaren, vstez hura cen Alexandre: anderé gaiçoa, eçaguti cianian trompatu cela, eta bata herciagatic hartu ciala, ahalqué handibatec beguitartia estaliric, confusionetan baratu cen: baina Alexandrec berehala consolatu cian, erraiten cerolaric, Anderia, etcira trompatu, ephestion bertce Alexadrebata da, *Ephestio est alter Alexander*, Ephestionec valiodu Alexandrec beçanbat. Princé harc consolatu cian anderé hura heldu çaucon vstegabiaz, eta erakhustera eman Ephestion cenbat mayté cian, eta nola beré buria beçanbat estimatcen cian.

[131]

Baina IESVS guré Iaunac erakhustera emandu beré passionian, beré buria beçanbat, eta guehiago maité guntiala, ceren guré plaça harturic, guc meritatu gundian pena, eta tormenta, berac, guré lekhuman beré personan igaren baitu, eta patitu, deliuratu gutu condemnatuz gueroz burreuen escuetaric eta berac beré burin gugatic hayer largaturic, eta abandonaturic, beré bicia eta odola galdu, eta issori, guri salbatceco guriaren, estimatu gutu, eta maitatu beré buria beçanbat, eta guehiago. Adesquidé maité harçatz, eta haren passioné dolorosaz orhitcen eztena, ezta orhituco beriaz, eta beré behar ordian, eztu edirenen adesquideric lurrian, ez celian, eta bai etsay franco ifernian.

Antiquitatic bertce orduz amiratu du, eta ohoratu, Orestes, eta Pilades bi adesquidé handiren amorio handia, eta amorio leiala, Erregué Thoantesc, Orestes galdu nahi cian, eta condemnatu hilcera, emandu manu beré soldadoer, orestes bar deçaten, eta massacra, soldadoac heldu dira, eta edirè Orestes, eta Pilades elgarequila, eçagutu gabé coiñ, çoiñ cen, iaquin gabé, çoiñ cen Orestes, çoiñ cen Pilades, galdó eguin duté Orestes çoiñ cen, hassida mintçatcen Pilades, eta dio, ni niz Orestes, haur niçala Orestes, orè beriã, Orestes minçatuda, eta dio, ni niz Orestes, cen beçala, bata bertciagati hil nahi ciren bi adesquidé trandi hurac, eta inocentac, oguendunari bicia salbatu cian, Thoâtes

Erreguiac, eta haren soldadoec eçagutu faltaz, coin cen Orestes, çoiñ cen Pilades, çoiñ cen ogenduna, çoiñ cen oguenic etciana.

Eguiaz erran beharda bi adesquidé hurac leyalac, eta segurac cirela, ceren inocenta nahi baitcen hil, criminela gatic, eta criminelac ezpiatician nahi inocenta hayatic hil ladin.

Neuré adesquidia, amira eçaçu, ohora, maila eta adora, guré adesquidé, hona, leyalac, eta segura IESV CHRISTO Iauna, guc behar gundian hil, bekhatia cela causa, emã cen arresta, prononciatu sententia, leguia paussatu, guiçon oroc, hil behar ciala eternalqui, heldu da IESVS guré adesquidia, oguenic etciana, faltaric etciana, inocenta, guiçona cen oguenduna, falta eguilia, criminela, inocenta hil da, condemnatu cenagatic, iustoa, iniustoagatic, hala dio Apostoliac, *Christus semel pro peccatis nostris mortuus est, iustus pro iniustis*. Eta berac beré bicia galdu guiçonaren salbatceco.

[132]

I. Pet. 3.

Errandu IESVS guré adesquidiac beré aita eternalari, guiçanaren aidé, bertcé orduz poetac erraiten cian beçala Nisus eta Eurialus, bi adisquide handy.

*Me me adsum qui feci in me conuertite ferrum,
Orutuli, mea fraus omnis, nihil iste nec ausus,
nec potuit.*

Vir. lib.
9 Enéi

Ené aita eternala, ni niz oguenduna, guiçonac eztu oguenic, nic pati deçadan, eta salba dadin guiçona. Neuré adesquidia, IESVS çuré adesquidé honaz orhit bacité, bide honian cira, çuré azquen orenaz orhitaric, onsa hilen cira.

Codrus Athenasaco Erreguiac, ençunic, victoria beré etsayen contre ecin irapaizten ciala bera ezpaladi hil combatian, eta ençunic oracliac eman ciala errapostu haren etsayer, galdia cirela, Codrus hil baleçalé, ençunic halaber, haren etsayec eman çutela deffensa biciaren penan, beré armadaco soldadoer, oguenic eleçaten eguin, eta ez colpuric eman Codrus Erreguiari, oracliac erran cian beçala, victoriaren hobequi irapaizteco; Erregue hon harc, cer egundu, bere resumaren salbatceco, esquale pobrebaten abitiac harturic, eta bere buria desguisaturic, bere buria hileraci cian colpuz, beré armadaren, eta beré herriaren, beré biciaren despedioz salbatceco; Erregue hona cen Codras, harc beré populiaren bicia maitiagio cian, eciez beria.

[135]

Baina IESVS guré Erreguia, oraino Erregué hobia içanda guretçat, salbatcen ahal cian, lehen erran den beçala, beré populia, bera hil gabe placer vkhen balu, baina guri eracusteco maite gundiala, gure adesquide hona cela, bere Diuinitate adorabliaren abitu ederrac gordé ditu, eta estali, guré humanitaté miserabliaren pian, eta desguisaturic guré haraguiaren pian, beré buria deabruari, eta mundiari quasi eçagutu

eraci gaberíc, hilda gugati Caluariaco mendian, salbatu eta erossi beré populia, beré odolaren despendioz, Apostoliac erran dian becala, *Empti estis prætio magno*, pretio, eta soina handitan erossiac guirela

Neuré adesquidia, IESVS curé adesquidé honçaz orhitcité, nahi bacira, eta ez orhituco cira cure bilciaz, eta bidé hontan sarturic, onsa hilen cira bidé ederrian ezta behar guelditu, goaçan aitcina ikhussi behar dugu hirur garren arracoña.

X X X X X X X X X X X X X X X X X X
X X X X X X X X X X X X X X X X X X

[134]

H I R V R G A R R E N

arracoña porogatceco, onsa hilceco

bidia dela, herioz orhitcia.

HERIOAZ mincatu diren guciac arcordu hontan dira, herio dela be-
khatu originalaren pena, haren arranda, eta haren irabacia, *Mors est pæna peccati originalis*. Herioa ezta deusere bekhatu originalaren pena baici hala dio S. Thomasec, Apostoliac ere ber gauça dio, *Stipendia peccati mors*. Bekhatiaren gagia, eta irabacia herioa. Hapalago harc berac dio, *Corpus mortuum est propter peccatum*. Gorpitça hil dela, bekhatia dela causa. Epistola hartan berian Apostolu harc berac dio, guisa hontan minço delaric herioaz, *Per vnum hominem peccatum iutruuit in orben terrarum, & per peccatum mors, & ita in omnes mors pertransiit in quo omnes peccauerunt*. Guiconbat dela causa, bekhatia sartu da, eta ginda mundura eta bekhatiaren moyenez herioa eta herioac gucia direnac oro igaren ditu, colpatu ditu, eta guicon haren personan, oroc eguin dute bekhatu.

Hambatequi herioa ezta deusere priuationebat baicy, biciare priuationia, eta ceren gaucabat hobequi nehorc eçagutcen, eta ikhusten baitu, gauca haren contrario eçaguturic, eta ikhussiric, hala nola churia, belcaren aldian, Philosophec erraiten duten beçala, *Contraria contrarijs opposita magis elucescunt*, gauça contriac, beré contren aldian hobequi aguertcen direla, dugun ikhussi, priuationé honen contra baita bicia, çombat manerataco den, hantic ikhussico dugu priuationé haur baita herioa, nolaco den.

Arima da biciaren, eta operatione corporalaren, principiobat, *Anima est principium vitæ, & operationis corporalis*.

Gratia da biciaren, eta operatione spiritualaren, eta meritorioaren

1. Cor. G

2. 2. q.
164. art. 1
Rom. G

Rom. 8

Rom. 5

[135]

hatsarria, eta principioa, *Gratia est principium vitæ, & operationis spiritalis, & meritoria, lunen gloriæ est principium vitæ, sine operationis beatifica, et æterna*, Gloriaren arguia da, biciaren, eta operatione beatifico, eta eternalaren hatsarria, eta principioa.

Hargati errayten dugu, bicia hirur manerataco dela, corporala, spirituala, eta eternala: eta ceren herioa baita biciaren priuationia, hantic enseguitcenda, hirur herio suerté direla, corporala, spirituala, eta eternala, herio corporala da arimaren gorpitcetic priuationia, edo separationia, herio spiritualada, gratiaren arimatic priuationia, edo separationia, çoin eguiten baita, culpa, eta bekhatia dela causa. Herio eternala da, gloriaren arguiaren priuationia, çointan baita consistitcen, bicitcé eternala paradusia.

Hirur herio mota hauc, nahiceren aldetic consideraturic, horrible dira, cruel, belz, icigarri, izaragarri, principalqui lehena, baita corporala, bada guiçona segurda etsay handi, terriblé, horriblé eta icigarri honen escura erori behardiala, eztaqui eguna, ez orena, eztaqui noiz, eta nota, bena badaqui haren colpiari ihesiric ecin eguiten diala, badaqui etsay horriblé haren beguitarté belça, eta terriblia behin ikhussi behar diala, eta ez guehiago, ezteia possiblé guiçona so eta beha egon dadin animale gaixto haren colpia nontic ginen çayon, bay, egon behardu, goyaita, eta sentinelan gäüz eta egunaz, çuhur bada, bertcela harenac eguin diala condu emaçü. Haur da ené hirur garren arraçoïña, porogateco libru hontan, onsa hilceco bidia, baita herioaz orhicia, dela ardura consideratcia, herioaren crueltarçuna, horribletarçuna eta haren malecia handia.

Gauça naturala da, animalé orori beré biciaren mayté vkhaitia, eta haren conseruatceco moyen onroren, eta remedio ororen curiosqui cherkatcia, hala nola bertcé aldetic, baita natural gauça orori, herioaren hastio vkhaitia, hari ihessi eguitia, haren beldur içatia. *Bonum est, quod omnes appetunt*, hona da oroc mayté dutena, oroc desiratcē dutena, dioté Philosophec, eta gaitça, baita haren contra, hura oroc hastio, oro haren ihesi, oro haren beldur dira.

Ardiac eta achuriac, ikhusten dianian hartça, edo otsoa beraganat giten, haren beldurac içituric, ikharatcenda, et marrakhaz, lasterca ihesi doa arçaiña, eta arçan hora, non baitira, hayetara, ceře baitaqui onsa naturaren leguiac, eta instintoac erakhutxiric; otxoa dela hare etsaya, eta haren ialia, eta harc attrapa badeça, bicia galdu behar diala.

Guiçona, baita animale ororen Erreguia, baditu harc eré beré leguiac, beré sendimendiac, eta arraçoïñaren arguiac, Philosophec eré hala emayten deraucoté beré içena, *Homo est animal rationale*, guiçona dela animale raçonablebat, baditu beré etxayac mundu hontan visibliac, eta

[137]

invisibliac, baina ez bat hain cruelic, eta hain maleciosic, nola baitu herioa, bertcen contré noicic behin deffendiatcenda, bena herioaren, contré ezta armaric, ez deffensuric. *Contra vim mortis non est medicamen in hortis*. Herioren colpiaren, eta haren maleciaren contré, ezta belhar honic baracelan edireiten.

Halatan natural da guiçonari beré biciaren, eta haren conseruati-niaren mayté vkhaitia, eta haren contra baita herioa haren hastio vkhaitia, haren ihessi ioaitia, haren veldur içatia harcatz orhitcia: ala bena guiçona hanbat gaixto da, eta miserablé, nor daquialaric herioa-ren colputic dependitcen dela haren onsa, edo gaixqui iagoiticoz, içatia, ezpaita, nahi herioaz orhitu, mundiac eta bekhatiac vtsuturic daduca, eta noiz eré içanen baita, herio vtsiac, guicon vtsiari colpu vtsubat emanic, emanendu vtsiac, vtsiaren gorpitça lurrari, eta haren arima deabruari.

Guiçon vtsia, idequitçaçu çuré beguiac, so eguiçu herioa combat den malicios, eta tronipur çuganat, haren tromperiez, eta maleciez orhitu-rit, harçaz beraz orhitcitan onsa hilceco.

Herioa, eta otsoa biac bat dira, otsoac iatendu, iresten, eta deuoratcen, otsoac becala, bena deusec eré ecin asselcen, ianago nahiago, gormand, eta gulos da animalé hura, bertcé ooren artian, deusec ere ecin assé diro.

[138]

Halacoda herioa, bere sortcia, eta içatia Adamē, eta Ebaren bekhatutic, vkhenez gueroz, egunco eguniala drano, iandu eta iretsi sey, edo cazpi mila, vrthé hontan, edo vngureno hontan, eztaquit combat milione guiçon eta emazté, condia eztaqui Iencoac berac baicy, iandu eta iretsi, otso harc, ala baina orano ezta content, ezta assé. Natura humanoa oro arras akhaua, ruina, hil, eta atarra artino, eztu honic vkhenen, azquen iuiamendu generalian assecoda iagoiticoz, an hartino ez, ordian Elia, eta Enoc Prophetac, eta Antechristo gaixtoa hilic eçarri dutinian, heda, heda, beré azquen colpia emanendu bici orori, bena egun hura gin artino otso haren hertz haguinetan treues igarendate, eta igarenen bici, sortu oro. Guiçona soguicu certan ciren, oren oroz otso minthu, cruelbat dabila çuré aldian inguru, noiz ianen cutian, gogoa emacu ora drano beçala bekhatian egon bacité, bekhatian vssiquiric, bekhatian ianen çutu.

Herioa, Vipera sugué mota gaixtobat idurida. Sugué hartçaz minço direnac, dioté, haren humiac, beré amaren sabelian concebitu, eta formatu direnian et tutela eguruquiten sortceco dembora, naturac behar dian operationé, eta termaiño ordinaria, bena beré amaren sabela mocoaz chilaturic, eta hautsiric, sortcen direla ordu gabé eta sortcian beré ama hiltcen, hantic ardiatsidu sugué harc beré içena, *Vipera, quasi ri, pariens*, vipera dela violentciaz, eta bortchaz sortcen diana.

Moldé berian herioac eguitendu guiçonaren cōtré, nola sugué hari beré humec, ordu gabé naturac heré corsu eta dembora bethé, eta complitu, gabé guiçona, eta emaztia beré adinic hobenian, beré gaztetarçunian, beré indar, eta ossagarri handienā atrapatcen ditu hanitz orduz, hiltcen eta massacraten, eta beré colpu mortala ichilic, ez vstian emanic, hambat gende gastiar; nola çaharrari prōqui, eta subitoqui, [139] bortchaz, eta violentiaz, bata eta bertcia hoberat, eta thombalat eramaiten ditu, eta han lurez estaltcen, aguian, IESVS, erraiteco, beré arimaz, eta beré eguitecoez, pensatceco lekhuric, ez demboraric eman gabé, halacoen hilcia da, hilce tristia, belça, eta malhuosa, ceren dangeros baita, halacoac hiltcen diren, hirur herio suertez, corporalqui, spiritualqui, eta eternalqui, eta galtçen dutila hirur bicitce suerté direnac, bicitcé corporala, spirituala, eta eternala, hargati Eliça saindiac othoitcé haur eguitendu Iencoari letariñetan beré haur fidelen aldé eta faboretan, *A subitanea, & improuisa morte libera nos Domine*. Iauna othoy, goarda, eta delibra guitçatçu herio subito, ez vstian, pensatu gabe giten den, herio gaisto hartaric. Neuré adesquidia, combat eré ezpaituqu ikhusten, sugue gaixtobat mocoa poçoaz betheric, çuré aldian dabila oren oroz çuré çaurtu, eta colpatu nahiz, haren maliciaz, eta crueltarçunaz orhitcité estatu honian haren colpiaren errecebitceco.

Herioa, hor errabiatu, gaixtobat idurida horac gendia edo Cabalia vssiquiten dianian, partebat eramaytendu, eta partebat quittatcen, bena eztu peça oro eramayten eta hora errabiatu bada, vsiquiten diā gauça beré vsiqui saxiaz, eta corrompitiaz, coçatcendu eta corrompitcen, halaco moldez, non lehen beno lehen ezpadu itxasoco vrian vkhutcen, eta chahtcen, errabiatcen baita eta hiltcen, beré forman, herioac, guiçona, eta emaztia vsiquitendu, eta beré vsiqui gaixtoaz coçaturic, eta corrōpituric partebat guiçonari eramaitendu eta hiltcen, eta bertcé partia ossoric quittatcendu, eztu hunquiten, gorpitça arras eramaitendu, eta arima, ecin baitiro, hunqui gabé, quittatcendu ossoric, [140] ceren imortal baita beré naturaz eta ecin hiltcen baita, hargati herioac du icena, *Mors à morsu, siuè à mordendo*, eta harc gorpitçari eginten dian vssiquia, hambat da cruela, eta, poçoatia, non haren çauria, eta colpia, baita incurabilia, eta erremedio gabia, ezta vric, ezta itxasoric, ezta cōtrepocoaric, ez barberic harē cocia sendotcen ahal dianic, ala den Aita saindia, eta Cardinalia, a la den Erreguia, Princia edo laboraria, aberatza ala pobria, hor harc behin vsiquiz gueroz hil behardu, eztadila nehor trompa, gogon eman beça hor haren vsiquiari, harga tic errandu Poetac ederqui; *Mors quo pede pulsat pauperum tabernas, regunque turres*, bardin bardina, eta egoalqui galtcen, eta ruinatcen dutiala pobren bordac eta cabanac, nola Erreguen torriac, eta

iauregui gazteliac, ezta han differentiaric, reserburic, ez eta priuilegioric aberatzaren, eta pobriaren artian.

Neuré adisquidia, çuc vzté beno lehen hor errabiatu hura ginen da çuré vsiquitera, nontic nahi baita, ala den cangotic, azpitic, burutic, bessotic, bihotcetic, ala sabeletic, vssiqui bacitça, non nahiden, hunqui bacitça ber, ioan cira, galdu cira, hil cira othoy, hor errabiatu haren vsiqui gaixtoaz eta maliciosaz orhitcité, nahi bacira onsa hil, eta salbatu.

Herioa, soldado gaixtobat, Capitano cruelbat, tyranno misericordia gagebat idurida, guerla handibat, eta horriblebat eguitendu guiçonari, eta emaztiari, gorpitça porrocatuic eta arrabazcaturic, guerla hartan erhauts, eta lur guertatcenda, haren çaiñac, eta çurrac hurturic, ikhara dabiltea, haren odola nahassiric, heraquitcenda.

[141]

Haren arima gaichoa, nahi gabez beré lekhitic, eta engonguiatic ialqui, eztaquianez norat doen, ala infernurat, ala celurat, doloré, eta regretu handirequin beré gorpitcetic, ialquitenda, eta tristura handitan, harganic congít hartcen, eta hari azquen adioa erraiten. Particularqui soldado cruel harçatz colpatia, edo den guiçona, edo den emaztia, bekhatoria bada, eta bekhatian biciric, bekhatian hiltcen bada, beré concientia propiac erratcendu, eta iaten barnetic, eta campotic, aldé orotaric, hala dio scitura snindiac, *Foris vastabit eos gladius & intus pauor*. Ezpata çorrotzbatec campotic deseguien dutiala gaixtoac, eta barnetic, veldurrac eta aprehensioniac, glossac dio, *Foris, id est in corpore, vastabit eos gladius, id est mors, diuidens animam à corpore: & intus pauor diuini iudicij animam condemnantis*. Campotic herioac ruinatuco dutiula, trenkhatcian, eta beretcian arima gorpitcetic, eta barnetic Iencoaren iuiamendiaren veldurrac, ceren arima iuiaturic, condemnatuco baitu pena eternaletara.

Deut. 32

Halacoaren concienciac vkhanendu guerla handibat, soldado traidoré harc emanic, beré contré campoan ikhussicodu beré iugia samurturic, eta coleraturic, barnian beré culpa falten accusationia, eta borreua, beré aldian beré etsaya armaturic, çoin baita deabrua, bere pian infernia, ahoa çabalturic, haren hantic barna iresteco.

Guerla hura, pundu hartan icigarri içanenda guiçon bekhatioriari, ezta içanen bat, non eztadin ikhara gudu eta batailla hartara gin dadianian, hargati dio Apostoliac, *Horrendum est in mansus Dei viui incidere*: Horriblé dela, eta icigarri erortia Ienco biciaren ezcura. Prophetac eré minço denian guerla handi harçatz, bekhatore momento tristé hartan sufferituco duenaz, dio, *horrore nimio formidabunt*, veldur eta lotsa handi batec harturic ioric egonen direla. Baina orano handiango içanenda veldurra beno, pena, formenta, supplicioa, punishmentia, çoin arima gaicho,

Heb. 10

[142]

Ezech. 32

miserablé harc infernian iagoiticoz patituco baitu, soldado gaixto harc, herioac, pundu hertsu hartan separa badeça beré gorpitcetic bekhatu mortalaren estatian, haren conditionia hambat içanenda miserablé, eta maradicatu, non haren aypamenac berac ené luma ené escuan ikharatcen baitu, eta nigarra ené beguietan behera ialqui eraciten baitu. *Desiderabunt mori, et mors fugiet ab eis.* dio spiritu saindiac Apocalip- sian, nahi diraté hil, bena herioac eguinendu ihesy hayeganic. Arima damnatiec, herioaren esqué eta bilha ibilico dira su gar handi hartan, bena eztuté edirenen herioa, hayen ihesi ioanenda, gorderic egonenda.

Apoc. 9

So, eguiçu miserablé hec, certara erori diren, herioa da biciaren corruptionia, eta priuationia, bicitcia da içatebat bicidiren orori, *Viuerе viuentbus est esse*, eta içaté oro hon da, *Omne ens est bonum*, Philosophiac erakhusten dian beçala, ala bena, miserablé hec, beré penen handitarçuna dela causa, maitiago eta nahiago vkhanen dute ez içatia, eciez içatia, herioa eciez bicia, ceren miseria hartan, sugar hartan biciric egoitia beno, hayençat hobiago baita, ez içatia, eta hilcia, eciez içatia, eta bicia, Philosophen Princiatic errandu arrçoiña, *Carere malo est, quoddam bonum*, gaitcic ez vkhaitia baita cerbait hon; eta halaber Doctor Angelicoac dioen beçala, *Melius est non esse, quam male esse.* Hobeda ez içaitea, gaisqui içaitea baiño. Hargatic orano, errã cian IESVS guré Iaunac, ikhussiric eta eçaguturic beré iaquitiaren mirailian, Iudas beré dicipulu traidoriaren bekhatia, desperationia, eta haren damnationé eternala, *Boñu erat, si natus nõ fuisset homo ille.* Hon çuqueyen sorthu ezipaliz guiçon harc, edo sorthu, eta beré hala hurtu, hondatu, eta ezdeus bihurtu baliz.

Eth. 5

[143]

S. Thom. 39. q. 9 art. 3. in corpore

Math. 26

Hobé liçaté beraz desdichatu oren gaitcian sorthu diren miserablé hayencat, hilcia, eciez bicia, hiltcen ahal balira, bena ibilico dira herioaren ondoan, bena ez edirenen herioa. *Quærent mortem, & non inurnient eam.*

Apoc. 9

Neuré adesquidia in soldado traidore haur, baita herioa, honen crueltarçunaz, eta misericordia gabiaz, orhituric, bicicité bakhian, Iencoaren gratian haren maleciez, eta tromperiez, haren colpu mortalez trufaturic, munduco guerlac althabaturic, Iencoac baitan bakhian hilen cira.

Venturaz edirenen da çoimbat spiritu gaizto, eta curiez çoiñec erranen baitu, hor errabiatu harc soldado traidore harc, herioac, beré vsiquiaz, eta beré colpiaz guiçona oro, gorpitça eta arima, biac hiltcen dutiala, eta aguien beré erran gaixtoa, eta falsa, nahi luqué porogatu esqirituraz lekhu hontaric, eta passaie hontaric, *Vnus est interitus hominum, & iumentorum, æqua est vtriusque conditio, sicut moritur homo sic & illa moriuntur.* Aberen eta guiçonon hilcia bat da, guiçona, hiltcen den beçala, aberiac eré hiltcen dira, bien conditionia, bat, da.

Ecles. 3

[144]

Eclesiast.
vltimo

Horren errapostua ezta gaix emaiten, lekhu errā denian endelguatcenda gorpitcaz, eta ez arimaz, çoin baita gauça spiritualbat, eta immortalbat beré naturaz erran dugun becala, hala dio ere escriturac *Reuertatur puluis in terram suam undé erat: & spiritus redeat ad Deum, qui dedit illum*. Bihoa erhautsa, itçul bidi erhautsa beré lurrerat, nontic ialqui baitcen harat: eta spiritua bihur bedi, itçul bedi Iencoaganat çoiñeganic ialqui baitcen eta çoiñec eman baitçian. so eguiçu nola escriturac, deithatcen dian guiçona; lur, eta spiritu, gorpitca lur, et arima spiritu, erran nahi baita, gorpitça mortal dela, hil behar diala, arima ecin hiltcen dela, immortal dela, eta iagotticoz bertcé mundian immortal içanen dela, bicico dela, edo Iencoarequin haren gloriā eternalqui huros, edo infernuan deabruaruquin eternalqui malhuros.

Erran dugu lehen eré herioa volurbat dela, eta ohoinbat, guré errana eré scitura saindiaz porogatu dugu asqui onsa, eta larguوقي, heben orano dugun ikhussi haren voleriac, eta ohoinquieriac combat handi diren, eta malicios, guiconaren contré, hobequi consideraturic haren crueltarcuna, haren horriblé tarcuna, eta malecia, hobequi harcatz orhit guitian, onsa eta hurosqui Iencoaren gratian hiltceco, ceren, eztugu bertcé intentioneric libru hontan, haur baici, porogatcia, onsa hilceco bidia dela hilciaz orhitcia.

[145]

Iob. 1

Herioac guicona, buluz gorri gorria ecartendu hilcian, edequiten derauzco azquen passagé hartan, beré honac, gucia, beré vrhiac, cil harrac, lurrac, haciendac, echiac, deuseré vtci gabé, hurosdaté athorrrabat, mantharbat, edo mihisebat badu hoberat ioaitian, hala eraitendu Iob saindiac, *Nudus egressus sum ex vtero matris meæ, & nudus reuertar illuc*. Buluz gorriric gin ninçan neuré amaren sabeletic mundura, eta buluz gorriric noa lurrerat.

Tim. 1. 6.

Hala dio orano Apostoliac, *Nihil intulimus in hunc mundum, haud dubium, quod nec aliquid auferre possumus*, Eztugu deus ekharri mundu hontara, eta eztugu deus mundu hontaric eramannen. S. Bernard Iaunac dio, *Mirabilem ianitorem, scilicet mortem in exitu, posuit mundus, qui nihil suum secum trahere permittit*.

Portal cain agudobat eçarridu munduac, baita herioa, azquen pasuan, portai çain, eta ieulier harc eztu nehori eré deus vzten, beré honetaric berequi eramaitera. volur, eta ohoin haur gaiztoa da, eta agudoa, bicia, eta honac oro edequiten ditu guiconari mundu hontaric partitcian, sosbot, edo franbat vtci gabé beré bidiarén igaraitiaco, bertcé mundiala helceco.

Volur eta ohoin gaixto harc, herioac guiçona, bulutcendu beré placer, voluptate, contentamentu orotaric, eta nola comunzqui guiçon bekhatoriac, mundian beré placerac maité baititu, *Trahit sua quēque*

voluptas, nor beré bekhatiac tiratcen diala, dio poetac, dugun erran, desplacer handiric eguiten diala herioac guiçonari beré gauça mayten edequitiaz, edequitendu, herioac aita semiari, semia aitari, ama, alhauari, alhaua amari, areua anaiari, anaie areuari, senharra emaztiari; emaztia senharrari, adesquidia, adesquidiari, Erreguiac Erresumer, Erresumac Erreguer, aita saindia Eliçari, apezcupiac beré Diocesar, guc guré demboran galdu dugu guré herrian, bi maytia, mayteric, eta Gassion, baiña gincoac eman drauco, Sanson handibat, guré conso-latceco, eta guré nigarren vchucatceco, Ienco honac eman badiço osa-garri, eta bicitcé lucé, guré desira den beçala, gure Eliça, eta guré herria, handi, eta azkhar ičanenda guré etsayez traffatceco, eta hayen veldurric ez vkhaiteco.

[146]

Labur erran deçadan, herioac, gauça maitia, eta maitagarria, maita çaliari, ez vstian ederqitendu, eta doloré, desplacer, bihotzmin handiric hari emayten.

Herioac, volur, eta ohoin harc, doloré, tormentu, eta min handiric eguitendu guiçonari hilcian, haren gorpitceco membriac oro hambat ederqui elguarren artian beiçaudian iossiric, eta vnituric, ohoin harc, descosutcen, eta barreatcen diru placer dianian, erhausten, eta dese-guiten, eta nola arimaren eta gorpitçaren vnionia, orapiloa, amorioa, baita hertsi, askhar, eder, eta maitagarri, herioa giten denian, vnione haren barreatcera, orapiloaren lachatcera, amorioaren deseguitera, gauça eder, askhar, hertsi, eta maitagarri haren flakhatcera, beltcera, eta ichussi rendatcera, norc eztu erranen herioa dela, gauça cruela, horriblia, belça, eta terriblia, eta halacoa bada, den beçala, nor ezta egonen haren veldurrez, haren beha, eta nor ezta harçatz horit ičanen, haren aiduru egonic, onsa hilceco.

Volur, eta ohoin hura, herioa dela causa, haren cruel tarçunac, eta maleciac direla causa, errandu Philosophen princiác: *Omnium terribilium terribilissimum est mors*. Orogen belcena, gaixtoena, terriblena, herioa da.

Ethic. 3

[147]

Erran nahidu, erharçunac, presunteguiac, pobrecia, mesperechiac, hotça, beroa, desohoriac, eta bertcé munduco disgraciac, desplacent dira haztiogarri, eta guiçonari, hanitz doloré, eta tormenta emaitē baina batec eré ez hanbat, nola herioac, hura da ororen lehena, eta azquena, harc du guiconá, eta guiçonaren gorpitça, eta arima, nahasten, lotsatcen, ikharatcen, eta beré goncetic, eta clotetic idoquiric, bata lur-rerat, eta bertcia celurat, edo infernurat iagoiticoz akhaçatcen.

Herio terriblé hori, icigarri da mundu gucier handier, eta chipier, iustoer, eta iniustoer, baina principalqui nor eré bekhatian bici baitira eta bekhatian hiltcen, hayençat, hurac dira miserabliac, eta malhurosac.

Psal. 33 hayen herioa da, herio gaiztoa, eta herio helça, hargati errādu Propheta Royalac, *Mors peccatorum pessima*, bekhatoren hilcia dela, hilcé gaixtoa.

[148] Bekhatoren herio gaizto, eta maradicatu hura, guerta eztaquigun, guré launac gomendio eguitec draucu guré arimaz, hura perecha deçagun, eta munduco honez casuric ezteçagun eguin, erran dianian, *Quid prodest homini, si vniversum mundum lucretur animæ vero me detrimentum paliatur?* cer provetchu du guiçonac, mundia oro irabaçaric, eta bereturic, beré arima gal badeça. Asqui clar, eta garbi minço da guré salbaçalia, bataz dio mundia, eta munduco honac ez deus direla, eta bertcé aldé dio guré arima baita immortal, harçatz arrankhura har deçagun, eztadin ioan infernurat, guré bekhatiac direla causa, baina guré obra honen moyenez, Iencoaren Erresuma eternala irabaz ahal deçan.

Iob. 1 Iob saindiac eré baçakhian bekhatoren herioa, çombat cen gaixto, eta miserablé, oihu, eta heyagora eguin cianian mundu orori, *Pellem pro pelle, & omnia quæ habet homo, dabit homo pro anima sua.*

Larria, larriagatic, eta beré honac oro emanenditu guiçonac, beré arimagatic. Lurreco honac oro eztira lur baiçi, lurreco honec eztituté balio arimabat, guiçonac, çuhur bada, beré honac, beré larria, bere bicia galbitça, beré arimaren salbatceco, beré odola oro, ezquen gotelara orano isor beça guiçonac; sua, burduiña, vrkauia, lehen sufferi bilça, eciez bekhatu mortalbaguic, gaixqui hilic, bekhatian hilic, seculacoz bere arima damma deçan. Neuré adesquidia, so eguiçu Iob çombat herioaren veldur cen, eta çombat, beré arima mayté cian, nahi nuque, haren veldurretic, eta haren amoriotic gundian bigua, edo hirur bihi, esparança nuqué ezquindiola eguin, bekhatoren hilcia, baita hilce gaixtoa, baina bay iustoen hilcia, baita hilcé hona.

[149] Ecls. 4 Comunsqui herioa ooren da terriblé, erran dugun beçala, baina principalqui, nor eré mundu hōtan baitaudé iossiric, eta itçaturic, beré placeretan, beré honnetā, eta voloptaté gaixtoetan, hayen ooren da horriblé, eta icigarri, ceren herioac halacoac bat batian, ezvstian beré gauça maytetic, separatcen baititu, eta aparlatcen iagoiticoz, eta çonbatenaz baitituté mayté munduco honac, eta placeraç, hambatenaz da hayen regreta eta desplacer handy, hayē galciáz, eta hayetic separaturic, eta priuaturic egoitiaz, hala dio Salomon çuhurrac, *O mors quam amara est tua memoria homini habenti pacem in substantijs* sais.

O herioa, a la baita çuré memoria, çuçatz orhitcia, aspré, mingar, tristé, eta karratz guiçonbati, mundu hontan, bere aisala, honez, eta ederrez betheric, bakhian bici denian, halacoac eztu nahi ençon aipamenic beré hilciáz, eta dangerousda, halacoac beré vsatu gabiarequin, herioac berti bekhatiā atrapaturic, hilcé malurosbat eguin deçan.

Neuré adesquidia, nahi ducia çuhurqui eguin, ezteçaçula mundia

sobera mayta, çuré placerac, eta çuré honac gutiago, emaçu çuré bihotça, eta çuré amorioa Iencoari, halatan, herioaren orena gin dadinian, mundu hontaric partitciac, eztrauçu dolu eguinen, eta herioa, çombat ahal belicaté horriblé, eta terriblé, haren veldur gabé Iencoaganat alague-raqui ioanen cira,

Estugu behar dudatu herioa eztela gauça ororen horriblena, eta gaix-toena, IESV-CHRISTO bera haren ueldur içanda, guiçon beçala, eta ikhussiric haren arima sacratiaç, çoin beiçagoen haren gorpitz benedicatua-requin hain ederqui, eta bortizqui, unituric, eta orapilaturic, behar ciala harganic partitu eta separatu, herioa cela causa, haren verdurrac, eta aprehensioniaç, guiçon beçala honquitu cian, eta lotsatu haren bihotça, eta herioaren veldurra erakhustera eman cian, beré aita eternalari, eguin cian othoitciaç oliuetteco baratcian forma hontan. *Pater mi, si possibile est, transeat Calix iste à me.* Ené aita eternala, possiblé bada, ni ezcapa nadin hil gabe, iguaren bedi calitça haur eneganic, bihoa calitça haur ené ganic.

Ezta amorioric, ez orapiloric, hain hertsiric, ez azcarragoric, eta maitiagoric nola arimarena, eta gorpitçarena, eta bi adesquide maité hayen elgarganic partitcia, eta separatcia, da halaher dotoren, eta minen handiena, eta cruelena, halaco guizaz non, ezpaitaqui nehorc eré, çombat cruel, eta sensiblé den hura sofferitcen dianian baici, eta guré mihiac ecin erran diro nolaco den tormentu hura, guré orena gin dadinian iaquinen dugu haren berri, hargatic guré Iauna icitu cen, eta lotsatu, guiçon beçala, ikhussiric beharciala hil, guré salbatceco. Eta hargati, erran cian, *Pater mi, si possibile est, transeat Calix iste a me,* ené ayta, possiblé bada, Calitca haur aparta bedi nigauic.

[150]

Math. 26.

Gure Iaunac ohoitcé hura eguin cianian oliuetteco baratcian, herioaren veldurrez, edo oratione hura ençun cen, haren aitaz, edo ez, ençun bacen, etcian hil behar, ençun ezpacen, haren orationia inutila cen, behar gabueric eguina: difficultaté, eta orapilo haur garbitu behar dugu errapostu bacoizbatez. S. Thomasec dio, *Non orauit, sed simplex nature desiderium proposuit, non fuit oratio, sed explicatio naturalis affectus, quo Chisti humanitas abhorrebat à morte.*

Q. 21. ar. 4
in fine

Guré Iaunac baratcian etciala, hitz hayen erraitian othoitceric eguin, baina solamente, representatu ciala bere aitari, desircundé naturalbat beré, biciaren conserbatceco, guiçon beçala, halaber hastiotarçun naturalbat, çoin baitçian IESV-CHRISTEN humanitaiac herioaren contré, ceren hura baitcen haren biciaren etsaya eta priuationia.

Actione hartan erakhustera eman cian, eguiaz giçon cela eta guiçon beçala herioaren veldurra baciala ceren herioa baita guiçonac ikhusten, eta recebitcen ahal dian gauçaric horriblena, eta cruelena.

[151]

Halaber eracustera eman cian, ordian harc erran çutian hitçac, etci-rela orationebat, baina haren humanitatiaren representatione naturalbat, ceren ordu hartan berian, mincatu baitcen beré aitari forma hontan, *Non sicut ego volo, sed sicut tu*. Ene aita, eguin bedi çuc placer ducun beçnla, eta ez ni nahi niçan beçala beré borondatia, beré aytaren borodatiari ohorescatu cian, eta hantic ioan cen eguitecoa, beré aytaren decreta complileçan, herio eta passioné dolorosbat gugati iguare cian, eta soffritu.

Eztu eguin guré Iaunac othoitce, eta orationé inutilic behin eré, noiz eré absolutoqui cerbait beré aitari galdatu baitu, haren othoitcia, eta orationia ordu oroz encun eta exauditü içanda, ez solamente bera, encun icanda, baina oraino, guri promes emandu cereré guc haren icenian, haren aytari galdatuco baicundian, hura oro ardiatzico gundiala. *Siquid petieritis patrem meum, in nomine meo, dabit vobis*, cer eré galdo eguinen baitucie ené icenian, ene aitari, hura oro vkhanen ducie. Erran den actionian, eztu deus galdoric eguin bere aitari, baina bai representatu desircundé naturalbat coin baitciâ haren humanitaiac beré biciaren conseruatceco, agueri den beçala ordian berian haren ondoan erra çutian hitz saindiez, *Verumtamen fiat non at ego colo, sed at tu vis*: Ené aita, niç hartu eta esposatu dudan natura humanoa herioaren veldur ducu, eta harganat badiçu odio, eta hastiotarçun, orotrat eré haur nucula curé semé obediencia, eta humila, eguicu nicatz placer ducuna, complituden curé borondatia, eta ez bateré enia.

Gauça naturala da animale orori, beré biciaren maite vkhaitia, eta haren conseruatcia, eta herioaren baita biciaren etsaya, eta ruinamendia, hastio vkhaitia, eta ihetsi eguitia. *Omne animal vitam tueri laborat, mortem vero, perniciemque deuitat*, dio Philosopha christino handibatec desircundé natural hori erakhussi cian guré Iaunac, hilcian, eta herioaren veldur hori, guicon beçala.

Ezta miretsi behar, ceren herioa den hain gauca gaixtoa, itchusia, beltca, cruela, icigarria, terriblia, eta horriblia, eta guiçonari hambat othoy, eta remonstranca eguiten badut ené libruto hontan, hare veldurra, eta memoria, beré bihotcian eduqui decan onsa hilceco.

Iencoac eguin dutian gauçac oro hon dira, hayetan ezta deus gaixtorrit, hala dio Escritura Saindiac, *Vidit Deus cuncta quæ fecerat, & erant valde bona*, Iencoac ikhussi ditu eguin dutian gauçac, eta bere obrac oro, et oro gauça honac ciren, eta obra honac: eta nola bekhatiac ezpaitu deus honic, eztu hura Jencoac eguin: eztiala herioac deus onic, segur da, ceren eztu icateric, ez deusbat da, priuationebat, ecinduqué deus honic. Philosophiac dio, *Omne Ems est bonum*, içaté oro hon dela; herioac eztu icateric, ezta beraz hon, baina da gaixtoa, cruela, eta horriblia.

Ioan. 15

[152]

Boecios

Genes. 1

Sapi. 1

Herioa eztu Iencoac eguin, hargatic eztu içateric, ez deus honic. Hala dio Escritura Saindian Salomon çuhurrac, *Deus mortem non fecit, nec lætatur in perditione viuorum*. Iêcoac eztu eguin herioa, eta eztu hartçen placeric bicien gualcian, eta ruinan, hargati da herioa, gaixtoa, belça, eta monstrebaten paré, itchusia, poçoaz bethia, maradicatia, eta hastiogarria.

[153]

Herioa dela ez deusbat segur da, ezta priuatione bat baici, priuationia ez deusbat: hambatequi herio, ez deusa, eta priuationia, hirurac bat.

Hori bera errandu Evangelistac, *Omnia, per ipsum facta sunt, sine ipso factum est nihil*. Iencoac eguin ditu gauçac oro, eman orori beré içatia, baina eztu eguin ez deusa, baita herioa, biciaren etsaya, eta içate ooren priuationia.

Ioan. I

Iencoac eguin du celia, eta lurra, beré botéré infinitoaz, laur elementac, celian eta lurrian diren gauçac oro, visibliac, eta inuisibliac, sensibliac eta insensibliac, spiritualac, eta corporalac, baina ez herioa, ecin eguiten cian eré, ceren ezpaitcen possiblé eguin leçan, gauça possibliac oro eguiten ahal ditu Iencoac, baina ez impossibliac, halacoen herioa; çoin baita privationebat, eta ezdeusbat, erran den beçala.

Ezta behar hargati deus erran Ienconren botere handiaren contré, hori da perfectionebat hartan, eta ez imperfectionebat., *Non esse effectus, sed deffectus*, Eguiten ahal diren gauçac, eguin ditu, edo eguinen placer badu, placer dianian, guré Iencoac, baina ecin eguiten diren gauçac, ezta eman haren boteriari, eta çuhurtciari eguin ditçan, falta, eta estakhuria ezta hartan, baina ecin eguiten den gauçan berian, gauça impossiblian.

Iencoaren obretariç berhetciric egonda herioa, hala nola adar idorra, eta ayhartia trenkhaturic baitago çuhaincetic, eztu vkhen lekhuric, ez içateric Iencoaren creaturen libru handi hartan, hanti campoan egonda, eta egonen eternitate oroz.

[154]

Norc eguindu beratz, edo nontic ginda herioa? Errandugu lehen arrapostu hori: *Per vnum hominem peccatum intrauit in Orbem, & per peccatum mors*. Guiçõbat dela causa ginda eta sarthu bekhatia, eta bekhatiac ekharridu ondoan herioa.

Rom. 5

Aita eta ama gaixto harc ekharridu, eta sorthu alhaua gaixto hura, ezdeusac emadu ez deusa, itçalac itçala, priuationiac priuationia, poçoac poçoa, gaixtoacgaixtoa.

Adamec beré desobedienciaz hautsé cian Iencoaren mania, eta galdu Iencoaren gratia, hantic ginda bekhatia, bera ginda nehorc manatu gabé, gratiaren priuationiac, emandu bekhatia, eta bekhatiac emandu herioa, baita biciaren priuationia.

Neuré adesquidia, dugun akhaua hirur guarren arracoïñ haur,

ikhussi ducu, eta encun asqui garbiqui nahi bacundian ber, herioaren beguitartia nolacoa den, mira eçaçu, eta considera egunian behin haren coloré belça, horriblia, eta icigarria, aguian haren veldurra eta haren memoria curé bihotciã sarturic orhituco cira curé hilciaz, onsa hilceco.

Salbatu nahi denac, eta Iencoaren veldurra dianac, comunzqui beré gogoan herioaren orhitmena, aipamena eta veldurra, eduquitendu eta lotzaz herioac trompa deçan, beré goardetan egoitenda.

In vitis
Patrum
[155]

Arsenius deithatu ican den emita saindubatec, çoin bici baitcen Arcadius, eta Honorius, Emperadoren demboratu, ikgussiric beré buria herioaren orenian, eta articulu terriblé hartan, coloria gualducian, eta coragia harequin, haren coloriaren cãbioa, eta hare coragiaren flakhacia, remarkhaturic haren dicipuluec, hassi ciren hari erraiten, *Quid pater iam times*, guré aita, eta guré nabusia, erraguçu, ceren veldur cira, Ermita saindiac errapuesta eman cian beré dicipuluer, *Semper in illo timore vixi*. Neuré haurrac, neuré dicipulu maitiac, egundanoz gueros veldur horequin bici icaniz, eta banoa veldur horequin.

Neuré adesquidia, saindubat herioaren veldurriã biciric, haren veldurra bihotcian hiltcen bada, cer eguinen dugu guc bekhatian guré bicia, eta guré dembora empleguatcen baitugu. Den othoy, bicïã, eta hilian, herioaren veldurra curé gogoan, bidé hontan ez salbutcecoz, non nahi cira salbatu? goaçan aicina bidé hontan dugun ikhussi onsa hilceco bidiaren ené azquen arracoïña, bideco pena, eta fatigua, ezta gogor, dulcé, eta emé da, Iencoaren cerbutcian eta guré arimen prouetchuan hartcen denian.

x x x x x x x x x x x x x x x x x
x x x x x x x x x x x x x x x x x

[156]

LAVR GARREN

*arrçoiña porogatceco, onsa hilceco
bidiaa, dela herioaz orhitcia.*

MEDAILLA behar dugu bertcé alderat itçuli, da edirenen dugu herioac, balin badu beguitarte belça itchusia, térriblia eta icigarria aldé batetic, dian beçala, eta erakhussi dugun beçala hirur barre capitulian, bertcé aldetic badiala beguitartebat, ederra, onesta, eta maitagarria, eta oro consideraturic, herioa bechardugula, ohoratu,

maitatu, eta haren veldurra vtciric a la part, Iencoaren borondatiaren pian, haren placera hala bada, haren oreña gin dadinian, boztario, eta alegrancia handirequi, hura recebitu.

Principalqui gendé pherestuec, Iencoaren cerbitçariac, Iencoaren veldurrian, eta haren amorioaren pian bici diren gendec, guehiago ocasioné duté alagueratceco, eciez tristetceco, herioaren aiphamenaz, eta haren gitiaz: hargati dio Propheta Royalac, *Prætiosa in conspectu Domini mors sanctorum eius*, Saindien hilcia valiosa, preciosa dela, alegranciaz, eta consolamenduz bethia dela, Iencoaren aitcinian haur da ene azquen arraçoïña, eta diot, herioaren itchusmena, deformitacia, eta horriblé tarçuna dela causa, haren veldurrez nahi ezpaguira, harçatz orhitu, amens, amorioz berere, haren edermenac, ikhussiric ■■ eta harc guri emaiten dutian abantailles, eta prouetchuez orhituric, obligatu guirela haren veldurric ez vkheitera, haren maitatcera, harcatz orhitcera, nahi baguira onsa bici, onsa hil, eta salbatu.

Psal. 113.

[157]

Socrates Philosopha çuhurra egun batez interrogatu içan cen, cer moldez, eta formaz erresumabat, prouinciabat, herribat onsa, et hurosqi, guidalcen, regitcea eta gouernatcen ahal cen, errapuesta bertan eman cian, erresumabat huros, eta prospero içanen cela, gaixtoa onsa punituric, eta honac, onsa recompensaturic, bici balira.

Guré Ienco honac beré forman mundu haur gobernaten du, edo veldurrez, edo amorioz, nahi gutu gu oro salbatu, handiac, eta chipiac, hartacoz ere oro eguin eta creatu gutu, apostoliac errandu hargati, *Deus vult omnes homines saluos fieri*, nahidu Iencoac guiçon oro salba dadin, eguindu paradusia honen eta infernun gaixtoen; eta ceren paradusia ecin ardiasten baitugu, bekhatu mortaler ihessi eguin gabé, eta haren manu saindiac beguiratu gabé, recompensu eternala proposatu du guré beguien aitcinian, celuco gloriaren edermenen, eta banco delicia handien esparançaz, eta desircundiaz, guré bihotcen beraganat ioan eraciteco, eta tiratceco: eta recompensieren amorecatic, nahi ezpagundu deus eguin, amens ifernuco phenen, eta tormenten veldurrez, guré bekhantietaric, guré guibel eraciteca, eta haren borondaté saindiaren compli eraciteco, ifernia proposatu du guré beguien aitcinian, amorecatic edo veldurrez, edo athorioz guré arima gaichoac salba litcan iagoiticoz.

Tim. 2

[158]

Eta ceren, ez phenen veldurra, ez recompensien amorion ecin baitu-
guegu herioaren, veldurra edo amorioa gabé, eguin dut eguin ahala, haren veldurrarê çuré bihotçare barniã sar eraciteco, hañe terrilbe tarçuna, eta horrible tarçuna çuri aitcineco capituliã eracussiric, orai, nahidut, Iencoare socorria badut ber, ené trabailu appurrari, beré conclusionaren, eta baré coroaren emaiteco, curi erakhussi laur gar-

ren, eta azquen capitulu hontan, herioaren edermenac, haren beguitarté ederra, eta maitagarria, eta harc guri orori, gu nor baguira, emaiten dutian auantailla handiac ikhussiric herioa dela, ororen gaixtoena aldé batetic, eta ororen hobena bertcé aldetic, haren veldurrez, edo amorioz, haren orhitmena, çuré gogotic eztadin iagoiti aparta.

Lehenic herioac sendotcen gutu, eta deliuratcen mundu hontaco, eritarçun, miseria, calamitaté orotaric mediçu barbarec, dembora appurbaten guré gorpitçat beré doloré, min, plaga, eta çaurietaric, sendotcen ditusté, mina eta doloria solaiatcen, arhintcen, baina arraz iagoiticoz, eçin diroté. Ezta mediçuric herioaren paré denic, harc orotarit iagoiticoz sendotcen gutu, eta guré minac arraz iagoiticoz chatcen, eta akhaçatcen.

Iob. 14
[159] Guïçona, dio Iobec, amarē sabeletic ialquiz gueroz, arté laburrez, gaiçac, eta miseriac aldé orotaric inguru, inguru cahatcen du, ceratcen, eta vrichquitē *homo nat de muliere breui viuens tēpore repletur multis miserijs.* aurqui tristé da, guero alaguerra, aurqui osso, eta sendo, guero eri, eta flakho, behin hotz, guero bero, behin aberatz, guero paubré, eta miserablé, ardura cambiatcenda, ezta behin eré ohicoa: deusec eré ecin contenta diro, baina herioac, beré pbena orotarit sendoturic, eta deliuraturic beré aisé bandian eçartendu, hambatequi herioac guïçonari abantailla handiric, eta hontarçun handiric emaitendu. Apostoliac baçaquian munduco miserien berri, eta herioaç guri eguiten dian honquiaz, erran dianian, *Infelix homo, quis me liberabit à corpore mortis huius?* Ala ni baintz guïçon miserablia, norc ni delibratuco nu, gorpitz mortal hontaric?

Apoc. 19
Apoc. 7 Ezta deus mundian, boteré dianic, herioa bera baici, guré delibratceco, munduco tribulationé corporal, eta demboraletaric. Hartacoz dio Apocalipsian, *Absterget Deus omnem lachrimam ab oculis sanctorum, etiam non erit amplius, neque luctus, neque clamor, neque nequie dolor erit vltra.* Iencoac vchucatuco dutiala nigarrac oro beré saindien beguitaric, eztela, icanen guehiago, hazperenic, cincoriric oihuric, doloreric, ez displaceric. Eta bertcé passaiebatetan dio, *Non esurient, neque sitient amplius, neque cadet super illos sol, neque vllus æstus.* Gossiac, ez egarriac eztitu guehiago ioren, ez hunquiturè, beronc, ez hotçac eztitu haboro erreren, ez carrountaturen.

So eguiçu çonbat abantailla, eta prouetchu herioac emaiten dian guiconari, guïçona nor bada, iustoa bada, Iencoaren gratian herioac atrapa badeça ber, handira cinac, eta minas, handa pundia, *Aqui esta el punto.*

Dugun bada erran herioac guïçonari gratia eta cortesia eguitan diala, haren beguitartia, ederra dela, eta maitagarria, eta haren gitiac,

eztiala behar guïçon pherestua, Iecoaren cerbutçaria lotsatu, eta ikharatu, baina au contré alegueratu, eta consolatu. [160]

Segontian, herioa da anderé noblia, galanta, liberala, eta maitagarria, edequitendu guïçonari, eta emaztiari bat edo bigua, edo hirur, edo nahi bacira guehiago, baina, baten emaitendu ehun, biden mila, hiruren milionebat, eztaquit ceinbat, edequifédu bicitcé corporala, eta ðeborla, baina emaiten beré hala bicitcé spirituala, eta eternala, corporalac eztu comparationeric, spiritualarequin, ez demboralac, eternalarequin, a la baina, spirituala emaiten du coporalaren, eta eternala demboralaren, norc eztu erranen herioa delo anderé noblebat, eta liberalbat?

Persona saindiarē eta iustoaren, mundu hontaco bicia honda, eta prouechutaco, ceren beré obr ronen medioz, Iencoaren gratian, eta amorioan haren meritia bethi goiti baitoa, et caritatian deno, meritia hala hala goratcen, eta auançatcen baita, cerē, *Charitae est radix, & principium merendi*, Caritatia baita meritu ororen çaiña eta hatzarria: baina ceinbat munduco bicia iustoaren hon baita, herioa hobeda, eta preciosago, biciac emanen dro meritu, baina ez recompensia, eta iustoac ezpadeca persevera, bere meritian, galducodu beré meritiaren valioa oro: Hobeda bada herioa iustoaren, eciez bicia, ceren herioac emaiten betrauco beré coroa, eta recompensia, iustoari. Hayatic cioian Apostoliac, *Mihi viuere Christus est, mori lucrum*, ene biçia IESV-CHRISTO da, baina ene irabacia, eta ene auantailla handia da hilcia. Erran nahidu Apostoliac, mundu hontan, Iesusen gratian, bicitciatz, ohoré dut placer, consolationé eta esperançã, baina hilcia ené hobeda, harc emanendraut neuré coroa, irabacia, eta recompensu handia, *mori lucrum*. [161]

Philip. 5

Maytaçalia, ezta bici bera baitau, baina bici da gauça maitalia baitan, ceren amorioac, maitaçalia eramaiten baitu, da transformatcen gauça maitatia ganat.. Hala errandu Platonec, *Amans magis est in re amata, quàm in amante*, eta nola Apostoliac maité baitcian IESV-CHRISTO, eta IESV-CHRISTOC Apostolia, IESV-CHRISTO bicicen Apostolian, eta Apostolia IESV-CHRISTO baitan, ceren batat bercin, bereganat, amorioac tiratcen eta arrapatcen baitcian. Aithormen eta coffessione hura eguin du Apostoliac berac, *Viuo autem iam non ego, viuit verò in me Chistus*, eniz ni bici, baina IESVS ené Iauna bicida nitan, Erran nahidu Apostoliac, Iesusec arrapatu du ené arima, ené bihotça, ené borondatia beraganat, nic harganat dudan amorio saindia dela causa, eta nic hala hala Iesusen bihotça tiratudut nehauganat, harc niganat dian amorioa, eta gratia dela causa, halatan IESVS bici da nitan, eta ni, Iesusetan.

Galat. 2

Bacian bada bacian Apostoliac ohoreric asqui, esperançã, eta consolationé franco, IESVS-CHRISTO Iaunaren gratian, içatiaz, harequin

[162] bicitciaz: baina prouechua, eta irabacia handiago hilciaz, *Mori lucrum*; berac errandu eguia eder hori, nic eré diot, haren ondoan, iustoen hobe dela herioa, eciez bicia; batac emaitendu esperança, eta bertciaz coroa, hambatequi dugun oroc erran, eta coffesa, herioa anderé noblia dela, liberata, eta maitagarria, eta iustoen hilcia, hurosa dela eta heuedicatia.

Berritz diot, pretiosa *In conspectu Domini mors sanctorum eius*, saindien hilcia, valiosa dela, eta preciosa Iencoaren aitcinian, obra honac, barurac, orationiac, humilitatia abstinencia, mortificationia, meçaren deuotqui ençutia, ardura coffessatcia, pobrecia, lekhu saindien visitatcia, emazte alhargune, haur çurtcen sokhorritcia, elicer, ospitaler, pobrer amoina, eta honqui eguitia, munduco voluptate, placer, vanitater ihessy eguitia, eztira honqui gin mundu hontan, baina bai Iencoaren aitcinian, hargati dio, *In conspectu Domini*, bertcé mundian, Iencoaren aitcinian, han vkhanen duté beguitarté: obeda beratz, iustoen herioa, eciez bicia.

Precios da, diot orano, iustoen hilcia Iencoaren aitcuiã, ceren hayen hilciac beré penen, eta beré odolaren precioaz, eta despéndioz immortalitatia erosten baitu, eta beré vertutiaren perseveranciaz beré coroa recebitcen baitu, hala dio S. Cypriano Iaunac: *Pretiosa mors haec est quæ pretio sui sanguinis emit immortalitatem, quæ accepit coronam de consumatione virtutis*. Herio hura da pretios, eta valios, ceren gauça appurraz, eta mendriaz, baita hilcé hona, obra honac irapaizten baitu gauça hondia eta infinito, baita celuco loria eterna.

Iustoac eztu ansia mundiaren, ez munduco placeren, harc beré esperanças oro eçarten ditu Ienco baitã, hilcé honian, hargati dio spiritu saindiac, iustoaz minço denian, *Sperat iustus in morte sua*. iustoaren esperanças oro beré herio honian direla. Iustoa eguiaz da alaguera, eta guecurrez tristé, cãpoan tristé, barnian aleguera, beré veldurrian alaguera da, eta beré alegrancian veldur, boztarioz eguitendu nigar, eta nigarrez dagoela, alagrancian bicida, dio doctor deuotac, *Iustus timendo gaudet, & gaudendo timet, lachrimando gaudet, & gaudendo lachrimatur*. Hobe da beraz iustoen herioa, eciez bicia eta guehiago desiratcenduté beré hilcé hona eciez munduco bicia, eta mundu hontaco içatia.

Apostoliac berritz hayana itçul nadin, onsa hiciric fida baitcen beré hilcé honari, hilcia egun oroz desiratcen cian, eta lucé çaucon, noiz hilen cen, beré IESVS maitiaren ikhuzteco, hala dio berac, *Cupio dissolui, & esse cum Christo*. Nahi niñçaté hil IESV-CHRISTO Iaunaren companian bicilceco, ené arima mundu hontan deno, bere gorpitcian estekhaturic deno, cartcelian, eta presonteguien beçala bicida, ezta

S. Cypri.
Epist. & Mart.
lib. 2 epist. 6

Pro. 14

[163]

BUSÆUS
in suis Med.

Philip. 1

içanen iagoiti beré aisian, eztu vkhanen placeric, ez phaussuric, cartcelu hartaric libratu deno, eta celurat, iganic, Iencoaren loria eterna posseditu diano.

Dauid Erreguiac eré carcelu hartaric ialquitia desiratcen cian, beré libertatiaren, eta beré placeren Iencoa baitan hartceco, demanda eder, eta iusto hura Iencoari galdatcen cian, beré othoitcetan, *Educ de carcere animam meam ad confilendum nomini tuo Domine*. Iauna othoy, so eguidachu, cartcelu hontaric libra neçachu, idoqui neçachu lurretic, eta mundutic, çuri neuré aisian, eta ené gogara, neure amorioaren, neuré laudarioen, neuré adorationen rendatceco, çuré icen saindiaren ené gogora, laudatceco, coffessatceco, eta benedicaceto. Propheta honec, herioa maitiago cian, eciez beré bicia, eta ceren eztugu guc eré erranen, herioa maitagarri dela, eta ezbatere hastiogarri.

Comunsqui saindu, eta iusto direnec, horion maité duté eta eztira bateré haren veldur. Orano dio Dauid Prophetac, *Quemadmodum desirat ceruus ad fontes aguarum, ita desirat anima mea ad te Deus*. Hala nola, orkhatçac egarri denian hura, eta ithurria desiratcen baitu, edateco, eta beré egarriaren hilceco, eta frescatceco, halahala, Iauna, ené arimac eré nahiçutu ikhussi, behiatcen doçu çuganat gitera, eta lucé ciauçoçu noiz çugana helduco den. S. Ambrosioc eré erraiten cian, *Non timeo mori, quid bonum Dominum habemus*. Eniz beldur herioaren, ceren iaun honbat dugu.

S. Hilarion eré hilcian forura hontan minçatu cen beré arimari: *Egredere anima mea, quid times, septuaginta annis senruiiusti Deo, & mori times?* Ené arima, ialqui cité, ceren veldur cira? Non da curé coragia, hirur oguey eta hamar vrthez Iencoa cerbuçatu ducu, eta oray herioaren veldur cireia? beré arimari reprochu eguiten cian herioaren veldur celacoz, ceren fida baitcen onsa biciric, eta Iencoa bician onsa cerbutçaturic, Iencoac hilcé honbat emanen çaucola? eta bilce honac guehiago valio ciala, eciez munduco biciac.

Iustoac bada, ezta veldur içan behar herioaren, iustoari, gendé pherestuer, Iencoaren adisquider, deusetan eré oguenic, minic, gaixquiric, behar eztenic ecin eguitendu herioac, baina bai, gratia ñadiric, eta fabore handiric: promesa eré emandu spiritu saindiac herioaren partez iusto diren orori, oguenic ezguitera, *Iustorum animæ in manu Dei sunt, & non tanget illos tormentum mortis, visi sunt oculis insipientium mori, illi autem in pawce*. Iustoen arimac Iencoaren escuan dira, herioaren tormentac eztitu hec vnquituco, eztu herioac hayer deusetan eré oguenic eguinen, gaixtoec, alguerrec, erhoec vsté çuten, iustoac hil cirela, baina eztira hil, bici dira, phaussian dira, herioac ezpadu botereric oguenic eguiteco iustoari, ceren behardu veldur içan iustoac

[164]

Psal. 41.

In vita ei'

Sap. 3

[165]

herioaren, horrec eztu arauic; lehen behar du maitatu, eciez haren veldurrian bici.

Nola herioac livratcen baitu guiçon iustoa gorpitçaren carcelutic, eçarten celuco resuma eternalian, bat edequiten, mila emaiten, eta nola baita, guré phena, tormenta dolore ororen fina, eta guré contentamentu, eta placer eternalen hatsarria, eta principioa, ezta erran behar deus haren contré, oro hon baiçi.

Iustoa ezta hiltc en, phitcenda, hargati saindien hilcia deithatcenda sortcia, eta phitcia, eta ez bateré hilcia; ceren hala nola haurbat sortcen denian bere amaren sabeletic mundura, lekhu tipitic, eta lekhu hersitic, ialquiric, sartcen baita lekhu handi, çabal, eta largobatetara, coin baita mundu haur, hala hala iustoa, mundu hontaric ialguiten denian lekhu hersitic, eta lekhu tipitic doa, lekhu handi çabal, eta largo batetera, çoin baita celia, eta celuco resuma, çoin comparationé bagué, baita handiago, eciez lurra, eta lurra celiarequi comparaturic ezta pundu simplebat baiçi, hala dia batec, *Terra instar Cæli est prunctum*, eta celiaaren hãditarçuna Prophetac admiraturi dio, *O Israel quam magna est Domus Dei, & imgens locus possessionis eius mgnus, & non habet finem, excelsus & immensus*.

Cicero
de Paradox.
Barnc. 3.

[166]

O Israel, ala baita handi Iencoaren echia, eta haren possessioniaren lekhu, ala baita cabal, eta largo, handi da, eztu firic, gora da, immenso, eta releuatu. Hargati iustoaren hilcia deithatcenda sortcia, ceren lekhu hersitic, baita lurra, ioaiten baita lekhu handiala, eta largoala, baita celia, eta nola haurbaten sortcian, ezpaitu nehore eguiten nigarric, eta bai erri, beré fornian, iustoaren hilcian, ezta nigarrin eguin behar, eta bai alegueratu, eta Ienco laudatu, ceren alacoa ezta hiltcen, pitcen da, sortcenda celian. —

Neuré adesquidia, guiren bada iusto, gendé pherestu, Iencoaren cerbutçari, dugun bat bederac cõcientcia hona beguira, alagueraqui bicirit, alagueraqui herioaren veldur gabé hilê, guira, edo ezquira hilen, piztucõ guira, sorthucõ guira celian, eta deusen eré beldur gabé, boztarioz, eta alegranciaz betheric, guré Iaunaren compañian bicico guira.

Herioaren veldur gabé iustoc bici direla eta bai hiltcen eré, saindien, eta iustoen Erreguiac IESV-CHRISTO iaunac, lectioné eder haur eman draucu orori hiltcian, çombateré guiçon beçala oliueteco baratcian, herioaren veldur içan baitcen, orotraterc, guero beré passione saindian, beré borondatia, bere aita eternalari sacrificaturic, erran cian boztarioz, *Tristis est anima mea vsque ad mortem*. Ené arima tristé da, ni hil artio, tristé niz neuré odola guiçonagati issur artio, hilcera çoen IESVS adorablé haren tristurac, ahal çuquian bertcé causeric,

Marc 14

eta fondamenic eré, baina nic daducat, boztarioz, eta alegrantciaz cela tristé guré launa, ceren ikhusten baitcian gauçac oro, nola ioanen ciren, *Sciebat omnia quæ ventura erant*, ikhusten cian haren hilcia auantaillos, eta precios içanen cela guré ororen, Paradusuco portaliac sey mila vrthez, eta haboroz cerraturic egonic, idequitera çoaztçala, infernucoac cerratcera, guiçona nor balitz, salbatcera çoela, ainguriac celian ateguecatcen cirela, ninguru gaixtoen lekhu hustiac, bethatcera çoatçala, aita eternala beré iniurioaz reparaturic, eta satisfaturic egoñe cela, oatura humanao, deabruaren captiuo egonic, damnationé eternalaren estatutic, gratiazco estatura igaranē cela, frutu, eta irabaci handiric, haren passione dolorosac, guri orori, gu nor baguina ber emanenciala, guré amorioz, guré placeraren placerez, alegrãtciaz, eta boztarioz trisetu cela daducat.

[167]

Hala mundu hontan iustoa triste da hoztarioz, eta alegrantiaz, camposa tristé, barnian alaguera, *Quasi tristes, semper autem gaudentes*, dio Apostoliac, triste beçala guira, baina bethiere alaguera, cer eré baita, guiren tristé, eta alaguera, tristé alegrancian, alaguera tristetian, triste veldurrez, alaguera esperancaz, maquila dugun achequi bi burietarit, herioaren veldurra, aldé batetic, herioaren amorioa bertcé aldetic, lencoaren iustitiaren veldurra, aldebatetic, haren misericordiaren esperança bertcé aldetic, *Inter vtrumque vola*, ez sobera appal, desperationiac ezquitçan har: ez gorequi igan, presumptioniac, eta vrguilliac ezquitçan trompa, goaçan bien artian, esperancaren, eta veldurraren artian, bidé hartaric doenac, eguinendu hiltcé honbat, eta edirenendu hiltcian beré herioa eder, hon, eta maitagarri.

2. Cor. 6

Herenian herioac cortesia, eta fauoré handiric eguitendu guiçonari, beré presentiaz, eta beré gitiaz, cortesia, eta gracia hurac onsa consideraturic guiçonac aithortu behardu, herioari obligationé handiac dutiala, herioa dela guiçonaren honqui eguilia, eta hambatequi herioa, eder dela, hon, eta maitagarri guiçonaren.

[168]

Deabruac eztu lanbat baitci, bethi gaixqui eguitia, eta guri ahal beçambat beré tentationé, eta illusioné gaixtoei, gaizqui eraguitia, bekhatu mortal, falta, eta culpa eraguitia, guré ondoan dabila inguru, inguru, leoin errabiata beçala, çuré biciric iateco, et deوراتceco, hala dio Apostolubatec, *Circuit quærens quem deuret, aduemarius rester tanquam leo rugiens*: Deabruac behin, mundiac, eta haraguiaç guero milantan arima gaichoari eztu emaitē baqueric ez gaiñaz, ez egunaz, nōtic bekhatu eror eraci deçaquian. Etsaya gaixto da, chotil, eta malecios, loric eztu eguiten, iratçarriric dago, guré trompatceco, eta gu loan atrapaturic, bekhatiaren lohiala egotciric, ifernuco phena etarnaletara ioan eraciteco. Badu guré etsayec mila artificio, mila inuentioné, mila

finecia, guré inganatceco, eta nola ezpaitu deuseré galdu gratia baicy, badaqui oro, badaqui sobera, guré galtceco, hura da guré etsay handia, guré arimen galgarria. Hala auisatcen gutu S, Augustino Iaunac, *Ver sus-tus est hostis, & habet mille nocendi modes*. Iaquinsia da etsaya, gaixtoa, esperta, porogatia, oro daquiana, gaixtoquerian ezta deus, non harc eztaquian.

[169] Job gaiçoac baçaquian haren berri, eta haren malecien, haren gaixta-querien, ceren haren contré furiosqui combatitu baitcen, eta harequin guerla handiric dembora laburrez igaren baitcian, hargati, erras cian hura onsa eçaguturic, *Non est potestas super terram, que ei valeat compa-rari*. Eztu nehorc lurrian asqui boteré hari comparatceco,

Eph. 8 Apostoliac eré eçagutu cian haren iocoa, bertcela etcian erranen, *Non est nobii colluctatio aduersus carnem & sanguinem, sed aduersus prin-ripes & potestates, aduersus mundi rectores tenebrarum harum*. Guré borrokha, gure gudukha, ezta solamenté haraguiaren, odolaren, munda-riaren contré, baina oraino, borrocakhatu, eta gudukhatu behar dugu mundu hontan guireno, munduco prince, erran nahidu demonioen contré, lekhu beltz, eta lekhu ilhumbé appal hayen, çoin baita ifernua, Princé, eta iaunen contré; behacité, nola Apostoliac dioen, guré etsayac eztirela bat, baina hanitz direla, gaixto direla; handiac direla.

Job. 7 Guerlan diren soldadoac danger, eta peril handitan bicidira oren oroz, noiz eré, hayen etsayac baitira doblé azkharrago, eta baten bigua. Bada spiritualian guré arimen daniera, eta perila handiago da, batz guré etsayac badira baten bigua, eta bertcé aldé, iaquinsiago, malecio-sago, eta gu baino azkharrago dira, hargati errandu orano Iob Sain-disc, *Vita hominis est militia super terram*, Guiçonaren bicia, guerlabat dela lurrian.

[170] Math. 10 Guiçonaren etsayac hanitz, eta handi dira lurriã, deabrua, mundia, haraguia, guré arima ber bera, choil choila, bat hiruren contré, hantic iuia eçaçu, çoin den flacoa, çoin den azkharra, eta guiçonac eztianez eguitecoric asqui, beré etsayen tentationen ecin akhaçatuz, ecin garaituz: eta guiconac, ala den iustoa, ala den bekhatoria, çöbat guerla eta tormëta, behar dian igaren mundu hontan Iencoarë gra-tiaren irapaizteco, eta hura irabaciz gueroz, haren conseruatceco, hambat etsayen artian. Hargatic errandu guré salbaçaliac, *Regnum Cælorum vim patitur, & violenti rapiunt illud*. Celuco resumac borchatu behardiala, eta haren irapaizliac, phennatiac, eta triuailatiac, içanen direla.

Eztugu behar vkhatu guiconaren biçia eztela guerlabat lurrian ham-bat etsayen artian : baina coffessatu behar dugu, consideraturic Iencoaren gratia, çoiñec oren oroz sokhorritcen baiquitu, gu nor

baguira, guré bihotçaren borta haren deiari, eta cumitiari, idequi badeçagu, eztela hâbat neque celuco resumaren aquisitcia, hargati errandu, *Onus meum leue est, & iugum meum suaue est.* Ene hachis, arhinda, eta ené vztarria dulce, eta eme, baina cerê mundu trompur eta gaixto hontan guireno, Iencoaren votça, eta haren deia, ezpaitugu nahi ençun, eta ez nahi hari behatu, dugun aithor eta coffessa oroc, guiconaren bicia guerlabat dela mundian, eta guti direla lurrian tentationiac direla causa, belthaturaer orten eztirenac.

Math. 11

Salomonec dio, *Septies cadit iustus in die,* iustoa çazpitan egunian erorten dela faltatan, eta culpatâ, endelguatu beharda, venialqui edo mortalqui. Eta Ioandone Ioané Apostoliac dio, *Si dixerimus, quia peccatum non habemus, ipsi nos sedcimus, & veritas in nobis con est.* Erran badeçagu, bekhatuic eztugula, guré buriac trompatcen dutugu, eta eztaté gutan eguiaric.

Prov. 24.

I. Ioan. 1

Ioandone iakhubec eré dio, *In multis offendimus omnes.* Hanitz guizaz, eta maneraz oroc offensatcê dugu, guré Ienco.

[171]

Hambat dira tentationiac handi, spiritua prompt, haraguia simple eta fragil, non guti baita, non ezten bekhatutan erurten.

Bada hanitz eri direnian Iencoari galde eguiten bailute, sendo ditçan, ossagarrin demen penitentia beré bekhatiez eguiteco, halacoen hobé liçaté hil litian, eta ez bateré sendo, ceren sendotuz gueroz, gaixtoago dira, haboro bekhatu eguiten duté, eciez lehen, edo hain bertcé bereré, eta azquenian miserablequi, eta eternalqui damnatcen dira. Hargati diot lehen beçala, herioa hobedela, eciez bicia, iustoen berere, eta herioari obligatione handiric dugula, cortesia, eta gratia hâdiric eguiten draukhula, ceren deabruaren, munduaren, haraguiaren tentationé, illusioné, tromperia, arteficio, gaixtaqueria orotaric iagoiticoz largatcan, deliuratcen, eta redemitcê baiqutu : hambatequi iustoac ecin diro recebi gratia, cortesia handiagoric herioaganic, nola gratian mundu hontariç idoquiten dianian, hargati errandut bici niçano, gu nor baguira herioa dela anderé honbat, noblebat, eta cortesbat, maitagarri dela, hobé dela eciez bicia. Biciac abandonatcen gutu, sortcian tentationé orori, danger orori, peril orori, herioac hayetaric orotarit, hiltcian deliuratcê, ez deborabaten, baina iagoiticoz, *Pretiosa in conspectu Domini mors sanctorum eius.* Preciosda Iencoaren aitcinian, saindian, iustoen hilcia, *beati mortui, qui in Domino moriuntur.* Huros dira Ienco baitan hiltcen diren guciac.

Ps. 113.

Apoc. 14

Bici guireno erorten ahal guira, hilezgueroz ez, deabruac, munduac, haraguiac, obraz, edo borondatez, rendatcen ahal gutu Iencoaren aitcinian criminel, bekhatoré, baina hilez gueroz guré etsayec éztuté gutan escuric, ez botereric, herioa da, guré liuraçalia, danger orotaric,

[172]

Cicero.

peril orotaric, tentatione orotaric⁴ herioa da guré honqui eguilia, har-gati erran cian errumeco mihi ederrac, *Mors est vltima linea omnium rerum*. Ooren azquen chedia, eta basterra da herioa, hantic harat deusen eré ezquira veldur ičanē, eta Iencoac eguiten ahaldian gratiaric handiena da, bere cerbutcariari herioacen, gratian igorraitia.

Neuré adesquidia, neuré bidiaren bazterra quasi ikhustendut, errandut herioaz nauquiana oro, çuri da eman harçatz orhitcia, nahibacira onsa hici, onsa hil, eta Paradusian sarthu.

Paganoac obligatcen citu, Escritura Saindiac legué çaharrian manatcen citu, legué berria eré bai, Elicaco Doctor Saindiac eré bai, çuré miseria propiac eré bai, IESVS çuré capitano handiaren exempliac eré, bai, herioaren itchusmenaren veldurrac eré bai, herioaren edermenen amorioac eré bai, nic eré libruto hontan çuri eguiten dudan othoitciac, bai, oroc bai, erraçu çuç ere bai, eta egunian, behin çuré cabinetian sarthurit, edo goitcian, edo arratsian, edo bietan curuché baten aicinian bekharicaturic, *Memento mori*, orhitcité herioaz.

[173]

Onsa hilceco, goitcian, arratsian, çuré concientça gora, behera, onsa examinaturic, eta vnguraturic, Iencoari barkhamendu ezkhá cité, çuré bekhatu, falta, culpa oroz, erran, eguin, pensamendu oroz. Eguiçu proinez Iencoari ez eguitera faltaric haren contré guehiago. Igarenez dolu duçula ta displacer duçula, eta gitecoaz, lehen hilen cirela, eciez haren maiestatiaren contré bekhatu mortalbat eguinen.

Ohora eçaçu egunian behin, Virginia ama gloriosa, IESV-CHRISTEN ama, çuré auocatusa handia, erroçu orationé labur haur, *Maria mater gratiae, Mater misericordiae, tu nos ab hoste protege, & hora mortis suscipe*, Maria gratia ooren ama, misericordia ooren ama, ené etsayen contré defendia neçaçu eta ené orena gin dadinian, ené arima çuré escura recebi eçaçu.

Coffessa cité ardura çuré bekhatiez, eta receui gorpitz saindia, sacramendu saindian, humilqui, deuotqui, chahuqui, purqui, eta dignequi. Aita coffessor hōbat ediren duçuniã, ez cambia, harc iaquinendu çuré berri, gorpitça eridenian eztuçu cambiatcen medicua, ez eta barbera, arima eri denian bekhatia dela causa, ez cambia aita coffessora. Meça, peredicua, Iencoaren hitca ençun itçaçu devotqui.

Anderé honaren ohoretan, Scapulario saindia, Rosario saindia ohora itçaçu,

Noizcic behin, coffessa cité intentioné hontan, eta receui eçaçu gorpitz saindia, Iencoac eman diçaçun hilcé hona.

Iracoiz cian, anderé honaren ohoretan ençun eçaçu meça, eta barur eguin, osagarria baduçu, errandu saindu batec, anderé honaganat deuot direnac, nequez damnatcen direla; eta harganat deuot eztirenac, nequez

salbatcen direla, *Sicut omnis ô Beatissima Virgo, a te auersus, & a te despectus, necesse est ut pereat, ita omnis ad te conuersus & à te respectus, impossibile est vt perent.* Ama Virgina sacratia, hala nola çuganic aparatcen denac, eta çuçaz abandonatu denac, behar baitu peritu, eta damnatu, hala hala çugana conuertitcen dena, eta çuçatz maitatu dena, impossiblê da gual dadin, eta damna dadin.

Sanctus
Anselmus
[174]

Beharrac sokhorri eta aiuta itçacu, çuré honetaric egui eçu parté, hongui eguieçu, amoinac hiltcendu bekhatia, hala nola vrac sua. *Sicut aqua extinguit ignem, ita elemosina extinguit peccatum.* Gutien vsté ducunian cure honac oro vtciric ioanen cira, eta eztuçu deus eramänen çurequila, çure obrac baici, edo honac, edo gaixtoac, *Opera illorum sequuntur illos.* Obra honec emanê draucié hiltce hona, gaixtoec hiltce gaixtoa, honec iagoiticoz Paradusia; gaixtoec iagoiticoz ifernua. Obra honic eguitecoz, *Memento mori.*

Apoc. 14

Alexandrê handiac egunbatez manatu cian Appelles pintaçale famatu hura, compazpé ederra, eta beré gortian cian maytena figura liçacon, eta pinta beré escuz ahalic hobequiena, eta ederquiena, cer eguindu Appelles pintaçaliac, anderé eder haren moldiaren eguiten cela beré lumaz, haren edermenec halaco guizaz haren bihotça charmatu çuten, non bertan harçatz amuroz guertaturic, amorioac itsutu baitcian, haren luma escuan ikharatu, eta haren huna burian nahassi, eta cordocatu: Alexandrê Princê generosac, ikhussiric guiçon haren phena, eta amorio handia, pietatê harçatz harturic, eman çaucon andere eder hura emazte, eta priuatu beré buria, mundian cian creaturaric ederrenaz, eta maytenaz, guiçon amuroz hari placer, eta gogara eguin cecan. Plinac dio, Princê harc beré coragiaren handitarçuna erakhussi ciala, actioné har-

[n° en blanc]

tan hobequi eciez victoria handibat etsayen contrê irabaci vkhen balu. Neurê adesquidia, Iencoac hala placer balu, nahi nuqué harribatez eguin bi colpu, nahi nuque eçarri curê bihotçaren erdian, eta neurian, herioaren veldurra, eta amorioa, herioaren oritmena, eta memoria, biac harçatz guerta gnindian amuroz, eta ezcontçé saindubat eguinic herioaren, eta gurê arimaren artian, ezquendecan iagoiti gurê Iencoac offensa mortalqui, sainduqui biciric, eta sainduqui hilic, *Secula seculorum* celuco resuma eternalian, phausian, eta baquian, aingurien, eta arima hurosen compañian, guehiago herioaren veldur gaberic bici guintian.

Iencoac benedietione saindu hori, beré gratiaz, eta bere misericordiaz eman baleça, enê triuauillu mendriari, eta appurrari, recompensu handiagoric enuque desiratcen lurrian, ceren esparança handibat bainuque celian, enê orena eta çuria gin dadinian, handiagoric ardiatz guindirioila, çoin baita loria eternala.

Neuré adesquidia, conclusionia dugun eman nic herioaz, çuré, eta euscaldun ororen amorecatic eguin dudan libru pobriari, veldurniz enuyatu eré bacirela, ené sobera lucé içanez, suiet tristé baten gaiñian,

Considera eçaçu mortal cirela, eta mundu hontaric landan, badela bertcé mundubat, çointan iagoiticoz guré arimac içan behar baitu edo Paradusian gincoarequin huros: edo ifernian deabruarequi malhuros.

[176]

Considera eçaçu, bekhatu mortalian, herioac eman badiçaçu beré colpu mortala, çuriac eguin diala. Hartan eciçan atrapa, bidé hon haur cherca eçaçu, hilciaz orhitcité, *Memento mori*, çaudé presto, eta vigj-lant, ceren ezpaitaquiçu eguna, ez orena. *Estote parari, vigilate, quia nescitis diem, neque horam.*

Math. 25

Seneq.
Epist. 26

Eguiçu Senequa handiaren mania onsa hilceco, *Incertum est quo te loco mors expectat, itaque tu illam omni loco expecta.* Nehorc eztaqui herioa non dagoen çuré aiduru, eta beha egoncité sentinelan, çuré goardian.

Gregor
Turon.

Eguiçu Carolus Magnus, alemaniaco Emperadore eta Franciaco Erregué saindu handi harc eguin cian beçala, haren orena gin cenian mundu hontaric bertçialat partitceco, galdo eguin ceraucoten, cer deuisa, edo epitaphio placer cian, haren tombaren gaiñian, hura hilez gueroz eçar leçaten errapuesta eman cian, eçar dacié herioa, *mors*, hura da ené guehiena, harc ni, ené coroa, ené victoria, triumphac oro, garaitu gutu, bician vkhen dut haren orhitcia, eta haren veldurra, bego, ni hilez gueroz eré, harem icena nitan gaiñen, bician eduquidut bihotcian haren veldurra, ené eçurrec, eta ene erhautsec, ene tombac, ekhar beçate, ni hilez gueroz haren içena beré gaiñian.

Neuré adesquidia, eduquacu bician, eta hilcian, herioa çuré gogoan, goician ohetic ialquitian, erraçu, aguian, arratsa gabé hilenitz; haur da bidé hona, celurat ioaiteco, haur da bide hona, onsa hilceco, herioaz orhitcia.

[171]

Bide saindu hontan makhur etcitan, ennuya etcitia, eta Iëcoac eman diçaçun dohaigna, eta gratia perseueratceco, eta hon eduquiteco, ceren ezpaita moyenic salba guitian, ezpadeçagu perseuera obra honian, erran dian beçala guré Iaunac, *Qui perseuerauerit vsque in finem hic salus erit*, Norc eré perseueratuco baitu azquen finera drano, halacoa salbatu içanenda. Erraçu Iencoari, Daudid Erreguiac erraiten

Math. 10.

Psal. 142.

cian beçala, *Domine notam fac mihi viã in qua ambulem.* Ginco handia, eta misericordiosa, mundiac, bekhatiac, itsutu nuté eta gorthu, non nabilan eztaquit, ez cer ari niçan, çuc Iauna, othoy erakhus neçaçu çoin bidetaric ibili behardudan, eta cer eguin behar dudan, çu cira bidia, eta portalia, guida neçaçu çuré bidera, çuré portalian sar nadin egun batez, idequi itçacu ené beguiac, eta ené beharriac, ençun deça-

dan çuré votça, eta sobat eguinic lurrari, considera deçadan neuré miseria, eta neuré herioa, eta harcatz orhituric, neuré obrac oro, erranac, eguinac, eta pensamendiac, vertutiaren bidian, çuré aiutiaren eta gratiaren moyenez, onsa regla, regi, eta gouerna ditçadan, bici ahal nadin lurrian bekaturic eguin gabé, çutan, çurequi, eta çugati, çu nitan, ni çutan, eta çutan hilic, ené orena gin dadinian, çurequin bici nadin iagoiticoz çuré loria eternalian. Neuré adesquidia, hara, othoy, guida, eta eraman guitçala aitac, semiac, eta spiritu saindiac. Amen.

x x x x x x x x x x x x x x x x x x
 x x x x x x x x x x x x x x x x x x

[178]

CREDOA EVSCA- RAZ.

SINHESTENDUT Iencoa ayta omnipotentian, celiaren, eta lurraren creaçalian, eta IESV-CHRISTO haren semé bakhoitcian, guré iaunian, çoin cocebitu içan baita spiritu saindiaz, sorthu Maria Virgina ganic, soffritu Pontio Pilato iugairen pian, crucificatu, hil eta ehorci, ieussi infiernietara, heren egunian hiletaric ressuscitatu. Iganda celurat, han dago iarriric. Ienco ayta omnipotentaren aldé ezqunian, hauti jinenda iuiacera hicien eta hilen. Sinhestendut Spiritu saindian, Eliça Saindu Catholican, Saindien comunian, Bekatien remissionian, Haraguiaren resurrectionian. Bicitcé eternalian. Amen.

CONFITEORA EVSCARAZ.

CONFESSATCEN niz Ienco ayta omnpotentari, Virgina ama gloriosari, san. Michel Arcangeliari, Ioandoné Iohané Baptistari, Ioandoné Petiri, Ioàdoné Paulé Apostolier, N. eta bertcé Paradusuco saindu, eta saindu orori, hen lekhuman, çuri, neuré ayta spirituallari, ceren eguiten baitut bekhatu, pensamenduz, miñatcez, eta obraz, ené faltaz, ené faltaz, ene faltaz handiz. Hartacoz othoicendut, Virgina ama gloriosa, San. Michel Archangelia, Ioandoné Iohanné Baptista, Ioandone Petiri, Ioandoné Paulé Apostoliac, N. Bertce Paradusuco saindu saindiac, hen lekhuman çu neuré ayta spirituala, othoy eguin deçacien enegati guré Iencoa. Amen.

[179]

IENCOAREN MANV SANDIAC EVSCARAZ.

1. I ENCOBAT adoreçat, eta mayta ossoqui.
2. I Haren icena ezteçala iura, ez bertcé gauçaric vanoqui.
3. Igandiac beguira itçac, ene Ienco cetbutça deuotqui.
4. Ayta, eta ama ohora itçac, bici içan lucezqui.
5. Guiçon hilçale, ecitz içanen obraz, ez borondatez.
6. Luxorios ecitz içanen gorpitcez, ez consentimentuz.
7. Bertseren honna eztuc eramanen, ez eduquiren ore iarquinarequi.
8. Falsu testimonioric eztuc erranen, ez guecurric harequi.
9. Haraguiaré obra ezteçala desira ezconcez baici.
10. Bertceren honac eztitçala desira eduiteco iniustoqui.

ELICAREN MANIAC.

[180]

1. I GANDÉ eta besta manatiez ençun ecac meça deuotqui.
2. I Oré bekhiatiac confessa itçac, aumens ourthian behin chahuqui.
3. Oré creaçalia receui eçac bazkhoz aumens humblequi.
4. Bestac santifica itçac manatu direnac fidelqui.
5. Quarta demborac, bigiliac, barur eguin itçac eta Garaçuma ossoqui.
6. Ostiralian haragui ezteçala ian, ez iracoitcian.
7. Dembora defendietan eztaçala ezconceric eguin, eta dechema primicignac bakhitçac iustoqui.

Pater nostra, eta Aue Maria euscaraz.

GVRÉ aita celietan cirena, santificatu dela curé item, jinbedi çuré resuma, eguin bedi çuré borondatia, celian beçala lurrian, emã içaguçu egunorozco oguia. Barkha itçaguçu guré bekhiatiac, hala nola guc barkhatcen baitugu guré exhayer; ezquiçatçula vtci tentatiotan erortera, baina beguira guitçagu gaitz orataric. Amen.

Salutatcen çutut Maria gratiaz bethia, Iauna duçu çurequi, Benedicatu cira ezmate ooren gaiñiã, eta benedicatu duçu çuré sabeleco frutia IESVS.

Santa Maria Iencoaren ama othoy eguin eçaçu gugati, oray, eta hilceco orenian, Amen.

AMA VIRGINA GLORIOSAREN

LETHARIGNAC , LATINEZ

KYRIE eleyson, Christé eleyson.
Kyrie eleyson.

Christe audi nos.

Christe exaudi nos.

Pater de Cælis Deus miserere nobis.

Fili Redemptor mundi Deus miser,

Spiritus Sante Deus, miserere nobis.

Sancta Trinitas vnus Deus, miserere.

Sancta Maria, ora pro nobis.

Sancta Dei genitrix, ora pro nobis.

Sancta Virgo Virginum, ora pro nobis

Mater Christi, ora pro nobis.

Mater diuinæ gratiæ, ora pro nobis.

Mater purissima, ora pro nobis.

Mater Castissima, ora pro nobis.

Mater inuiolata, ora pro nobis.

Mater Interuerata, ora pro nobis.

Mater Amabilis, ora pro nobis.

Mater Admirabilis, ora pro nobis.

Mater Creatoris, ora pro nobis.

Mater Saluatorix, ora pro nobis.

Virgo prudentissima, ora pro nobis.

Virgo Veneranda, ora pro nobis.

Virgo prædicanda, ora pro nobis.

Virgo Potens, ora pro nobis.

Virgo Clemens, ora pro nobis.

Virgo Fidelis, ora pro nobis.

Speculum Iustitiæ, ora pro nobis.

Sedes Sapientiæ, ora pro nobis.

Causa nostræ letitiæ, ora pro nobis.

Vas Spirituale, ora pro nobis.

Vas Honorabile, ora pro nobis.

Vas Insigne deuotionis, ora pro nob.

Rosa Mystica, ora pro nobis.

Turris Daudica, ora pro nobis.

Turris Eburnea, ora pro nobis.

[181]

Domus Aurea, ora pro nobis,
 Fæderis Arca, ora pro nobis.
 Ianua Cæli, ora ora pro nobis.
 Stella matutina, ora pro nobis.
 [182] Salus Infirmorum, ora pro nobis.
 Reffugium Peccatorum, ora pro nob.
 Consolatrix afflictorum, ora pro nob.
 Auxilium Christianorum, ora pro n.
 Regina Angelorum, ora pro nobis.
 Regina Patriarcharum, ora pro nobis.
 Regina Prophetarum, ora pro nobis.
 Regina Apostolorum, ora pro nobis.
 Regina Martyrum, ora pro nobis.
 Regina Confessorum, ora pro nobis.
 Regina Virginum, ora pro nobis.
 Regina Sanctorum omnium, ora pro.
 Agnus Dei qui tollis peccata mundi
 Parce nobis Domine.
 Agnus Dei qui tollis peccata mundi,
 Exaudi nos Domine.
 Agnus Dei qui tollis peccata mundi,
 Miserere nobis.
 Ora pro nobis sancta Dei genitrix
 Vt digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMVS.

Protege Domine famulos tuos subcidijs pacis, & Beatæ Mariæ seimper
 Virginis Patrocinijs confidentes à cunctis hostibus redde securos. Per
 Christum Dominum nostrum. Amen.

[183] x x x x x x x x x x x x x x x x x
 x x x x x x x x x x x x x x x x x

A V T H O R A R I

MOSDE Tartas Erretora
 Couré icena doüa gora
 Lan honen eguitiaz:
 Cirela benedicatu

Ceren baitzira minçatu
Onsa hilcé bidiaz.

Ala çu onsa minçatu
Ala çuc onsa marcatu
Celuratco bidia
Nahin couré charitatez
Batbedera vot honbatez
Harat dadin abia,

Eguias bidé ederrena
Duçu eta chuchenena
Deuotqui bizitzia,
Hartan iarraiuiten dena
Eta iunto dagouena
Duçu onsa hilcia.

Guitian bay gogo honéz
Esquer hanits libru honez
Emaitera lehia
Arueco Erretorari
Eman baitu herriari
Saluatzeco bidia.

Vscalduna alagueradi
Libru hontan ariadi
Iracourtzen deuotqui
Cer sinhilsi, cer obratu
Cer beharduya galdatu
Heben dutuc ossoqui.

[184]

P. DARTHEZ, Parliamentian Aduocatu, eta
Barcoitceco Iugia.

AVTORARI.

VSCAL herria, TARTAS,
E Lauda doctor handia,
Euscaldun oroc harçatz
Dugu libru hautia
Sainduqui bicitceco,
Harc doctrina saindia,
Celurat ioayteco
Emaitendu bidia.

IVAN DE BAGVARIE Camblonque, eta
Susmioco Erretora.

IRACOVRTV dut onsa bilceco bidia intitulatuden libria, eta Arotieco
 Iaun Erretoraz composatu içan dena; Deuotda desseigna, azcar boro-
 guiac releuatu phensamendiac, excellent thermañiac, Eta librian orotan
 eztu deuseré ecinago Christi, eta ecinago Catholiq eztenic. Maulion
 Mayatzaren çortzi guerrenian 1666.

BONNECASE Maleoco Erretora.

